goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-03-07
EGUBAKOITZA
588. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET

TOKIKOM

"Kooperatibak aukera dira mundu polarizatuan"

Kyung-seo Park | Giza Eskubideen Zentroko presidentea | **8**

Izen-abizenak euskaraz jartzeko aukera

Debagoieneko udalek bat egin dute Uemarekin | **5**

Iruñerrian 21 urte daramatzanaren bidetik, gurean Erein Da Jan | **2**

Aramaioko Udalak, ia bi milioi euro udalerria gestionatzeko | **26**

Egonkortuz doa orain dela bi urte sortu zen Oñatiko kenpo taldea | **21**

OZTOPOEN AURREAN, GAZTEEN INDARRA

GARAI ZAILAK BIZI DITU ARRASATEKO GAZTETXEAK; HALERE, AUTOGESTIOAREN BIDEAN TINKO SEGITZEKO ASMO SENDOA DUTE | **31**

Arrasateko gaztetxeko Asanbladako kideak, agertokian.

JAGOBA DOMINGO

Emakumeen izana eta eskubideak aldarrikatzeko eta ospatzeko eguna

Bihar, zapatua, da Emakumeen Nazioarteko Eguna; urtetako borrokak gogoratu, ospatu eta emakumeen egoeraren inguruko hausnarketak egitekoa. Berdintasunetik urruti, krisiak eraginda, lehen baino urrutirago, egun horren beharra agerikoa da. Herri guztiek bat egin dute. | IKUS 'HERRIAK' SAILA

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"Merkataritza biziberrituko duen alokairu soziala sustatzeko asmoa dugu"

JAIONE ISAZELAIA
Bergarako alkatea | **16**



SINADURAK

Iparraldian ikasitta | 6
ANAJE NARBAIZA

'Goicoechea', 'Goikoetxea' | 6
JULEN IRIONDO

Adin txikikoen ustez | 25
ALAITZ JAUREGI

Emakume askeago, hobe bai? | 26
ANDER ELORTONDO

Amama, eskerrik asko! | 40
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA **2** | DEBAGOIENA **4** | IRITZIA **6** | ELKARRIZKETA **8** | HERRITARRAK **10** | HERRIAK **11** | KIROLA **28** | KULTURA **31** | GAZTEAK **34** | ZURE IRAGARKIAK **35** | TELEBISTA-IRRATIA **36** | ESKELAK **37** | NON-ZER **38**

Iruñerrian 21 urte daramatzanaren bidetik, gurean, Erein Da Jan

- Laster da martxan hastekoa kontsumo kooperatiba
- Landarek 2.000 familia ditu bazkide Iruñerrian
- Bidasoaren arroan ere bada antzerako ekimen bat

Landareko kideak, Iruñerriko bi dendetako batean. | LANDARE

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Egun gailentzen den kontsumo ereduaren zurrunbilotik irten eta, besteak beste, osasunaren, energia kontsumoen eta tokiko ekonomiaren ikuspegitik ekarpena egin nahi duenak aukera berria izango du laster Debagoienean. Hori da abiatzear den Erein Da Jan kooperatibaren –irabazi asmorik gabekoa– nahia: kontsumo eredua aldatzea, bailarako lehen sektorea indartuta.

Bagararekin elkarlanean diharduen ekimena zuzenduta dago, beraz, "batetik, beste era batera –tokiko eskalan, ekologikoki, sasoiko produktuekin– ekoiztu nahi duten baserritarrei, eta, bestetik, modu iraunkor eta osasuntsuan kontsumitu nahi duten kontsumitzaileei"; hala azaltzen du bere burua Erein Da Jan-ek. Eta kontsumo zein ekoizpen mota hori errazteko, salerosketarako gune finko bat –denda bat– irekitzekoak dira; erreferentzia leku bat, ekoizleek euren produktuak hara eramateko saltzera, kontsumitzaileek leku bakarrean eta aldi bateko eskuratu ahal ditzaten –bertako– produktu guztiak.

Eguneroko azoka moduko gune finko hau –elikagaiez gain bestelakoak ere izango ditu, eta bertan ez dagoena kanpotik ekarria, ahalik eta gertukoena– berria izango da Debagoienean; hemendik kanpo, ordea, badira antzerako esperientziak, baita ibilbide luzea eta arrakastatsua daramanik ere; beste batzuk hasten ari dira, gure bailarakoa bezala: Bidasoaldeko Bidazi ere datozen asteetan da denda –azoka deitzen dute– irekitzekoa; Iruñerriko Landarek, berriz, badaramatza 21 urte martxan.

Landare aitzindari

Produktu ekologikoen kontsumitzailez osatutako elkartea da Landare, irabazi asmorik gabeko elkartea. Euren osasuna eta ingurukoena zaintzeko, eta baita lurra eta natura ere, "erosketa ohiturak aldatzea" erabaki zuten behin horrela. Eta ohitura horiek aldatu ahal izateko, eurak joan dira baliabideak, azpiegiturak, sortzen –erabat parte-hartzailea izan nahi du, zentzu horretan, ekimenak–. Bi denda dituzte –biltegi deitzen diete–, bat Iruñeko Arrotxapea auzoan, bestea Atarrabian: hamasei langile, 2.000 familia bazkide eta 2.000.000 eurotik gorako fakturazioa iaz. Landareren balioekin bat egiten duten ekoizleek hornitzen dituzte dendok, gertuko produktu ekologikoz.

Eta eurentzat, kontsumitzaile direnentzat, prezio egokiak bilatzen dituzten moduan, asko zaintzen dute ekoizleek jaso beharrekoa ere; honela, produktuaren preziotik %80 izaten da ekoizlearentzat –bitartekari gabeko harreman zuzenak dituzte–. Inguruan egun diharduten ekoizle ekologikoek, beraz, euren produktuentzat aukera aproposa dute Landaren; baina are handiagoa da anbizioa: produktuak non kokatua eta balizko kontsumitzaile talde nahikoa ziurra ikusita, ekoizpen berriak sortzea, Landareko langile David Garnatxok dioenez, horretarako urruti gabe eurenaren antzerako ekimen gehiago –Erein Da Jan eta Bidazi, adibidez– sortzeak duen garrantzia azpimarratuz: "Italiako zekaleekin gaur egun Belgikan egin eta hemen saltzen ditugun esne begetalak, bertan ekoiztu eta hemengo fabrika batean eralda daitezela".

Eta elikaduratik –honek dituen zuzeneko eta albo-eraginekin– abiatuta nahi dute eraldaketa sozialerako ekarpena egin, bizimodu osasungarria, iraunkortasuna, ekonomia soziala eta harreman kooperatiboak bultzatuta. "Gure gosarietan, bazkarietan eta afarietan" ikus daiteke, eguneroko gauzetan alegia, praktikan bultzatzen ari garen "mundu eredua", eta jatorduen gainean hartzen diren erabakiak "tresna eraginkorra" dira aldaketarako, Garnatxok dioenez. Hori da euren filosofiaren abiapuntua.

Hori abiapuntu bai, baina, egiten dituzten ekintzetan –tailer, irteera, hitzaldi...– askotariko esparruak jorratzen dituzte, norbere bizi kalitatearen eta eraldaketa sozial horren bila bestelako praktika eta ezagutzak bultzatuz; hor koka daitezke yoga ikastaroak, bizikleta konpontzekoak edo Bach loreen gaineko saioak, elikadurarekin lotutakoez gain.

Jantoki soziala

Bestalde, biltegiez gain, beste baliabide interesgarri bat ere kudeatzen du Landarek, gizarteari ekarpena egin nahi horretan; jantoki soziala da. Astean zehar mugimendu gutxi izan ohi duten *peña* edo elkarteetako bati proposatu, eta bertan jarri zuten: "Proposatu genien sukaldea uztea 11:00etatik 17:00etara astean zehar; Landarek jartzen ditu bi langile, elkarteak beste bi, eta lortzen dena da jende askok jan ahal izatea modu egoki, orekatu eta osasuntsuan"; elkartearen oinarri diren balioak jarraituz, noski, Garnatxok dioenez.

Aldi berean, Iruñerriko elkarteak proposatzen duen harreman eredu desberdinaren adibide ere bada hau; Landareren eta *peña*-ren arteko elkarlana, ohikoagoak diren beste era bateko hartu-emanen –sarri soilik komertzialak– aurrean: "Mundua espekulazioak hartua dago, ez soilik arlo ekonomikoan, baizik eta baita harremanen alorrean ere. Oso zaila da jendea musu-truk ezer egiten

Erein Da Jan zer den

- Bertakoak eta osasuntsuak diren produktuen kontsumoa bultzatuz, lehen sektorea biziberritu nahi du, eta egun ditugun kontsumitzeko joerak aldatu.
- Kontsumo eta ekoizpen era hori errazteko jarriko dute *supermerkatu* bat bertako ekoizlez hornituko dena.
- Baserritar, kontsumitzaile, langile, denentzat sozialki justua den sistema egituratu nahi du. Kooperatiba eran antolatuko da horregatik.
- Uste dute protagonistek izan behar dutela prozesuaren jabe, komunitatea bere buruaren jabe izaten laguntzeko.

Erein Da Jan-en bultzatzaileak, 2013ko udazkeneko aurkezpenean. | GOIENA

KONTAKTUA

'ereindajan@bagara.net'

Informazioa eskuratzeko edo bazkide egiteko, helbide hori dago eskura. *http://blogak.goiena.net/ereindajan* helbidean ere badaude, eta Twitterren: *@ereindajan.*

ESANAK

"Gogo handia dago gauzak egiteko, mundua aldatzeko"

DAVID GARNATXO | LANDARE

"Zentzu gabeko gurpil zoroan sartu gara eta ez gara ohartzen"

OIER FUENTES | BIDAZI

Lehen sektoreaz eta elikaduraz

Erein Da Jan-ek eta Bagarak antolatuta, *Bertakoa eta osasuntsua* izenburupean mahai-ingurua egin zuten eguaztenean Arrasaten, Kulturaten.

Pello Zabalak baserriaren bilakaeraz jardun zuen. 1916ko datua eman eta garai hartan, Gipuzkoan, 16.000 baserri zeudela esan zuen: "Pinurik apenas zegoen, lurra asko lantzen zen, azienda ere bazuten, haragia, gazta... hori dena martxan zegoen". Gerora, baina, industriarentzat izan direla lurrik onenak. Dena dela, dugun lurrak oraindik eman ahal izaten jarraitzen duela ere bazioen, eta baita lurra lantzeko eguraldi onena hemen dugula.

Bertakoaren garrantzia

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak, berriz, nutrizioaren ikuspegitik, bertakoa kontsumitzearen garrantziaz jardun zuen: "Gorputzak behar desberdinak ditu urtaro bakoitzean. Neguan, adibidez, giltzurruna da lan gehien egiten duen organoa. Iragazkiak dira, garbitu egiten dute odola, eta gorputza berotu; iragazki horiek eurek ere garbi egon behar dute. Eta ez baditugu nahikoa barazki hartzen –zopak, porruak, kipula– ataskatu egingo dira eta hotzak egongo gara, adibidez". Gure gorputza gure lurrera egina dagoela zioen, genetikoki, urteen joanarekin, eta janari batzuetarako prestatuta gaudela.

Errekondo, Diaz de Monasterioguren eta Pello Zabala. | J.I.

Jakoba Errekondok, azkenik, lur publikoen garrantzia azpimarratu zuen; tamalez gutxi dagoela zioen, eta Gipuzkoan salbuespena Leintz Gatzaga dela: "Horrek esan nahi du herri moduan etorkizun handia duela, proiektu publikoak garatu ahal izateko; lurra da basoa, da energia, da uraren kalitatea...". Lurrak publiko egin beharra nabarmendu zuen".

ikustea; eta egia da hemen ere ez duela musu-truk egiten, baina bai onura komunaren alde egiten duela lan". Eta beste adibide bat jartzearren, dio egin berri duten eta lan asko eman dien lokal aldaketan 500 bazkidek hartu dutela parte, era batera edo bestera. Duten ortu komunitarioa ere badaiteke harreman eredu desberdinaren adierazle.

Baikortasuna darie Garnatxoren hitzei: "Gogo handia dago hemen gauza berriak egiteko eta mundua aldatzeko. Eta hori egin daiteke oso modu apalean, oso modu eraginkorrean".

Ekologikoak, era integralean

Antzerako espirituz ari da Bidasoa ibaiaren arroan Bidazi izeneko ekimena. Kasu horretan berriagoa da, azoka irekitzeko dute oraindik, eta jatorria azken urteetan batean eta bestean sortu izan diren kontsumo taldeetako batean du: "Azoka deitu diogu, ze ez baitugu uste denda moduan funtzionatuko duenik; bertakook bertako produktuak eramango ditugu eta, aldi berean, denon arteko harremana sortuko da; hein batean, denok gara kontsumitzaile edo erabiltzaile eta denok gara ekoizle edo sortzaile", gauza batena edo besterena, Bidaziko koordinatzaile Oier Fuentesek dioenez. Produktu ekologikoekin bakarrik egingo dute lan, eta iraunkortasun printzipioen errespetua bilatuko dute zentzu guztietan, "lan baldintzetan", eta abar; ez ei da, horrenbestez, etiketa kontua, ikuspegi integraletik egingo omen dute ekologikoaren alde.

Ekonomia soziala eta gizartearen eraldaketa aipatzen ditu Fuentesek ere: "Gure bizitzaren ardatza kontsumoa bihurtu da, zentzu gabeko gurpil zoro baten sartu gara eta ez gara ohartzen. Naturaren gainetik jarri gara". Eraldaketarako "informazioa eta formazioa" proposatzen ditu, kontzientzia lantzea, norbanakoena eta komunitatearena, eta lehengo egiturak eta funtzionatzeko modu batzuk berreskuratzea. Eta eurek nahi dute benetako aukerak sortzea beste era batera bizi ahal izateko.

Bazkideek osatzen dute ekimena –kontsumitzaileak, taldeak eta ekoizleak daude bazkideen artean–, eta bazkideek ordu koputu bat eskaini behar diote urtean proiektuari, "jendea inplikatzeko", "eta horrela konturatzen gara zer dagoen honen guztiaren atzean", dio Fuentesek.

Amaitzeko: Debagoienean kontsumitzen diren elikagaien %10 dira bertakoak; eta ekoizten denaren %10 geratzen da bailaran. Erein Da Jan-etik emandako datua, zer pentsa eragiten duena.

FELIX AJURIA | ARTZAINA

"Askotan, baserritarrok ez dugu lan egin hirira begira"

JOKIN BEREZIARTUA

Oletakoak artzaintza du ogibide. Zalantza barik dio Erein Da Jan-eko parte izango dela.

Zer iruditzen zaizu Erein Da Jan?

Ekimen hauek beti dira positiboak. Kontsumitzaileak eta ekoizleak hurbildu egiten ditu eta elkarrekiko konpromisoa eragin. Egin behar da lan kontsumitzaileek ekoizleei emateko benetan behar dutena, eta kontsumitzaileek eskatzen dutena eskaintzeko ekoizleek. Denontzako da erronka: kontsumitzaileak jakin behar du baloratzen hurbileko produktu horrek zer duen atzean jatekoaz gain, ingurumena zaintzea-eta, eta ekoizleok egin behar ditugu ahalik eta produktu osasuntsuenak, ekologikoenak eta garbienak.

Azokak daude batetik, kontsumo taldeak sortu ziren, eta hau beste urrats bat da.

Pauso berriak eman beharra dago. Askotan baserritarrok ez dugu lan egin hirira begira, herritarrei begira. Erraztu egin behar dizkiegu gauzak kontsumitzaileei, eta euren guneetara hurbildu, eta eurak bertatik pasatu ahal izateko ordutegi baten eta kondizio batzuetan. Eta gardentasunez, betiere, jakin dezaten produktua nongoa den, norena den eta zer dagoen baserritarrak jasoko duen diruaren atzean. Eta leku hauek ez dute izan behar, gainera, salerosketa soilerako gune; topagune ere izan behar dute, baserritar eta kontsumitzaileena, bakoitzaren egunerokotasuna elkarri transmititzeko.

Gauza berriak egin ezean, egungo kontsumo joerekin, etorkizun latza du lehen sektoreak.

Lehen sektorearen inguruan aritzean, berba batzuk deskartatuta dauzkatnik: "Etorkizun latza", "Lan oso gogorra dela"... Nire hiztegian ez dago halako berbarik. Ilusioz egiten dut nire lana, eta saiatzen naiz ahalik eta produktu onena egiten eta kontsumitzaileari eskaintzen; bide asko daude horretarako. Eta Erein Da Jan oso ekimen positiboa da, oso bilakaera polita izango duena.

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Indarrean dagoen legea betetzearren, adingabeei ez diegu edari alkoholdunik saltzen

BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZURIK ONENA 2014AN

BUSTINZA
Ardo beltza gaztea Errioxa JDK, 75 cl
Ale 1 erosita: 2,79 € -%70
Litroa: 3,72€
0,84 €
2 ale erosita Litroa: 2,41 €

EROSKI
Oliba-olio birjina estra, 75 cl
Ale 1 erosita: 2,99 € -%70
Litroa: 3,99 €
0,90 €
2 ale erosita: Litroa: 2,59 €

ez dugu esango "kontuz koipeekin"
GUK EGIN EGITEN DUGU ETA HORREGATIK 200 TONA KOIPE BAINO GEHIAGO KENDU DITUGU EROSKI MARKAKO PRODUKTUETATIK

EROSKI Sannia
Gazta freskoa % 0,500 g
Ale 1 erosita: 2,99 € -%70
Kiloa: 5,98 €
0,90 €
2 ale erosita: Kiloa: 3,88 €

www.eroski.es/somosmasdehacer
Eskaintza baliagarriak 2014ko martxoaren 12ra arte

Euskararen transmisioaren garrantzia

Guraso euskaldunen hizkuntza ohituretan eragiteko, Debagoieneko udalek kanpaina jarri dute abian

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Gurasoen arteko hizkuntza ohiturak berebiziko garrantzia du seme-alabek hitz egiteko erabiliko duten hizkuntza zehazteko, eta, beraz, familia horretako eta hurrengo belaunaldietako gazteen euskararen biziraupenean"; errealitate horretatik abiatuta, Debagoieneko udal guztiek euskararen transmisioan eragiteko kanpaina abiarazi dute, *Zer ikusi, hura egin* leloa aukeratuta.

Orain hasi eta maiatzera bitartean iraungo du, eta, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak aintzat hartzeaz gain, eskola, hezkuntza eta kaleko harremanak ere jomugan jarri dituzte

Hezkuntza: etxea eta eskola

Hezkuntzari dagokionez, bultzatzaileek zera azpimarratu dute: "Haurraren heziketa zutabe garrantzitsuenak etxea eta eskola dira. Heziketa horrek emaitzarik emango badu, biek batera joan beharra daukate. Haurrak erreferentzia berdinak izan behar ditu batean zein bestean, nola jokatu jakiteko, inguruak zer baloratzen duen ikusteko, azken finean heltzen joateko, bere nortasuna eraikitzen joateko".

Kalean, aisialdian

Eta etxetik kanpo, berriz, bultzatzaileek gogorarazten dute oso garrantzitsua dela "aisialdian, lagunartean eta ezagunekin erabiltzen dugun hizkuntzari erreparatzea". Orokorrean, beraz, etxean edo kalean egiten dena gure esku dagoela azpimarratu gura dute.

Esaten dena, egiten denarekin

"Gurasoen inguruan gaiaren inguruko hausnarketa zabaldu nahi da kanpaina honekin (...) Oso garrantzitsua da esaten dugunak eta egiten dugunak bat egitea, gu eredu izatea (...) Gure esku dago, guraso euskaldunen kasuan, umeek etxean euskara ikasi eta erabiltzea. Eta umeak etxean euskara ikasten badu, ohitura handiagoa izango du eta erraztasun handiagoarekin erabiliko du. Eta horrek ziurtatzen du neurri handi batean, hainbat esparrutan (kalean...) euskara naturaltasunez erabiltzea", adierazi du Aintzane Zabaletak, Arrasateko Euskara Saileko teknikariak.

Euskaraz idatzitako bi proiektu saritu ditu MUk aurten

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon korporazioak, hirugarren urtez, euskaraz idatzitako MUko ikasleen ikasketa amaierako proiekturik onenak saritu dituzte. Aurten, Ander Maldabi eta Amaia Bueno izan dira saridunak 1.500 eta 500 eurorekin, hurrenez hurren. Eta hori berori salbuespena da; hau da, bi saridun izatea.

Izan ere, aurreko edizioetan sari bakarra eman dute, baina aurten proiektuen kalitatea eta euskara maila handia dela eta, bi saridun aukeratzea erabaki dute MUko eta Mondragon Korporazioko arduradunek.

Aurten, 176 proiektu egin dira euskaraz, eta, hain zuzen, horietatik 32 aurkeztu dira lehiaketarako.

Gurean gora egin du langabezia-tasak otsailean

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Otsailean ohikoa izaten da langabezia handitzea, eta oraingoan ere hala izan da Debagoienean. Hain zuzen, 3.791 lagun zeuden Lanbideko bulegoetan lan-eskatzaile gisa izena emanda, urtarrilean baino 54 gehiago. Hori horrela, langabezia-tasa %12,72koa izan da. Dena dela, langabezia Debagoieneko hiru herritan bakarrik handitu da: Arrasaten, Oñatin eta Elgetan; beste guztiek urtarrilekoari eutsi diote edo datu hura hobetu egin dute.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	105	%9,62
Aretxabaleta	367	%10,85
Arrasate	1.646	%15,89
Bergara	855	%12,19
Elgeta	46	%8,49
Eskoriatza	264	%12,96
Leintz Gatzaga	8	%5,93
Oñati	500	%9,53
GUZTIRA	**3.791**	**%12,72**

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Esku-hartzerik gehien egin duen bigarren parkea, gurea

Zubillagako suhiltzaileek egin dituzte esku-hartzerik gehien, Bidasoakoen atzetik

GOIATZ ARANA | OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialdeko suhiltzaileek iaz egindako esku-hartzeen gaineko balantzea egin du asteon. Emandako datuen arabera, Gipuzkoako suhiltzaileek 2.019 esku-hartze egin zituzten 2013an; eta Zubillaga parkekoek 271.

Bigarren parkea

Hain justu, Gipuzkoan esku-hartze gehien duen bigarren parkea da Oñatikoa, Bidasoakoaren ondotik. Eta horien artean, salbamenduko esku-hartzeak izan ziren erdiak baino gehiago (liztor beltzen habiak kentzeko, arriskuan zeuden pertsonak artatzeko, uholde eta haizeteek eragindako arriskuei aurre egiteko edota urak, gasak, argindarrak nahiz produktu arriskutsuek eragindako istripuei aurre egiteko). Eta suteek eragindakoak izan ziren gainontzeko esku-hartze ia guztiak (kasu horretan, hiri eta herrietako eraikinetan gertatu ziren kasu gehienak eta ugariak izan ziren isolatutako suteak ere). Datuok emateaz gainera, Zubillagako eta, oro har, Gipuzkoako suhiltzaileen zerbitzua "oso eraginkorra" dela azpimarratu dute foru ordezkariek. Eta kalitatea eta segurtasuna bermatzen segitzeko material berria erosi dutela iragarri dute.

Zubillagako suhiltzaile Joseba Alargunsoro, azalpenak ematen. | DIPUTAZIOA

Debagoienarekiko interesa badu Mercadonak, baina ez du ezer sinatu oraingoz

Debagoieneko ia udalerri guztietan egon da Mercadona, aukerak aztertzen

U.M. | DEBAGOIENA

Egunotan Arrasaten, kalean, indartsu dabil zurrumurrua, Mercadonak hemen (Zigorrola auzoko Joma enpresan eta Kabia altzari-dendaren orubean, zehazki) merkataritza zentroa zabaltzeko asmoa duela. Lehenago bailarako bestelako udalerritan ere entzun izan da antzekorik.

Bada, Mercadonatik adierazi dute "epe motzean (martxo-apirilean)" ez dutela hemen inguruan ezer sinatzeko asmorik.

Hori bai, horrekin batera, aitortu dute Debagoieneko udalerri gehienetan ibili direla euren negozioa hona ekartzeko egon daitezkeen aukerak aztertzen, baita Arrasaten ere. Esandakoaren arabera, "interesa" badute -eta inguru honekiko.

Hala ere, gaineratu dute "oraingoz dagoena zurrumurrua" besterik ez dela. "Negoziazioak badaude han eta hemen, baina negoziazioak apurtu egin daitezke, baldintzak, prezioak... aldatu. Gauzak horrela, oraindik orain ez dago ezer sinatuta eta ez dugu ezer sinatzeko asmorik epe motzean; ez, behintzat, martxoa eta apirila bitartean", adierazi dio Goienari Nahia Nebrak, Mecadonaren komunikazio arduradunak Euskadin eta Nafarroan.

"Edozelan ere, Mercadonaren enpresa politika da aztertzen ditugun udalerrietako udaletara joan eta gure zabaltzeko asmoen berri eta gure proiektuaren berri ematea. Eta hori, esate baterako, Debagoien inguruko udal gehienetan ibili gara egiten, Gipuzkoako eta Bizkaiko beste askotan egin dugun moduan. Izan ere, urteak daramatzagu ingurua aztertzen".

Aurten, Gasteizen

Eta azterketa horren emaitzak aurten bertan ikusten hasiko garela jakinarazi du Nebrak, aurten bertan hasiko da-eta Mercadona Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza zentroak zabaltzen. Ez hori bakarrik, datozen urteotarako Euskal Autonomia Erkidegorako hedatze-plana ere eginda dutela aurreratu du Mercadonako komunikazio arduradunak: "Sei urtean 25 merkataritza-zentro zabaldu behar ditugu EAEn. Aurten halako hiru zabalduko ditugu Gasteizen".

15 erkidegotan

Gaur egun Mercadonak Espainiako 15 erkidegotan ditu saltokiak, 46 probintziatan. Guztira, 1.475 supermerkatu ditu eta 70.000 pertsonak dihardute bertan lanean.

Isaias Carrascoren aldeko ekimena, seigarren urteurrenean

PSE-EEk alderdiko militante eta zinegotzi ohi Isaias Carrasco arrasatearra omenduko du bihar, zapatua. Arrasaten izango da ekitaldia, duela sei urte eraila izan zen toki berean, San Andres auzoko Navas de Tolosa kalean, haren etxe parean. Haren alaba Sandra Carrascok eta PSE-EEko idazkari nagusi Patxi Lopezek parte hartuko dute, besteak beste; lore eskaintza egingo diote. Eguerdiko hamabietan hasiko da ekitaldia.

Lanerako doako prestakuntza egiteko aukera dago, Bastidan

Artatze Soziosanitarioa Erakundeetan dauden eta mendekotasuna duten pertsonentzat ikastaroa (370 ordu prestakuntzan eta 80 ordu praktiketan) eta *Giza Baliabideen Kudeaketa Integratua* (670 ordu ikasten eta 120 ordu praktiketan) ikastaroa doan egiteko aukera eskaintzen du Bastida akademiak. Ikastaro biekin Lanbide Gaitasun ziurtagiri ofizialak eskuratuko dira. Lehen ikastaroaren kasuan, 2015ean indarrean jar daitekeen Errege Dekretuaren eskakizunari egokitzen zaio.

'Goicoechea' beharrean, 'Goikoetxea' izateko aukera

Uemak 'Euskaraz naiz' kanpaina abiarazi du, izen-abizenak euskal grafiara moldatzera animatzeko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

XXI. mendean gauden arren, guztiok ezagutzen dugu etxean ez bada inguruan edo oso gertuan norberaren abizen edo izen euskalduna gaztelaniazko grafiarekin idazten duenik. Batzuk ezjakintasunarengatik; beste batzuk, erosotasunarengatik; beste hainbat, abizen edo izen hori idazteko modu zuzena eta historikoa gaztelaniazkoa dela konbentzituta; eta beste asko, beldurrarengatik. Baina emaitza hauxe da: *Goikoetxea* beharrean *Goicoechea* idaztea, *Agirre* beharrean *Aguirre* edo *Ezkurra* beharrean, *Ezcurra*.

Nortasun agiria, euskal abizena gaztelaniazko grafiarekin idatzita duena. | IMANOL SORIANO

Administrazioaren ondorio

Halako egoerak, orokorrean, euskararen normalizaziorik ezaren ondorio dira. Bergarako Euskara zerbitzuburu Estepan Plazaolak azaldu ditu arrazoiak: "Mendez mende gure historia administratiboa gaztelaniaz gauzatu da: notariotza-lanak, epaitegietakoak, administrazioko gaiak, gure erregistro guztiak (jaiotzak…) gaztelaniaz bideratu dira. Berdin eskola ere. Horren guztiaren ondorioa da euskal abizen eta izen asko gaztelaniazko grafiarekin idatzi izana; oraintsu arte, herrien izen ofizialak *Vergara, Oñate* eta *Arechavaleta* idatzita agertzea izan den moduan. Gaur egunera arte segida eman zaion kate luze baten emaitza da, beraz, gure izen horiek guztiak gaztelaniazko grafiaz agertzea, eta ez, inolaz ere, euskaldunok onetsitakoa. Horri gehitu behar zaio orain dela gutxi arte ez genuela euskara baturik eta ez zegoela definituta izen horien euskarazko grafiak zein izan behar zuen. Orain, Euskaltzaindiak finkatuta dauka hori eta aukera daukagu gure abizenak gure hizkuntzan jartzeko".

Gero eta errazagoa da

Bada, horretarako, kanpaina abiarazi du Uemak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. *Euskaraz naiz* leloarekin "euskaldunei dei egiten die bere izenarekin koherente izateko eta abizenak euskalduntzeko". Eta deialdi horrekin bat egin dute Debagoieneko udal guztiek, Uemako kide izan edo ez.

Horren harira, Arrasateko Euskara Saileko zerbitzuburu Jose Felix Diaz de Tuestak azaldu du gai horretan Debagoieneko udalen helburua dela zeregin horretan behar diren erraztasun eta laguntza guztiak ematea.

Oñatiko Euskara teknikari Xabier Zabalak azpimarratu du prozesua ez dela batere zaila: "Bake epaitegira edo erregistro zibilera joan behar da eta izena edo abizena euskal grafiara egokitzeko eskaria egin. Bertan emandako inprimakia bete, eta dokumentu batzuk aurkeztu behar dira". Nortasun agiriaren fotokopia, epaitegietan edo erregistroan eskatzen den hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria eta errolda agiria dira aurkeztu beharreko dokumentuak. Ezkonduta egonez gero edo seme-alabarik izanez gero, familia liburuaren fotokopia ere eroan behar da; eta 16 urtetik gorako seme-alabak izanez gero, haien nortasun agiriaren fotokopia.

Bergarako Euskara Saileko zerbitzuburuak gogorarazi du "izen-abizenak euskaratzea edozein momentutan" egin daitekeela, kanpaina egon edo ez. "Kanpaina egiten denean, hala ere, igartzen da herritar gehiagok egiten dituztela aldaketok. Era berean, azpimarratzekoa da, baita ere, gero eta errazagoa dela aldaketa egitea. Adibidez, herritarrei beldurra eragiten dieten zenbait kasutan (herentzia kontuetan-eta) administrazioak automatikoki jakinarazten du izen-abizenak idazterakoan aldaketa egin dela, eta horrek arazo asko saihesten ditu".

Euskaltzaindiaren irizpideak

Izen-abizenak moldatzeko, Euskaltzaindiak ezarritako irizpideak hartzen dira kontuan, eta Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daitezke izen eta abizenen zerrendak (*Euskaltzaindia.net*). Edonola ere, azken erabakia epaileak hartzen du eta, kasuren batean, onartu izan dituzte Euskaltzaindiaren izendegian ez datozen formak: *Múgica*-tik *Muxika*-ra aldatu beharrean, *Mujika*-ra aldatzea, adibidez. Beste hizkuntza bateko izen-abizenak euskal grafiara moldatzea ere epailearen irizpidearen arabera geratzen da.

Edozein modutan, jarraitu beharreko urratsak eta zalantzak argitzeko, Uemaren webgunean daude azalpenak (*uema.org*).

Ohiko galdera edo zalantzak

▶ Abizena nahi dudan moduan jar dezaket?
Epailearen irizpidea da. Normalean, Euskaltzaindiaren irizpidea jarraitzen da. Euskaltzaindiaren liburuan *Muxika* agertzen da, baina zenbait kasutan *(Muxika, Mujika...)* forma desberdinak onartu izan dira. Hala ere, abizen-aldaketa gisa izapide daiteke aldaketa eta, kasu horretan, Erregistroen eta Notarioen Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen du aldaketa onartuz edo ezetsiz.

▶ Gurasoena aldatuta, seme-alabena automatikoki aldatzen da?
18 urtez azpikoetan bai. 18 urtez gorakoetan, erregistrora joan eta adierazi egin behar dute eurek ere aldatu nahi dutela, baina ez dute tramitazio guztia egin beharrik.

▶ Anai-arreba guztiek aldatu behar dute derrigorrez?
18 urtez azpikoek bai. 18 urtez gorakoetan, bakoitzak erabakitzen du.

▶ Aldatuz gero, nora transmititzen da aldaketa hori?
Epaitegiak, ofizioz, honako tokietara bidaltzen du: Udalera, Hauteskunde Zentsura, Poliziaren Zuzendaritza Nagusira, Guardia Zibilera...

▶ Doan da?
Bai.

▶ Izenaren grafia ere alda dezaket?
Bai. Prozedura bera da eta kasu honetan ere Euskaltzaindiak finkatutako irizpideak jarraitzen dira.

▶ Erdal abizena jar daiteke euskal grafiaz? Adibidez, *Kastaños?*
Erabakia epailearen baitan geratzen da.

▶ Eskatzaileak lehengo grafiarekin dauzkan agiriak berriz egin behar dira?
Jaiotza, ezkontza eta seme-alaben jaiotza-agirietan aldaketa epaitegietan bertan bideratzen da, ofizioz, jaraunsletza edo herentzietan arazorik ez izateko. Gainontzeko kasuetan, norberak ikusi behar du. Berez, gomendagarria da ahal den toki eta agiri gehienetan aldaketa egitea.

▶ Zenbat denbora irauten du prozesuak?
Eskatzailea jaio zen barruti judizialeko buruko Erregistro Zibilak erabakitzen du abizen-aldaketa; adibidez, Debagoienean, Bergarako Erregistro Zibilak, nahiz eta jaiotza-inskripzioa Arrasaten egon. Epeetan egon litezke aldeak. Eskaera egiten den herrian jaiotakoa izanez gero, nahiko epe motzean izan liteke. Beste nonbait jaioa izanda ere, normalean 3-4 hilabetean tramitatzen da.

ESANAK

"Oraintsu arte 'Arechavaleta', 'Vergara' eta 'Oñate' ziren"

ESTEPAN PLAZAOLA
BERGARAKO UDALEKO

arizmendi ikastola

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN EZOHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop. E-ko Estatutu Sozialetako 30.artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2014ko otsailaren 27an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop. E.ko bazkideak Ez Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

DEIALDIA

DATA: 2014ko martxoaren 27a.
TOKIA: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).
ORDUA: Lehen deialdia: 18:00.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

Lehena.- Ez Ohiko Batzar Nagusi honen akta onesteko bi bazkideren izendapena.

Bigarrena.- Kooperatibaren Barne Araudiaren testu-proposamenari egin zaizkion emendakinak aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatzea.

Hirugarrena.- Kooperatibaren Barne Araudiaren testu osoa onartzea.

Laugarrena.- Kontseilu Errektorea ahalduntzea.

Bosgarrena.- Galde-erantzunak.

Jokin Mujika Dorronsoro
Lehendakaria

Arrasate, 2014/02/27

ZABALIK

ANAJE NARBAIZA
goiena.net/komunitatea/

Iparraldian ikasitta

Mugia ezarri nahixan hasi zien 1659xan, XVII. mendian, eta 200 urte geruago Baionako tratauak, 1860 inguruan, egun ezagutzen dittugun mugak ezarri zittuan. Europan 1995ean Schengeneko hitzarmenari esker mugak desagertu behar zeben. Urteak pasa dira, bai, baiña ez jat pentsatzen Hegoaldetik jende uholde haundirik joaten garenik Iparraldera, oporrak pasatzera, edo egun-pasan, Eiheralarre, Senperera edo Larraiñera...

Pena hartzen dot estatuek sasoe batean jarri zittuzten mugak guri esker inddarrian jarraitzen dabelako. Goazen, ba, Europako eskumak berriro mugak inddarrian jarri aurretik Euskal Herri osua erakustera.

"Biziraupenetik sortuak die hango bizimodua eta giza ekimenak"

Gaiñera, Iparraldiari aitortu bihar dotzagu eraiki daben nekazaritza iraunkorra, lurraren eta produkziñuaren arteko oreka, etengabe iraunarazixaz. Nekazaritza lana gizarteari zerbitzu modura hartzen dabe, berba gutxi, baiña teorixak praktikan ipinitta ikusi leizke. Guk, aldiz, teorixak polittak, baiña ezin pasau praktikara! 1.000 behi -buru ukuillu batian sartuta, iraunkortasunian oiñarritzen ez dan ereduari jarraittuta.

Zalantza barik, biziraupenetik sortuak die hango bizimodua eta sortzen dien millaka giza ekimen. Ageri-agerixan mantentzen dabe euskal senaren funtsa, Iparralde guztian, maskaradak, pastoralak, kabalkadak, Xiru jaialdia, antzerkia... urtero antolatzen dienian. Hau suertia daukaguna! Taula gaiñean ikusten dienak baiño gehixago, herrittarrak adierazten daben emoziñuak ikustiagatik bakarrik joatia merezi dau.

Buruan dogun muga hori indargabetzen dogunian sekulako aukeria dogu gure harremana Euskal Herriko paraje ezezagunetara bideratzeko, eta hain gertu dagoen Iparraldia hobeto ezagutzeko gomitta egitten dotzuet. Ahazteke! Ez egizue pentsau, behintzat, frantsesa behar dozuenik, gure euskeriakin be samur moldatzerik dago eta.

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

'Goicoechea', 'Goikoetxea'

Azkenaldian sarri entzun dugun izena da Lourdes *Goicoechea*. Gaztelera hiztegian bila hasten denak ez du *Goico*-rik aurkituko, ez eta *eche*-rik ere. Abizenarena huskeria izan daiteke, baina pena ematen du ikusteak Nafarroan –kasu honetan– nola ukatzen dituzten batzuek euren jatorria eta izatea. Beste euskaldun batzuek izan dezaketen herri ikuskera konpartitu ez, eta soilik nafar eta espainiar izaera defendatu nahi horretan, gai dira eurena duten euskara –*eusk* hasten den oro– gutxiesteko eta erasotzeko. Nola bizi ote dute? Jaio zirenetik, eta erremediorik gabe beraz, barruan deabru bat baleramate moduan sentituz imaginatzen ditut askotan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/

HANDIK ETA HEMENDIK

Leopoldo Maria Panero zenaz hiru oroitzapen

Juan Luis Zabala
berria.info/blogak/zabala/

1-Dirua eskatu zigun eta hogei duro (100 pezeta) eman nizkion, duela 25 bat urte, Arrasateko sanatorioan lagun bat bisitatzera joan eta berarekin topo egin genuenean. Poza eman zidan poeta miretsiari laguntza txiki bat emateak.

2-Handik urte batzuetara elkarrizketa bat egin nion [...] Ez daukat frogarik, ezin baita Interneten berreskuratu. Gogoan dudana da esan zidala berak oso erraz egiten zituela poemak; eta halaxe zen, poesia eginez hitz egin zezakeen Sebastian Lizasok bertsotan egiten duen bezain erraz.

3-Aintzat hartzen ez zaituen petsona horietako bat zen. Berarekin hitz egiten zenuenean, ez zitzaion axola zu nor zinen, nondik zentozen, zer iritzi zenuen ezertaz. Zuregandik nahi eta espero zuen bakarra, interesatzen zitzaion bakarra, zen berak eskatutako Coca-Cola lata eros eta eman zeniezaion.

Europar Batasuneko emakumeen hirutik batek jasan du genero indarkeria

Onintza Irureta
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Inoizko ikerketarik handiena egin du Europar Batasunak. 42.000 emakume elkarrizketatu dituzte. Ondorioetako bat hauxe: 62 milioi emakumek jasan dute indarkeria fisikoa edo sexuala. [...]

Europar Batasuneko 28 herrialdetako emakumeek hitz egin dute. Ondoko zifrak ageri dira Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Agentziak egindako txostenean.

-62 milioi emakumek indarkeria fisikoa edo sexuala jasan dute.[...]

-%22ri bikotekideak eman dizkie tratu txarrak.

-%5 bortxatu egin dute. Bortxatzailea bikotekidea ez denean izan 10etik 1ek esan du bortxatzaile bat baino gehiago zirela.

-%43k esan dute oraingo bikotekideak edo aurrekoak tratu txar psikologikoak eman dizkiotela. [...]

-%18 jazarri dute, %5 azkeneko urtean. [...]

-18 eta 29 urte artekoen %20k jazarpen zibernetikoa jasan dute.

-%55ek esan dute jazarpen sexuala jasan dutela. Horietatik %32k adierazi dute erasotzailea nagusia, lankidea edo bezeroa izan dela.

-%67k bikotekideak emandako tratu txar gogorrenak ez dizkie jakinarazi poliziari, ezta bestelako erakundeei ere.

Morten Kjaerum Oinarrizko Eskubideen Agentziako zuzendaria da eta ikerketaren emaitzak eskuan ondoko hitzak esan ditu: "Arazoaren handiak azaltzen du emakumeen aurkako indarkeria ez dela emakume gutxi batzuei eragiten dien kontua, baizik eta jendarte osoa ukitzen duela, eta egunero. Beraz, arduradun politikoek, gizarte zibilak eta lehen lerroan lanean ari direnek emakumeen aurkako edozein bortxa lantzeko neurriak berrikusi behar dituzte. [...] Emakumeen aurkako indarkeria jorratzeko neurriei bestelako dimentsioa emateko garaia da.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bihotzez ikasten

Larraitz Arando
Aretxabaleta

Gure semeak garrantziko gai bat du bere bizitzan: erraldoiak. Erraldoiak eta hauen mundua berarentzat gauza serioa dira. Errealitatea eta bizitza hauen bitartez bizitzen ikasi baitu. Hauen bitartez, esperimentatzen ditu beldurrak eta desirak, irrikak eta emozioak, gerturatzea eta aldentzea, negarrak eta mugak... Hau horrela dela ikusirik, erraldoien bitartez esan eta adierazi nahi digun guztia gustuz jasotzen dugu. Ondorioz, guretzat ere erraldoien gaia serio bilakatu da.

Atzo semea eskolara eramateko plazera izan nuen, eta horri esker, eskolan esku artean duten proiektuaz bertatik gozatu nuen. Itxura denez, ez da gure semea erraldoiak maite dituen bakarra. 3 urtekoen geletan makina bat omen dira pasio hori dutenak. Erraldoien gaia proiektu bilakatuz, irakasleek pasio horri heldu eta ikasteko irrika sortu dute eskolan. Erraldoien bitartez, mundua ezagutu eta sentitzen ari dira. Geografia, sormena, musika, talde lana, hizkuntza, mitologia, historia... Haurrek Tuterakoak, Aretxabaletakoak, Cintruenigokoak, Bilbokoak eta Tolosako erraldoiak non bizi diren jakin nahi dute. Erraldoiei esker Euskal Herriko txoko ezberdinak eta Euskal Herria bera deskubritu nahi dituzte. Sormena, globoak eta egunkari paperak erabiliz, sortutako kiliki eta erraldoiekin jolasean aritzen dira... Dantza eta doinu ezberdinak dantzatu eta abesten dituzte. Sancha, Martin... Arrasateko erraldoiei esker, Euskal herriko historiako pasarte batzuk ezagutu dituzte. Lurra, haizea, sua... Iruñeko alde zaharreko konpartsari esker, natura gurtzen ikasi dute. Begiak eta ahoak zabaldu zaizkie Mari, Lamina, Errementari, Tartalo... pertsonaien kontuak entzunda. Bizitzaz ikasi dute, baina, batez ere, gozatu egin dute. Eskolatik irteten nenbilela harro sentitu naiz. Harro txikitxoez. Harro semeez. Harro irakasleez. Harro eskolaz. Bihotzez irakasten ari direla sentitu dut. Bihotzez ikasten ari direla. Eskerrik asko benetan!

Gutxituentzat, oztopo ugari

Aitor Biain Umerez
Oñati

Bergarako Gureak-eko langilea naiz, eta, hara iristeko bidean, gutxituentzat hainbat oztopo daudela adierazi nahi nuke. Labegaraietako autobus geltokitik Gureak-era goazela, bidea zuloz eta mendixkaz betea dago; hori guretzat arazo bat da, eta, horrez gainera, bidegorri horrek ez du ongi betetzen Europako legedia. Izan ere, ondo izateko, Oñatitik Arrasatera dagoen modukoa izan behar luke eta oinezkoen bidea babestua izan beharko litzateke bertatik bizikletarik ibil ez dadin. Ni gutxitua naiz eta horregatik eskatzen dut konpontzeko. Oinezkoek eta txirrindulariek batera ibili behar duten lekuetan, txirrindulariak, legea betez, bizikleta eskuetan eraman behar du, nahiz eta bidegorria izan, oinezkoa seguru egon dadin.

Bergarako Udalari eta Foru Aldundiari eskatzen diet behingoz konpon dezatela eta legeak betearaz ditzatela. Zorrotzak izanez. Irisgarritasuna bermatuz.

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Herritarron esku dagoelako...

Iñaki Lasa eta Jokin Biain
(Gure Esku Dago taldearen izenean)
Bergara

Euskal Herriko beste herri ugaritan bezala, lau bat hilabete dala sortu giñuan Bergaran be Gure Esku Dago taldea. Hilabete hauetan, pixkanaka, badoia taldea finkatzen.

Gure Esku Dago herri dinamika bat da. Bi helburu nagusi ditugu: batetik, Euskal Herrixak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidia aldarrikatzia; eta bestetik, sentsibilitate desberdineko herritarrak elkartzia.

Aspaldian horrenbeste gatazka daren herri honetan herritarrok elkarren bidelagun izateko adosgune bat eratziak garrantzi haundixa dauka, gure ustez. Desberdintasun politiko, ekonomiko eta sozialak albo batera lagata, elkartu gaitezen danok oinarrizko eskubide baten alde egiteko: erabakitzeko eskubidia.

Hemendik ekainera bittartian, herrixan ekintza ugari izango ditugu. Martxoaren 22an aurkezpen ekitaldixa egingo dogu; Erramu Zapaturako ekintza ikusgarri bat antolatzen ari gara, eta Bergarako Pazkoetako igandean, ekainak 8, giza katean parte hartuko dogu! Durangotik Iruñera daren 123 kilometruak lotuko die 50.000 bat lagunek eskua emonaz eta horien artian egongo gara bergararrak, guri dagokigun tartian gutxienez 600 lagun batuz. Gogoratu dagoeneko salgai dauzkagula bertan parte hartzeko txartelak 5 euroren truke!

Ekintza hauek guztiak egin ahal izateko, ekimenak merezi daben moduko talde sendua izatia nahi dogu eta zuen laguntza behar-beharrezkoa dogu hortarako. Gazte, heldu zein jubilatu, langile edo langabe, bertako nahiz kanpoko, ateak zabalik ditugu denentzat! Hori dela eta, guregana hurbiltzeko gonbidapena egiten dogu, lotsa gabe gerturatu, astelehenero Irizar jauregiko gorengo gelan elkartzen gara, 18:30ean.

Guk gure esku dagon dana jarriko dogu. Zuen zain gare, animatu!

PNVk tranpa egiten du

Igor Tome
Oñati

Aurreko astean Oñatiko PNVk idatzitako gutunaren harira idazten dut gutun hau. Egia esan, ez zait aproposa iruditzen duela 11 urteko trapu zaharrak ateratzen hastea eta, beraz, ez dut Oñatin burutu den kanpainarekin bat egiten. Hala ere, lotsagarria iruditzen zait oraingoan ere ekintza hori ezker abertzaleari egoztea. Asko dira gure herrian EAJrekin kritikoak diren sektoreak, eta ez da bidezkoa, zuen interes politikoak direla medio, errua beti berdinari botatzea. Oposizioan ere duintasun minimo bat eduki behar da.

Hala ere, garbi daukat zuen aurreko asteko adierazpenen atzean helburu politiko jakin batzuk daudela. Zuek nahi duzuena kritika politikoak ekiditea da. Edozein kritika politiko "errespetuaren" eta "etikaren" eremura eramaten duzue, edukiari ihes eginez. Zuen erabaki politikoek sortzen dituzten ondorioen aurrean inpunitate osoa eduki nahi duzue, horretarako eztabaidak beste toki batzuetara desbideratuz. Noiz hitz egingo dugu arazoen muinaz?

Baina zuen helburuak oraindik haratago doaz. Kanpaina horren "moduak" gogor salatzen dituzue. Zuen helburua kale kanpainak (kartelak, pegatinak...) kriminalizatzea da. Hau da, guztiok aukera berdintasunean aurkitzen garen gune bakarra (hots, kalea) deuseztatu nahi duzue. Guztiz logikoa iruditzen zait hori bilatzea, komunikabide gehienak zure esanetara daudenean. Ba, zuen baliabideak ez dauzkagunok gure bideak aurkitu behar ditugu, eta kalea horietako bat da. "Irainei" dagokienez, ez dut uste pegatina horietan agertzen dena zuek ETBn botatzen dituzuenak edota azkeneko hauteskundeetan atera zenituzten panfletoak (bidegurutzearenak) baino gogorragoa denik. Hori bai, zuen pozoia sofistikatuagoa da...

Ahoa "demokrazia" hitzarekin betetzen duzue, baina ideien konfrontazio demokratikoa da, hain zuzen ere, beti ekiditen duzuena. Eta, horretarako, askotan barregarriak izatera iristen diren trikimailuak erabiltzen dituzue. Utziozue eztabaidak distortsionatzeari eta hasi zaitezte horrenbeste miseria sortzen ari den zuen gizarte eredua nola defendatu pentsatzen. Hori bai, parean izango gaituzue.

Bilduk ez du pertsonengan sinesten

Joxe Miel Uribarren eta Aitor Gabilondo
(Aretxabaletako EAJ-PNVren izenean)
Aretxabaleta

2012ko otsailaren 22an Bilduren 34 alkatek 2013 hasieran Atez Atekoa ezartzen hasiko zirela ziurtatu zuten.

Ez dago zalantzarik, ezker abertzalearen erabaki politiko bat izan zen, eta orain EAJri atez atekoaren kontrako mugimenduaren atzean egotea leporatzen dio, zaborren gaia politizatu izana leporatzen, hauteskundeei begirako asmoak ditugula eta.

Aretxabaletako alkate Ana Bolinagak zorrotz betetzen du bere alderdiko buruek agindutakoa, hau da, ezkertiartasuna. Agintean egon aurretik, "eman hitza Herriari" "Herriak hitza, Herriak erabakia" oihukatzen zuten. Gutxi iraun die aldarri hark eta ahal izan duten bezain pronto, Herri hori aldebakartasunez hartutako erabaki alderdikoien pairatzaile bilakatu da.

Ikusi besterik ez dago zer gertatzen ari den Herri batean eta bestean, atez atekoaren aurka jasotako sinadurekin edo eta ospatu diren Herri galdeketekin, jada zortzi, non ezker abertzaleak bere esku egon den guztia egin duen galdeketak burutu ez zitezen eta burutu ondoren lortutako porrotaren aurrean, herriaren borondateari muzin egin eta atez atekoa inposatzeko.

Ez da, gizartearen gehiengoaren aurka, Herriari ezarri dion inposaketa bakarrik. Orain ezker abertzaleak ogia eta gatza ere ukatu egiten dizkio. Alkateak ez du aretxabaletarren borondatean sinesten, ez eta, inposaketarik gabe, ondo egiteko gai izango direnik ere. Bilketa sistema nahitaezkoa izango da. Alkateak ez du ulertzen mila eta piku pertsona, berari gehiengo osoz alkatetza eman ziotenek baino gehiago, gutxienez zaborren gaian naturalki, denaren eta denon aurka zapalgailua pasatzeaz ezaguna den agintzeko modu despotiko horren aurka agertzea. Ezker abertzaleak ez du sinesten, ez du konfiantzarik, agintera eraman duen Herriarengan.

Aretxabaletan 1.704 izan ziren atez atekoaren aurka jaso ziren sinadurak. 1.513 bozka lortu zituen Bilduk, eta 630 EAJk, 2011. urteko udal hauteskundeetan. Euskal Autonomia Elkargoko hauteskundeetan EH-Bilduk 1.479 bozka lortu zituen eta EAJk 1.250.

Edozein kasutan, Aretxabaletan atez atekoaren aurka jasotako sinadura kopuruak aise gainditzen du Bildu edo EH-Bilduk lortutako bozka kopurua; honek argi eta garbi uzten du koalizioa bozkatu zuen jende asko kudeaketa modu horren aurka dagoela, gutxienez zaborren kontuan. EAJ plataformaren atzean dagoela esateak, arazoaren ikuspegi arina agerian uzteaz gain, Aretxabaletatik kanpo euren buruzagiek hartutako erabakien eraginez, hori bai, aretxabaletarren interesetan pentsatu gabe hitzez hitz bete dutena, jasaten ari diren ondorioen aurrean, agerian uzten du ezker abertzalearen urduritasuna.

Guk, EAJkook, pertsonengan sinesten dugu. Bilduk alderdiaren interesetarako soilik erabiltzen ditu euren bozkak.

Bilduk pertsonengan sinetsiko balu eta aretxabaletarrak errespetatuko balitu, aspaldi dei eta ospa zezakeen herri galdeketa arazoa konpontzeko. Oraindik garaiz gabiltza. Guk emaitza errespetatuko dugu. Bilduk berdina esan al dezake?

Kyung-seo Park | Nazio Batuetako Giza Eskubideen Zentroko presidentea

"Korearrendako eredua izan daiteke mugimendu kooperatibista"

Banandutako Korearen errealitatea MUko Oñatiko ikasleei gerturatu zien Kyung-seo Parkek

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Hego Korean, Kooperatibismoaren Formakuntza-Zentroa egingo dute, eta Mondragon Unibertsitateak lagunduko du horretan. Zentro horren bultzatzailea da Kyung-seo Park hegokorearra. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Ikerkuntza Zentroko presidentea ere bada. Hego Korean eta Europan hezitako soziologoa eta Filosofian eta Dibinitatean doktorea da. Bakea, Korearen bategitea eta giza eskubideak dira bere pasioak, eta horien gainean hitz egin zien martitzenean MUren Enpresagintza fakultateko ikasleei.

Mondragon Unibertsitatearekiko sortuko den harremanetik zer espero duzu Hego Korearendako?

Gure ikasle gazteak Mondragon Unibertsitatera bidaltzeko asmoa dugu, eta bihartik [eguaztena] aurrera zehaztuko dugu zelan eta zenbat urterako. Horrez gain, gertu gaude Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuk Koreara gonbidatzeko. Elkartruke programa bat da eta etorkizunean kooperazioa indartuko du.

Hitz egin dezagun bakeaz. Zure iritziz, norbanako guztiak bakearen mezulariak izan gaitezke. Zelan egin dezakegu hori?

Behin sinistuta gaudenean bakea bakarrik bakearen bidetik lor daitekeela, behin hori garbi dagoenean norbanakoarendako, sare edo talde bat osatuko dugu elkarren artean, eta talde horrek ahots bat izango du besteenganako, hau da, bakea lortzeko gerra bide bat dela behin eta berriz dioten horienganako. Prozesu luzea da, eta horregatik, norbanakoak bakean sinistea garrantzitsua da taldeko mugimendu bat egon dadin.

Zelan egin dezakete Ipar Koreako eta Hego Koreako herritarrek bake horren aldeko bidea?

Zoritxarrez, eta gure borondatearen aurka, Ipar Koreako eta Hego Koreako jendearen artean erabateko blokeoa dago, baina itxaropen handiak ditugu etorkizun hurbilean nolabaiteko komunikazio sistema bat izateko. Adibidez, Hego Korean badago industrialde bat, Ipar Koreako langileak dituena. Komunikazio eta kolaborazio adibide bat da hori.

Sarri izan zara Ipar Korean. Zelakoak dira hango agintariak?

Gaur egungo erregimenak argumentu asko ditu eta erregimena justifikatzeko ematen ditu, baina ez dago argumentu horiekin ados egon daitekeen nazioarteko erakunde edo eragilerik. Errugabeak gose diren bitartean, errugabeak sufritzen dauden bitartean eta errugabeak alderdi komunista boteretsuak txokoratuta dituen bitartean, ez da hala izango.

Hori dena kontuan izanda, zelan uste duzu bat egin dezaketela bi Koreek?

Ez da lan erraza, ez, baina nik argi ikusten dut mugaren alde bateko eta besteko jendearen benetako borondatea, eta bat egiteko borondatea da hori. Jende errugabearen nahiak etorkizunean bizirik badirau, gure ametsa egia bihurtuko da.

Zure hitzaldian, Mendebaldeko eta Ekialdeko Alemaniaren bategitearen erreferentzia erabili duzu. Ze neurritan izan daiteke hura bi Koreen balizko bategite prozesu baten eredu?

Ekialdeko eta Mendebaldeko Alemaniaren orduko egoerak eta Ipar eta Hego Korearenak oso desberdinak dira. Baina alemanek lezio batzuk ikasi zituzten bategite prozesu hartatik, eta horiek gureganatu ditzakegu guk.

Europa oso ondo ezagutzen duzu. Zer diozu Ukrainiako gertakizunen gainean?

Bertako jendearen askatasun nahia lotura zaharrak eta lehengo Sobietar Batasunarekiko harremanak baino askoz, askoz garrantzitsuagoa da. Gerraren mehatxua izango da, baina Nazio Batuak bertan dauden bitartean eta bakezaleak gehiengoa diren bitartean, ezin da gerrarik egon Ukrainian.

Biolentzia eten beharko litzateke, eta, horrez gain, aurreko presidentea eta aurreko erregimen ustela kondenatu egin beharko lirateke.

Kooperatibismoak lagun diezaieke giza eskubideei?

Nazio Batuek ez dituzte inoiz giza eskubideak definitu, ez dute inoiz esan zertan datzan. Nire ustez, bost zutabe dituzte giza eskubideek, eta horietako bat garapen eskubidea da. Horren barruan, globalizazio prozesu bat egon da, eta itxaropen handiak zeuden hasieran, baina orain ikusi da kontrakoa gertatu dela, hau da, mundua polarizatu egin dela. Sistema polarizatu horretan, mugimendu kooperatiboa aukera bat da, baina baita joera bat ere. Hego Koreak merkatuaren sekulako eragina du, eta enpresa handiek irabaziak dituzte, baina horiek ez dira jendearengana ailegatzen. Gu hemen gaude, Koreatik, kooperatibismoaz gehiago ikasteko, korearrendako eredu bat izan daitekeelako.

Enplegu aukerak ekarriko ditu Koreako jendearendako?

Bai, sinistuta nago horrekin. Gazteengan sorkuntza iniziatibak bultzatuko ditugu, euren eredua garatu eta han eta hemen zabaldu dezaten. Bestalde, MUko ikasleak Koreara etor daitezke eta hango askotariko egoerak ikusi; horrek lagundu egingo die gero, etxera itzultzen direnean. Elkarren gainean ikasteko grina sustatu behar dugu gazteengan.

Kyung-seo Park, martitzenean Enpresagintza fakultatean. | LEIRE KORTABARRIA

"Mundu polarizatu baten, kooperatibak aukera bat eta joera bat dira"

"Errugabeak gose eta sufritzen dauzka Ipar Koreako alderdi komunistak"

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

DUELA 10 URTE

2004-03-08

Monterrongo zuhaitzak bota

Monterron parkea hilabetez itxi zuten gaixorik zeuden zuhaitzak botatzeko. Martxoaren 8an hasi ziren lanak eta hilaren 29ra arte iraun zuten. Udaleko teknikariek esandakoaren arabera, *Cerambicidos* izeneko intsektu batek barrena jan zien zuhaitzei, hauek hustu arte. Botatako zuhaitzak oso antzinakoak ziren, Monterron zabaldu zen garaikoak (XVIII. mendekoak), eta 25-30 metroko garaiera zeukaten.

Bota zuten zuhaitzetako bat. | AMAIAGOIA LASAGABASTER

2004-03-05

Juventudes Viatorianas aurkeztu

Frankismoaren azken urteak abiapuntu hartuta, Iñaki Berezibar idazleak 1961-1975eko hezkuntzaren gaineko liburua argitaratu zuen. *Juventudes Viatorianas* izenburua jarri zion Arrasateko San Viator eskolako hezkuntza sistemaren gaineko liburuari. Aurkezpenean hauxe esan zuen: "Umetan fraideekin gertatutakoak batzen ditu liburuak, zer-nolako testuak erabiltzen ziren, zelako hezkuntza mota sufritzen genuen...".

DUELA 5 URTE

2009-03-06

Etxeak banatu zituzten

175 etxebizitza zozketatu zituen Jaurlaritzak Uarkapen. Gelmako 131 eta Uribarriko 44 izan ziren adjudikatutakoak. Bertara hurbildutako batzuk emoziozko malkoekin, beste batzuk murumakur, eta gutxi batzuk haserre irten ziren zozketatik. Javier Madrazo sailburua eta Ino Galaparsoro alkatea zozketan izan ziren.

HERRITARRAK

ARRASATE

Andoni Altzelai Festazale amorratua, urtean zehar Arrasaten antolatzen diren hainbat jairen antolaketan ikusten dugu. Bada, aste honetan egin den sardinaren hiletan ere izan da. | MIKEL ARREGI

"Jaiak antolatzea lana da, baita zaletasuna ere; ez nago kexatzeko moduan"

Andoni Altzelai, SUDCek ospitale ondoan duen lokalean. | MIKEL ARREGI

Arrasateko Aratusteak pasata, jai horietan protagonista izan ohi den Andoni Altzelairekin hitzordua egin dugu. Erretiratuta dagoenez, jaiak prestatzen laguntzeko denbora luzea duela esan digu, eta kalean giro ona sumatzen duela gaineratu.

Saltsa guztietan sartuta dagoen perrexila zarela diote herrian, jaiak benetan bizi dituzun gizona zarela... Egia da hori?

Baliteke horrela izatea, jaiak topera bizi izatea gustatzen zait, eta hori herriko jendeak badakiela uste dut. Urteak aurrera doaz, baina, eta orain parrandarako tarte txikiagoa daukat. Joan den astean Aratusteak izan dira, eta aitortu behar dizut urteak igarri egin ditudala oraingoan.

Normala. Aratuste-zalea izanda, mozorro desberdinekin irten ohi zara inguruko herrietan...

Bai. Guk asteburu osoa aprobetxatu nahi izaten dugu. Larunbatean, Arrasateko desfilean parte hartzen dugu lagun guztiok. Igandean, berriz, deskantsua hartzen dugu. Bueno, deskantsua edo... Parranda-deskantsua, hobeto esanda! Igandean Aretxabaletako Aratusteetara joateko ohitura dugu, han dagoen giroa ikusi eta etxera bueltatu. Azkenik, martitzeneko sardinaren hiletaren antolaketan eta Herriko Plazan egiten den ekitaldian parte hartzen dut. Horren ostean, kalean bueltatxoa egiten dugu, eta aitortu behar dizut gau horretaz gehiago gozatzeko aukera dudala erretiratuta nagoenetik.

Aratusteak pasio dira zuretzat, beraz. Nondik datorkizu?

Aratusteetako nire lehen oroitzapena duela 55 urtekoa da, 60ko hamarkada hasierakoa, hain zuzen. Sasoi hartan, gure gurasoen adineko jendea ordura arte debekatuta izan ziren Aratusteetan parte hartzen hasi zen, eta orduan hasi zitzaidan jai hauenganako zaletasuna. Handik urte batzuetara, berriz, sardinaren kontua hasi zen. 1999an izendatu ninduten SUDCeko presidente, eta ordurako 20 urte neramatzan sardinaren hiletaren antolakuntzan. Pentsa, guztira 35 urte inguru izango dira saltsa hauetan sartuta nagoela.

Lagunen artean sortu zen sardinaren hiletaren kontua...

Antton Zumalde eta *Margusino* zena hasi ziren sardinaren kontuarekin. Gero, gu sartu ginen, eta istorio honi jarraipena eman nahi izan genion. Gaur egun, Mikel Sanzberro, Jose Luis Albes eta hirurok gabiltza sardinaren hileta antolatzen. Orain dela bost urtetik hona gabiltza lan hauetan, erretiratu ginenetik-edo, gutxi gorabehera.

"Ihauterietatik dudan nire lehen oroitzapena duela 55 urtekoa da"

"Guztira 10 bat ekintza antolatzen ditu SUDCek urtean zehar"

Horrez gain, SUDCek urtean zehar antolatzen dituen beste zenbait ekimenen antolakuntzan ere parte hartzen duzu...

Bai, orain Aratusteak direla-eta sardinaren hileta antolatzen ibili garela esan dizut. Honen ostean, berriz, doke txapelketa etorriko da Aste Santu buelta horretan; eta gero, danborrada antolatzen hasiko gara sanjuanei begira. Ordurako, karrozak eraiki beharko ditugu ospitale ondoan daukagun tailerrean. Eta hori bakarrik ez. Jaietan egiten den helduen bazkaria ere guk antolatzen dugu, eta horrek lan handia eskatzen digu. Guztira, hamar bat ekintza antolatzen ditu SUDCek urtean zehar, eta guztietan parte harzeko ohitura daukat. Ikusten duzunez, ez daukagu aspertzeko denborarik.

Eskerrak erretiratuta zauden... Denborarik baduzu horrenbeste kontutan sartuta ibiltzeko?

Aitona ere banaiz, eta umea zaintzen denbora egiten dut. Orain, baina, lanean nenbilenean baino denbora luzeagoa daukat. Lehen, egunero zortzi ordu egiten nituen lanean, eta gero familiaz arduratu behar nuen. Orain, berriz, goizeko bederatzietan etxetik irten eta eguerdira arte kalean ibiltzen naiz, eta arratsaldean ere libre izaten dut, normalean. Jaiak antolatzea lana da, baina baita zaletasuna ere; beraz, ez dut uste kexatzeko moduan nagoenik.

Jaien antolakuntzan parte hartzea festaz gozatzeko beste modu bat izan daiteke, beraz...

Zure lana dela ikusten duzu, jendeak positiboki baloratzen duena, gainera, eta horrek asko pozten nau. Asko disfrutatzen dut jaien alde lan egiten, eta etorkizunean ere horretan jarraituko dut.

NIRE HERRIAN

ASTEBURUETAN DAGOEN GIROA

Herrian denetarik daukagula uste dut, eta esan beharra daukat kalean daukagun giroa oso ona dela, oro har. Gero, badakizu, beti dago astakeriaren bat edo beste egiten duenen bat, gaztea edo nagusia izan daiteke, horrek berdin dio. Dena den, jende ugari ibiltzen da asteburuetan, eta horrek asko pozten nau.

PARTE-HARTZE TXIKIAGOA

Gazteen parte-hartzea ez da lehen zena modukoa. Guk, beharbada, hazten joan ginenetik jaso izan dugu herrian antolatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzeko joera. Gaueko giroa ere desberdina da orain. Guk parranda egunez eta gauez egiten genuen eta orain, berriz, gazteek lo egiten dute gauez irteteko.

HERRIAK

ESKORIATZA

Emakumeei laguntzeko hitzarmena sinatu dute

▸ Eskoriatzako Udalaren eta Clara Campoamor elkartearen artekoa da

▸ Protokoloa egitearekin batera, zerbitzu juridikoa jarriko dute martxan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, zerbitzu adjudikazio kontratua sinatu zuten joan den martitzen goizean Eskoriatzako Udalak eta Clara Campoamor elkarteak. Emakumeak defendatzeko eta aholkularitza emateko asmoa du urtebete iraungo duen akordio horrek.

Hitzarmena sinatu aurretik, Eskoriatzako udaletxeko osoko bilkuren aretoan egindako agerraldian jakinarazi zuten bi arlotan egingo dutela elkarlanean lan. Alde batetik, genero indarkeriaren edo sexu erasoen biktima izandako emakumeei arreta eskaintzeko udal jarduera eta koordinazio protokoloa egiteko konpromisoa hartu dute; asmoa da urtea amaitu baino lehen egitea Amuska emakumeen elkartearekin eta herriko osasun zentroko langileekin batera.

Bestetik, Eskoriatzan emakumeen eta seme-alaben eskubideei buruzko aholkularitza sozio-juridikoa eskainiko du Clara Campoamor elkarteak. Bada, datorren astean bertan jarriko dute martxan debalde izango den zerbitzu berria.

Udaleko eta Amuskako ordezkariak Clara Campoamor elkarteko Blanca Estrella Ruizekin. | MIRIAN BITERI

Astean behin

Agerraldi berean azaldu zenez, astean behin etorriko da elkarteko abokatu Jose Migel Fernandez zerbitzu hori bi orduz eskaintzera. Aholkularitza juridiko hori behar duten eskoriatzarrek Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute aurretik, udaletxean dauden bulegoetara joanda edo 943 71 31 36 telefono zenbakira deituta. Hango langileak arduratuko dira jasotako eskaerak bideratzeaz. Arreta zerbitzuaren eguna zehaztekebadago ere, eguaztenean edo eguenean, arratsaldez izango dela iragarri zuen prentsaurrekoan Eskoriatzako Prebentziorako teknikari Myriam Beltran de Herediak.

Orain artekoa "motz"

Esan beharra dago orain arte genero indarkeriaren edo sexu erasoen biktima izandako emakumeei zuzendutako laguntza psikologikoa eta juridikoa eskaini izan dela Eskoriatzan, Gipuzkoako Diputazioaren eskutik. Baina, Beltran de Herediaren arabera, Diputazioak eskainitako laguntza juridiko hori "motz" geratzen zen. Horren harira, honakoa azaldu zigun: "Saio bat bakarrik eskaintzen da; motz geratzen da eta eskatzen duen jendea zer egin jakin barik geratzen da. Epaitegian debaldeko zerbitzua eskatzen badute, prozesua oso luzea izaten da; bada, horretaz jabetu gara, eta zerbitzu osagarria martxan jartzea pentsatu dugu".

Udalaren jarrera irmoa

Esan bezala, egoera ikusita, horri erantzuna ematea erabaki zuten; horren bueltan, "baliabide txikiko" Udala dela jabetuta, Clara Campoamor elkartera jotzea erabaki zuten. Bada, martitzeneko agerraldian, Eskoriatzako Udalaren jarrera txalotu zuen elkarteko presidente Blanca Estrella Ruizek: "Akordioa onartu dugu Udalak jarrera irmoa duelako biolentzia ororen aurrean, eta, guri dagokigunez, baita emakumeenganako eta umeenganako biolentziaren aurrean ere".

Horrez gain, dituen baliabideak ondo erabiltzeko dei egin zuen Clara Campoamor elkarteko ordezkariak, eta, horren harira, Udal osoaren baina bereziki udaltzainen eta Gizarte Zerbitzuetako langileen lana nabarmendu zuen.

Udalbatza osoa lanean

Beñat Herce alkateak ere egin zuen berba. Proiektua udalbatza osoari esker aurrera irten dela azpimarratu zuen. Honakoa adierazi zuen: "Esku artean dugun proiektua korporazio guztiak bere gain hartzen du. Gai horren gainean hainbat mozio aurkeztu dira osoko bilkuretan, eta bilkurak ere egin ditugu horren bueltan".

Beñat Herce alkateak gaineratu zuen "kanpoan laguntza" eskatu badute ere, gaitz horren aurrean agerikoa dela denon konpromisoa. Honakoa nabarmendu zuen: "Eskoriatzatik emakumeenganako indarkeria mota guztia ezabatzea lehentasunezkoa da guretako, eta, hortaz, orain arte inplikatu bagara ere, aurrerantzean ere bide bidetik jarraituko dugu lan egiten".

Mozioa osoko bilkuran

Martxoaren 8aren harira, emakumeen eskubideen aurkako erasoei buruzko mozioa onartu zuten otsaileko osoko bilkuran; Ezker Anitza-IU taldeak aurkeztutako mozioa Elizateetako bi ordezkarien abstentzioarekin eta bilkuran izandako beste zortzi zinegotzien aldeko botoarekin onartu zen.

Abortuaren Lege proiektua bertan behera uzteko eskatzen da eta berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen da, besteak beste.

Kafe tertulia eta tailerra

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, ekimen bi gertatu dituzte herrian.

GAUR, EGUBAKOITZA

18:00 EraiN Osasun Integrala aholkularitzako Virginia Belategiren eskutik, *Adueñándome de mis palabras* tertulia, museoan.

BIHAR, ZAPATUA

10:00-13:00 Rafa Carrietek eskainitako defentsa pertsonalari buruzko tailerra, pilotalekuan. Debalde da.

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

Azoka Plaza, asmoetatik ekintzara pasatzeko gertu

Azoka biziberritzeko ekimena hirugarren fasean sartu da, betetze bidean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bagara eta Arrasateko Udala elkarlanean ari dira Arrasateko azoka biziberritu guran. Bagarako Nagore Iraolak dioenez, Azoka Plazarena "arnas luzeko" ekimena da: "Arnas luzeko proiektua denez, faseka egitea erabaki genuen". Eguaztenean, hirugarren fasean egingo diren ekintzen berri eman zuten; izan ere, aurten asmoetatik ekintzetarako bidean jarriko da proiektua.

2014rako asmoak

Inazio Azkarragaurizar alkatearen arabera, Azoka Plazarena "erronka estrategikoa" da Udalarendako, "bai sozialki eta bai ekonomikoki". 2014rako planen artean kudeaketa eredua aldatzeko asmoa dago: "Orain arteko kudeaketa publiko hori partekatua izatea gura bada, hori pleguetan islatzea da asmoa", azaldu du Iraolak. Indarrean dauden plegu eta ordenantzak 2014ko abenduaren 31n bukatzen dira, eta, Bagarakoen ustez, epe hori aukera bat izan daiteke kudeaketa eredu berriarekin hasteko.

Era berean, azokaren diseinu arkitektoniko berriaren azken argazkia irudikatuko duen proiektu gidatzailea egiten ari da Arrasateko Telleria arkitekto bulegoa. Proiektu gidatzaile horrek zehaztuko du beharrezko izango diren askotariko obrak faseka gauzatu ahal izateko plangintza zehatza, eta baita aurrekontu osoaren zenbatekoa ere.

2014rako beste asmo bat da orain arte egiten diren ekintzak –haurrendako txokolate-janak, hileroko Elkartruke Azoka...– mantentzea eta egonkortzea. Horrez gain, aukera berriak ere aztertzen dihardute. GUreztatuk lehen sektoreari bultzada ematea ere badu helburu: "Lehen sektorearen mahaia martxan dago, azoka da-eta lehen sektorea merkaturatzeko biderik zuzenena", dio Iraolak. Etorkizunean bertako baserritarrek "garrantzi berezia" izango dute eta lehen sektorera jende berria erakartzeko ere egingo da lana.

ESANAK

"Azoka erronka estrategikoa da, sozialki zein ekonomikoki"

INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

"Arnas luzeko proiektua denez, faseka egitea erabaki genuen"

NAGORE IRAOLA | BAGARA

Herritar bat erosketak egiten Azoka Plazako postu baten, eguaztenean. | J.B.

Emakume artisau eta baserritarren azoka bihar Seber Altuben. | GOIENA

Azoka, manifestazioa eta beste bihar, Emakumeen Egunean

J.B. | ARRASATE

Udaleko Emakume Sailak eta Emakume Txokoak denetariko ekintzak antolatu dituzte biharko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta. *Feminismotik eragiten!* lelopean, martitzenean egin zuten lehen ekintza: Andredetan prozesu parte-hartzailearen aurkezpena.

Bagarako Iraitz Agirrek eta Udaleko Berdintasun teknikari Maider Morrasek gidatu zuten Kulturaten egindako aurkezpena. Ekimena aurkezteaz gain, bertaratutakoen lehen ekarpenak jaso zituzten. Hala ere, aste bukaeran izango dira Martxoaren 8ko egitarauko ekintza aipagarrienak. Kultura ekintzez aparte, bihar Seber Altube plazan egingo den emakume artisau eta baserritarren azoka nabarmendu beharra dago. Manifestazioa ere bihar izango da, Seber Altube plazatik irtenda (19:00).

Erakusketa eta ikastaroak

Martxoaren 10etik 24ra Martxoaren 8ko kartelen erakusketa irekiko dute Emakume Txokoan. Era berean, martxo amaierarako eta apiril hasierarako bi ikastaro antolatu dituzte: *Herrigintza feminismotik* eta *Autodefentsa feminista* tailerra. Izena emateko, Emakume Txokora jo: 943 79 41 39. Takarraran lasterketa, bestalde, maiatzaren 10ean egingo da.

San Juan jaietako egitaraua prestatzeko lehen bilera irekia egin zuten atzo, eguena

J.B. | ARRASATE

Hiru hilabete baino gehiago falta diren arren, San Juan jaiak antolatzen hasi gura du Udalak. Duela bi urte hasi ziren jaiak parte hartze prozesu bidez antolatzen eta aurten ere ateak zabal-zabalik dituzte jaiak prestatzen laguntzeko gogoz dabiltzan elkarte zein herritar guztiek. 2014ko egitaraua herritarrek herritarrentzako egina izan dadin, aurreko bi urteetan sortutako hainbat ekintza arrakastatsu kontuan hartuko dira: lelo lehiaketa, *Zeuk ein zeuk jan*, kantu afaria eta jaietako zapiak, besteak beste..

Udalak deituta, atzo egin zuten parte hartze prozesua abiatzeko lehen bilera.

OHARRAK

1962AN JAIOTAKOAK

Aurten, martxoaren 15ean elkartuko dira. 11:00etan batuko dira Herriko Plazan, bisita gidatu batekin hasteko.

ABAROAKOAK ESKOZIARA

Eskoziara egin behar duten bidaia dela-eta bilera egingo dute hilaren 11n Etxaluzeko bigarrren solairuko E eta D geletan (16:00).

Barrenatxo mantendu eta epaia betetzeko eskatu diote Udalari

Arrasate Zientzia Elkarteak Polmetasako lantegi berriaren aurrealdeko Barrenatxo errota mantendu eta eraberritu gura du. Aspaldikoa da Barrenatxo balioan jartzeko ahalegina eta prozesuaren amaieran Udalak erabaki zuen nahikoa zela errotaren oinarrian aztarna batzuk eraberritzearekin. Hori ikusita, AZEkoek atzo eman zuten administraziorako auzi prozesura jo dutenaren berri, eta ateratako sententzia betetzeko eskatu diote Udalari. Sententziaren arabera, XV. mendeko errotaren bolumena, egitura eta itxura gorde behar da, AZEkoek azaldu dutenez.

Abaroa elkartearen batzar orokorra hilaren 21ean

Abaroa erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du martxoaren 21ean. 17:00etan izango da, lehen solairuko E eta D aretoetan. Aurreko bilerako aktaren irakurketa, aurreko ekitaldiko memoriaren irakurketa, 2013. urteko balantzearen eta kontuen irakurketa, 2014. urterako aurrekontua eta irten daitezkeen gaien inguruan jardungo dute. Abaroa elkarteak adierazi duenez, edozein bazkide kontu, administrazio edo antolakuntzari dagokion edozein datu ezagutu nahi izanez gero, elkartearen bulegotik pasa daiteke.

Aratusteetako azken trakan, gaztetxoak eta ikasleak protagonista

Martitzenean ere euriak apaldu zuen kaleko giroa; ikastetxeetan, aterpean egin zituzten ospakizunak

SUDCekoek sardina erre ostean agurtu zituzten aurtengo Aratusteak.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euriak goibeldu ditu, neurri handi baten, aurtengo Aratusteak. Martitzenean, zapatuan gertatu moduan, euria egin zuen ia etenik gabe eta horrek eragin zuen kalean giroa beste urte batzuetan baino hotzagoa izatea. Ikastetxeetan, aterpean egin zituzten urteroko ospakizunak; Arrasate Herri Eskolako Bedoñabe gunean eta Arizmendi Ikastolako Gazteluondon, esaterako. Era berean, Herriko Plazan egin ohi den mozorro desfilea udaletxeko arkupeetan egin behar izan zuten. Ulertzekoa denez, beste urte batzuetan baino jende gutxiago bertaratu zen.

Behi taldea, zezena eta abeltzaina Erdiko kalean, martitzen arratsaldean.

Iluntzean SUDC elkartekoen segizioak sardina paseatu zuen herriko kaleetan, gero Herriko Plazan erretzeko. Aurten kerosenoa erabili dute gasolina beharrean, erreketa lasaiagoa izan zedin. Datorren urtera arte!

Ikasleak mozorrotuta eta senitartekoak, Arizmendiko Gazteluondo gunean.

Herri eskolakoen ospakizuna, Bedoñaben. | ARGAZKILARIAK: MIREN MUJIKA ETA JOKIN BEREZIARTUA

Bideogintza eta argazkilaritza tailerrak Gazte Bulegoan

Gazte Bulegoak bideogintza eta argazkilaritza ikastaroak antolatu ditu. Bideoaren oinarrizko edizioa landuko dute Imanol Belokirekin martxoaren 19an eta 26an (18:00-20:00). Prezioa hamar euro da –ikasle eta langabeek, bost euro–. Bestalde, Photoshop eta Lightroom erabiltzen ikasteko tailerra Antonio Murillok gidatuko du, martxoaren 18an eta apirilaren 29an (18:00-20:00). Prezioa 25 euro da –ikasle eta langabeek, 15 euro–. Izena emateko: 943 25 20 65.

Corazon de Encinakoen eskutik ogi-mamiak etzi Seber Altuben

Arrasateko Corazon de Encina extremadurarren elkarteak ogi-mamien eguna ospatuko du domeka honetan Seber Altube plazan. Hain zuzen ere, ogi-mamiak doan jateko aukera eskainiko dute, eta, gainera, Extremadurako beste hainbat produktu dastatu ahal izango dira. Extremaduran horren tipikoak diren ogi-mamiak jateko sasoia da orain, eta urtero Debagoieneko herri bat aukeratzen dute ospakizunerako. Aurten, Arrasateri egokitu zaio.



Mikel Nuño | Besaide Mendi Elkarteko kidea

"Elurretan erraketekin ibiltzeak ez du zailtasunik"

Besaidek antolatuta 19 lagun ibili dira asteburuan Candanchu aldean

Mikel Nuño. | GOIENA

XABIER URZELAI | ARRASATE

Besaideren eskutik Arrasateko zenbait mendizale Candanchu aldean ibili dira asteburuan. Ez dira pistetan eskiatzen ibili, ezta mendiko eskia egiten ere. Elur-erraketak hartu, eta oinez ibili dira; gozatu ona hartu zuten, batez ere domekan.

Elur-erraketekin egiten duzuen lehenengo irteera izan da, eta jendea animatu da.

Bai, pozik geratu gara, 19 lagun animatu ginen eta asteburu-pasa ederra egin dugu. Egia da jendea aratusteetatik ihes egiteko asmoz zebilela [Barre], eta zapatuan eguraldiak lagundu ez bazigun ere, domekan izugarrizko eguna izan genuen; ez zuten iragarpenekin asmatu.

Elur-erraketekin ibiltzeko irteerak ez dira ohikoak...

Ez, Besaidetik mendi irteera asko antolatzen dira, baina oinezkoak gehiago izaten dira udaberrian hasita. Eta elurretako irteerak, berriz, eskiatzeko antolatu izan dira. Aurten, baina, ez da mendiko eskiko irteerarik antolatu; hutsune hori bete nahi genuen.

Mendiko eski irteera asko antolatu izan da azken urteotan, baina hor, antolatzaileek ardura handia hartzen dute euren gain.

Bai, nik uste dut neurri handi baten hori izan dela aurten ez antolatzearen arrazoia. Mendiko eskia [edo zeharkaldikoa] egiteko orduan gauza asko izan behar dira kontuan, eta mendian beti izaten da arriskua. Mendian gora lehenengo, tontorretik jaitsi gero... elur-jausiekin eta halakoekin kontu handia izan behar da, eta zerbait gertatzen bada, antolatzailearena da ardura.

Elur-erraketekin ez dago halako arriskurik?

Kontua da non ibiltzen zaren. Gu, elur-jausi arriskurik ez egoteko, malda txikiko lekuetan ibili ginen. Zapatuan Candanchutik abiatuta hiru orduko buelta bat eman genuen, lasai, eguraldiak ez zuelako laguntzen. Eta domekan, berriz, eguraldi onarekin, Ibon de Estanesera joan ginen. Domekan, gainera, elur-erraketekin ibiltzeko baldintza ederrak izan genituen, elur asko bota zuelako. Guk ez genuen arbarik erabili [elur-jausi baten aurrean laguna bilatzeko gailua], baina egia da neguan mendian segurtasun neurri guztiak datozela ondo.

Aparteko ikastarorik behar da erraketekin ibiltzen ikasteko?

Ez, ez du batere zailtasunik, mendian oinez joatea bezala da, baina mendiko boten azpian erraketak jantzita. Hasieran, arraro samarra egiten da ibiltzea, baina hankak zabalago eramatea, ez da besterik egin behar. Kontua da elur asko dagoen lekuetan oinez joatea oso nekagarria dela, elurretan hondoratu egiten garelako. Erraketei esker, berriz, errazago egiten da aurrera.

Eskiatzea baino merkeagoa da, horrenbestez.

Eskiatzera joaten bagara, material aldetik gauza askoz gehiago behar ditugu: eskiak, botak, larru-azalak... Hemen erraketak baino ez dira behar, eta 70 euroren bueltan txukunak eros daitezke [Besaiden hainbat daude alokagai]. Bastoiak ere lagungarri dira.

Eskiak aldapa behera ematen duen plazera falta zaio...

[Barre] Bai, ez du zerikusirik. Erraketekin gustura ibiltzeko mendian ibiltzea atsegin behar da; izan ere, oinezko irteera bat da, azken batean.

Mendian gora, elur oso onaz, lerroan denak. | MIKEL NUÑO

Domekan egindako talde argazkia, Candanchu inguruan. | MIKEL NUÑO

ZALDIBAR

EMAITZAK

Sport in tus bragas - Fidel & Discipulos	5-3
Birigarruak - Haizea's Weah	0-4
Lasagabaster - Betrayer	2-2
Dribling - Sonografos	1-2
Iluntz - Jibaros F.C.	8-3
Cantauri - Ostantz	1-2

SAILKAPENA

	TALDEA	J	P
1	Dribling	12	30
2	Sonografos	12	25
3	Haizea's Weah	12	24
4	Iluntz	12	23
5	Aldatz	11	23
6	Betrayer	12	23
7	Lasagabaster	12	23
8	Sport in tus bragas	12	16
9	Fidel & discipulos	12	14
10	Ostantz	12	13
11	Abokajarro	11	12
12	Jibaros F.C.	12	9
13	Cantauri	12	5
14	Birigarruak	12	0

PARTIDUAK

MARTXOAK 8, ZAPATUA

10:00 Iluntz-Ostantz / **Aldatz**
11:00 Abokajarro-Aldatz / **Ostantz**
12:00 Sport in.-Sonografos / **Abokajarro**
13:00 Birigarruak-Cantauri / **Sonograf.**

MARTXOAK 9, DOMEKA

10:00 Dribling-Haizea's / **Jibaros**
11:00 Lasagabaster-Jibaros / **Dribling**
12:00 Aldatz-Betrayer/ **Lasagabaster**
13:00 Abokajarro-Fidel & / **Betrayer**

Mondrate Legorretan ahaleginduko da liderra estutzen

Arrasateko areto futbol taldea estreinaldi ederra izaten dabil, lehian dabiltzan lehenengo urtean lidergoarengatik borrokan dihardute-eta. Ataun da, oraingoz, kategoriako talderik onena (44 puntu), baina gertu dago Mondrate, 41 punturekin bigarren. Igoera faserako sailkatzeko bidean dira Arrasatekoak. Gaur, Legorretan jokatuko dute (20:00).

MUk atsedenaldia izango du, azken esprinta egiteko

Hamar jardunaldi geratzen zaizkio MUri kategoriaz igotzeko lehian segitzeko. Goierriri errepaso ona eman ostean (86-44), oraingo asteburuan atsedenaldia izango dute arrasatearrek. Entrenatzaileak, Larreategik, oraingoz ez du igoeraz berbarik egin gura: "Goiz da oraindik".

ZUBI-LAN
KONPONKETAK ETA SALMENTAK

TRESNAK
Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza

MOTORRAK
Salmenta
Konponketa

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33 - jmabizeta@gmail.com
Arrasate

Dapena eta Ruiz de Azua Euskadiko txapeldun Anoetan

X.U. | ARRASATE

Euskadiko kadete, junior eta gazte mailetako Euskadiko Txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan, eta Arrasateko ordezkaritzak lan bikaina egin zuen ostera; izan ere, pertika-saltoan nabarmendu ziren arren, guztira zortzi domina jantzita itzuli ziren Anoetatik.

Ruiz de Azuaren marka

Realeko Istar Dapenak 4,45 metroko saltoa egin zuen eta Super Amara BAT taldeko Malen Ruiz de Azuak, 3,95ekoa (Espainiako urteko markarik onena). Segidan, lau metroak gainditzen ere ahalegindu zen Ruiz de Azua, junior mailako Munduko Txapelketara joateko gutxieneko marka delako, baina ezin izan zuen listoia gainditu. Hala, biak ala biak hilaren 22an izango dira ostera Anoetan, Espainiako Txapelketan.

Horiez gain, baina, lan azpimarragarria egin zuten kadete mailako Eneko Carrascalek (hiru domina saltoko hainbat modalitatetan), Ibai Fernandezek (60 metroko proban urrea eta 300 metroko proban zilarra) Daniel Martinezek (zilarra 600 metroko proban) eta Marixe Ruiz de Austrik (laugarren luzera-saltoan eta bosgarren 60 metroko proban).

Arrasate Musikaleko bandak kontzertua emango du domekan

64 musikarik parte hartuko dute Amaia antzokian egingo den emanaldian

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Domeka honetan itxiko du Arrasate Musikalek aurtengo Aratusteen aitzakian antolatu duen egitaraua. Horretarako, haurrei begira prestatutako kontzertua eskainiko du Arrasate Musikaleko bandak Amaia antzokian, 12:30ean hasita. Bandako zuzendari Mikel Markiegik adierazi digunez, "pelikula eta marrazki bizidun ezagunen piezak" joko ditu bandak domekako kontzertuan, eta, horregatik, Amaiara "haur ugari hurbiltzea" espero dutela dio. Besteak beste, Disney etxeko zenbait pelikulatako eta *The Pink Panther* eta *Police Academy* filmetako soinu-bandetako abestiak joko dituzte asteburu honetako emanaldian.

Mikel Markiegi da bandako zuzendaria. | ARRASATE MUSIKAL

Bigarren urtez jarraian, Amaia antzokian egingo du Aratusteetako kontzertua Arrasate Musikaleko bandak. Iaz hartu zuten ordura arte kaleetan egiten zuten kontzertua Amaiara eramateko erabakia. "Lehen, mozorrotuta irteten ginen kalera. Urteek aurrera egin dute, baina, eta, bandako kideak nagusiago egin direnez, ikuskizun serioagoa egitea erabaki genuen iaz", dio Mikel Markiegik.

Seriotasun horrek, baina, ez dio ikusgarritasunik kenduko domekako kontzertuari. Zuzendariak dioenez, aurreko urteetan kalean jo dituzten abestien bilduma osatu nahi izan dute aurtengo ekitaldirako. "Probatzen ibili gara, kantu desberdinak sartu nahi izan ditugu egitarauan", dio hark. "Kalean ginenean kontzertu ikusgarriagoak ematen genituen, beharbada, baina orain, musikaz gozatzeko aukera handiagoa ematen diogu publikoari". Hari horri tiratuta, domeka eguerdiko kontzertua "ikusteko baino gehiago entzuteko" izango dela aurreratu du Arrasate Musikaleko bandako zuzendariak.

Gaur egun, 64 lagunek osatzen dute Arrasate Musikaleko banda. Edozelan ere, haren jardunak gorabehera asko izan ohi ditu urtean zehar. Markiegik dioenez, "zaila da 64 pertsonak bat egitea entseatu edo kontzertu bat emateko; nork bere bizitza dauka, eta, horregatik beragatik, gutxitan jotzen dugu guztiok batera". Etziko kontzertuan, baina, kide guztiak oholtza gainean izango direla aurreratu du bandako zuzendariak.

> ESANAK
>
> **"Aurreko urteetan jo ditugun abestien bilduma egin nahi izan dugu domekarako"**
>
> **MIKEL MARKIEGI** | ZUZENDARIA

Urte osoko jarduna

1994an Jose Ramon Vitoriak sortu zuenetik ibilbide luzea izan du Arrasate Musikaleko bandak. Ordutik hona, bost zuzendari izan ditu eta etengabe haziz joan da partaide kopuruan eta urtero eskaintzen dituen ekitaldietan. Gaur egun, Santa Sezilia egunean, Gabon zaharrean, Aratusteetan eta sanjuanetan ematen ditu kontzertuak bandak, eta, horretaz gain, maiatzean "Euskal Herriko herriren batera" irteera egiten dutela dio zuzendariak.

Arrasaten egiten diren emanaldietan jende ugari batu ohi da, eta hori ikusita domekan ere "Amaia antzokia beteta ikustea" espero dutela dio bandako zuzendariak. Bada, bertara joan nahi duten musikazaleek jakin dezatela sarrera doan izango dela.

Asier Etxeandia aktorea El Interprete saioan. | ELINTERPRETE.ES

'Madama Butterfly' eta 'El Intérprete' martxoko kultura egitarauan

Pelikula eskaintza zabalak osatuko du datozen asteetako proposamen kulturala

M.A. | ARRASATE

Opera eta musika-antzerki eskaintzak dantza eta zine proposamenekin nahastuko dira hilabete honetako kultura egitarauan. *Madama Butterfly* operak eta *El Intérprete* musika-antzerki obrak herritarren interesa piztu dute azken asteetan, eta bi emanaldietarako sarrerak agortuta daude jada.

Opera ikuskizuna martxoaren 8an taularatuko dute Amaia antzokian. Ozenki taldeak antolatuta, Pucciniren obra liriko horretaz disfrutatzeko aukera izango dute herriko operazaleek. Hiru ekitalditan banatuta, Japoniako Nagasaki hirian girotuta dago bere garaian mundu zabalean arrakasta lortu zuen obra hori. Hiroko Morita soprano japoniarrak beteko du Butterfly protagonistaren rola eta Angel Pazos tenoreak, berriz, Pinkerton soldadu amerikarrarena.

Eta ikusmin handia piztu duen beste ekitaldiak ere uztartuko ditu musika eta eszena. Hilaren 29an, Factoria Madre Constrictor konpainiaren *El Intérprete* musikala iristiko da Arrasatera. Ikuskizun horrek musika eta antzerkia batu nahi ditu, eta, horretarako, publikoaren konplizitatea beregana tu nahi du antzezlanak irauten duen ordu eta erdian; 2012an aktore onenaren Max saria irabazi zuen Asier Etxeandiak hartzen du ikuskizunean pertsonaia nagusiaren rola.

Horietaz gain, dantza ere izango da hilaren 15ean. Dantzaz taldeak *Kameleoiak* ekoizpena ekarriko du Amaia antzokira. Ikuskizunak estilo klasiko eta abangoardista batu nahi ditu, eta Europako dantza munduan oso ezagunak diren Itzik Galili eta Jacyk Przybylowicz koreografoak hartu dituzte erreferente moduan.

Film nabarmenak

Zinemak ere pisu handia izango du martxoko egitarauan. Izan ere, azken hilabeteetan arrakasta lortu duten zenbait film iritsiko dira gurera. Asteburu honetan, esate baterako, Oscar sarietarako izendatua izan den *La gran estafa americana* ikusteko aukera izango da. Datozen asteetan, berriz, besteak beste, Arrasaten filmatu zen *8 apellidos vascos* pelikula eta Oscar sarietan protagonista izan diren *12 años de esclavitud* eta *El lobo de Wall Street* filmak emango dituzte.

Opera Kulturaten

Amaia antzokian taularatu aurretik, Kulturaten aurkeztuko dute astelehenean *Madama Butterfly* opera. Ozenki taldeak antolatuta, Ibon Robles musika adituak opera horren gainean hitzaldia egingo du, eta, horren ostean, Teresa Albero sopranoak eta Isabella Blezien piano-joleak *Madama Butterfly* operako zenbait pieza joko dituzte, arratsaldeko zazpietan, Kulturateko areto nagusira hurbiltzen direnentzat.

Hitzordu kultural bikoitza Martxoaren 8a dela eta

Antzerki eta musika proposamen bikoitza izango da asteburuan Arrasateko Gaztetxean

M.A. | ARRASATE

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan, kultura ekitaldi bikoitza izango da asteburuanArrasateko Gaztetxean. Alde batetik, *Macho Maris* antzezlana eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaueko hamarretan; eta bestetik, Penadas por la ley, Deaf Scuad eta Las Tuerkas taldeen rock kontzertua izango da bihar, zapatua.

Macho Maris antzezlanak gizonezkoei ezarri zaizkien balio matxisten inguruan hausnartu nahi du. Ermuako Markus eta Juanmanolo taldeak matxismoaren kontra egin nahi duten gizonezkoengan eragin nahi du antzezlan horrekin, eta, horretarako, egungo balioen autokritika egin nahi du. Ordubete irauten duen antzezlanean, ikusleen konplizitatea lortzen saiatuko da aktore bikote bizkaitarra.

Antzezlaneko unea. | MARKUSYJUANMANOLO

Emakumezkoen rocka

Antzerki eskaintzari musikak emango dio jarraipena zapatuan. Horretarako, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan kokatu duten kontzertu hirukoitza izango da Gaztetxean, 22:30ean. Emakumezkoek osatutako Penadas por la Ley, Deaf Scuad eta Las Tuerkas taldeek emanaldia eskainiko dute.

Jaione Isazelaia | Bergarako alkatea

"Merkatua biziberrituko duen alokairu soziala sustatzeko asmoa dugu"

Jaione Isazelaiak 2014an gakoak izango diren hainbat gairi buruz hitz egin digu: Oxirondo azoka, museoa, alokairu soziala, sistema mistoa...

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Agintaldia erdialdean dagoen arren, Jaione Isazelaiak duela zortzi bat hilabete hartu zuen alkate kargua. Lehen hilabete hauetako balorazioa oso positiboa dela aipatu du Isazelaiak. Bere agintaldia kontinuistatzat jo, eta aurreko agintaldian garatutako Plan Estrategikoaren garrantzia azaldu du alkateak.

Aurrekontuetan azpimarratu duzuen moduan, aurreko urteetako aurrezpenei esker, garapen eta inbertsioek pisu handiagoa izango dute.

Aurreko bi urteak ez dira errazak izan, aurrekontuak orekatzeko gastu arrunta murriztu behar izan genuen-eta. Eskerrak eman beharrean gaude: udal langileei, azpikontratatutako enpresei... Talde esfortzu horri esker, garapenari eta inbertsioei bultzada emateko moduan gaude.

Zertan eta nola lortu duzue aipatutako aurrezpen hori?

Ur kontsumoaren gastua minimo historikoetara jaitsi dugu; besteak beste, sarean genituen galerak murriztu, kontsumo ilegalak detektatu eta udal eraikin guztietan uraren erabilera efizienteagoa bultzatu da. Argindarraren gastuan 70.000 euroko jaitsiera izan dugu. Hori lortzeko, argindarra erosketa zentraletik erosi, udal argiterian beharrezkoak ez ziren hainbat farola itzali eta beste hainbaten led argiteria jarri dugulako izan da. Udaleko hainbat zerbitzu erosketa zentralaren bitartez erosi ditugunez, emaitzak esanguratsuak izan dira. Mizpirualde egoitza, esaterako, pixkanaka, Aldundiaren eskuetara pasatuko da, aurten Udalak egin duen ekarpena 90.000 euro murriztu da. Bestalde, oso garrantzitsua izan da zorra jaistea; zenbat eta zor txikiagoa, interesak ere orduan eta txikiagoak dira-eta. Agintaldiaren hasieratik 2.650.000 euro murriztu dugu hartu genuen mailegua. 2013an krediturik eskatu ez dugunez, 1.300.000 euro gutxitu da Udalaren zorra.

Garapenak pisu handiagoa izango du aurten. Zertan gauzatuko da?

Hasieratik izan dugu honen inguruko kezka; 2011ko azaroan bigarren sektorea garatzeko talde bat sortu genuen. 2013an zehar merkatariekin lanean jardun dugu, eta orain, lehen sektoreari bultzada emateko Oxirondo azokan martxan jarriko dugun *Bergaratzen* plana aurkeztu berri dugu. Pertsona bat liberatu dugu egun osoan garapen arloa bultzatzeko. Hark dinamizatuko ditu ekimen hauek guztiak. Prozesu hauekin batera, Mankomunitate mailan bultzatzen diren beste hainbat proiektu garatzeko baliabideak ere jarri ditugu.

Inbertsioaren partidak ere gora egin du. Zeintzuk dira azpimarratuko zenituzkeen puntuak?

Oraingoz, museoa eta azokan bultzatuko dugun proiektua sartu ditugu aurrekontuetan. Mekolaldeko biribilgunea ere aurten gauzatuko da, baina Udalak gai honetan sustatzaile lanak besterik ez du egin. Biribilgune honek Mekolaldeko industrialdearen garapena ahalbideratuko du, bertan dauden industriei arnasa emango die eta bertara enpresa berriak etorriko dira. Errege Seminarioko bilduma balioan jartzeko, museoa Errekalde jauregian irekitzeko lanei ekingo diegu. Azokan martxan jartzen ari garen proiektuak hiru helburu ditu: azoka bizitza berritzea, lehen sektorea dinamizatzea eta bertan 0 eta 12 urte bitarteko familia eta umeentzat aisialdi-gune bat jartzea. Bertan oso espazio handia dago, eta, ondo antolatuz gero, eraikinari bizitza emango diola uste dugu.

Hondakinak batzeko sistema mistoa ere abiarazi duzue; nola doa?

Duela hilabete jarri genuen martxan eta oso pozik gaude emaitzekin, herria garbiago dagoela begi bistakoa da. Oraindik hobetzeko asko geratzen zaigu, baina argi daukagu egindako urratsa garrantzitsua izan dela. Kontziente gara hondakinak batzeko sistema berriak herritarren ohituretan aldaketak eragin dituela eta sailkatzeko esfortzu bat egin behar dela; horregatik, aukera hau aprobetxatu nahiko nuke Udal Gobernuaren izenean eskerrak emateko. Laster, Epeleko konpostatze planta egiten denean, gure hondakin organikoa bertan kudeatuko da, eta, horri esker, inolako kutsadura barik gure hondakinak kudeatzea lortuko dugu.

Orain arte ikusitakotik zerbait aldatzea pentsatu duzue?

Denbora laburra pasa da aldaketa sakonak planteatzen hasteko, jendea oraindik ohitzen ari da, eta pazientzia izan behar da; hala ere, ziur gaude sistemak hobetu beharreko aspektuak dituela. Dagoeneko hasi gara zenbait aldaketa egiten; haizeak gehien jotzen duen lekuetako esekitokiei goma batzuk jarriko zaizkie kuboak hegan irten ez daitezen. Horrez gainera, hasi gara herritarrek bidaltzen dituzten proposamenak jasotzen, eta, banan-banan aztertu ostean, erantzunak bideratzen hasi gara.

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

Aintzane Oiarbide | EAJko bozeramailea

"Atez atekoa da Gobernuaren lehentasun bakarra"

"Bilduk urte honetan egin duen gauzarik garrantzitsuena atez atekoa ezartzea izan da. Bilduk bizkor jaso zuen parte hartzearen bandera, baina kasu honetan bizkarra eman dio herriari. Bergaran, gainera, alkate aldaketa bat izan dugu eta egoerak okerrera egin du, herritarrei entzungor eginez gidatzen dute herria eta oposizioa ere baztertu egiten dute. Bitariko batzordeak sortu eta oposizioko alderdiei soilik informazioa ematen diete. Gainera, aurrekontuetan aipatzen diren inbertsioak nola gauzatuko diren ere ez dute gehiegi zehaztu. Aurten benetan aurrera egingo duen gai bakarra atez atekoa izango da, aurrekontuetan %20ko igoera izan du-eta".

▶ ALKATEAREN ERANTZUNA

"Parte hartzeari dagokionez uste dugu ongi bideratzen dugula arlo hori. Gobernuari dagokionez, alderdi guztiek hartzen dute parte batzorde informatiboetan; are gehiago, tokiko batzordeetara joateko aukera ere badu oposizioak. Egia da hondakinen kontuan oposizio handia izan dugula, baina aldeko jendea ere badago. Hondakinen mahaiak ez zuen aurrera egin, nahiz eta Arrasaten jarritako baldintza berberak eskaini genizkion oposizioari. Nire ustez, gai honen inguruan erabilpen politikoa egin nahi izan dute".

Badirudi Arrasaten *zero zabor* kota horietara iristeko baliagarria dela bosgarren edukiontzia eta hemen, aldiz, ez da hori horrela izan. Zergatik? Non dago ezberdintasuna?

"Bergarako hondakinen mahaiak ez zuen akordiorik lortu. Gu prest geunden Arrasaten jarriko diren baldintza berberekin aurrera egiteko, baina ez ginen akordio horretara iritsi. Guk beti esan dugu Arrasaten hartutako erabakia begi onez ikusten dugula; hala ere, azpimarratu beharra dago Arrasatekoa proba bat dela. Tasa batzuetara iritsi ezean, atez ateko sistema jarriko da".

Mari Carmen Barrenetxea | PSE-EEko bozeramailea

"Krisi garaian, zergak igotzea ezinezkoa da"

"Bilduren eta Aralarren Udal Gobernuaren jardunaren aurka gaude. Inposizioan oinarritutako gobernua da. Hasieratik esan zuten herriari hitza emango ziotela, baina ikusi dugu emaitza: atez atekoaren inposaketa. Hiri hondakinen gaineko herri galdeketa egin zen eta aurka daudenak gehiago izan ziren. Horri deitzen diot nik botoa eman eta kasurik ez egitea.
Bestalde, bizi dugun krisi sasoi hauetan, zergak igotzea ezinezkoa da. Herritarrei ezin zaie errurik bota Udalean dirurik ez dagoelako. Errua Udal Gobernuaren kudeaketa eskasarena da".

▶ ALKATEAREN ERANTZUNA

"Kudeaketa eta parte hartze eskasa aipatzen ditu eta ez nago horrekin ados. Eudelek argitaratutako txosten batean azaltzen den moduan, Bergaran asko eta ongi sustatu da herritarren parte hartzea, eta Udaletik asko bultatzen dugu arlo bat da. Plan estrategikoa, euskara, merkataritza, lehen sektorea... garrantzitsuak diren arlo gehienak parte hartzea sustatuz garatu ditugu, eta orain arteko emaitzak ikusi eta gero, bide beretik jarraitzeko asmoa dugu".

Nola deitzen diozu norberak esandakoa ez egiteari? Nik, zuzenean, inposaketa edo diktadura deitzen diot. Horren urrun ez ditugun garaietara eroaten gaitu jarrera horrek.

"Bueno, Mari Carmenek egindako hori galdera bat baino gehiago, balorazio bat dela uste dut, eta noski, ez nik ezta nire alderdiak ere ez dugu irakurketa horrekin bat egiten. Gure ustez, herria kudeatzeko orduan oso gestio garbia egiteaz gain, herriarekin batera egiten dugula uste dugu;horregatik baztertzen ditut berak esandako *inposaketa* eta *diktadura* hitzak".

Jaione Isazelaia, platoan, *Harira* saioa bukatu eta gero. | IMANOL GALLEGO

Herritar batzuek lurrean uzten dituzten poltsekin zer egiteko asmoa duzue?

Oraingoz, errefusa jasotzen den unean batzen ditugu poltsok, baina ez zaigu oso jarrera egokia iruditzen. Beti esan dugu, ordenantzan horrela jasotzen delako, isuna jartzeko aukera dagoela, baina Udalean ez gara horren aldekoak. Ordenantza aplikatzen hasi aurretik informazio gehiago ematearen aldekoak gara; ziur gaude beste herritar batzuek ulertu duten moduan, laster bergarar guztiek bat egingo dutela sistema mistoarekin.

Beste ekimen berritzaile bat izan da garajea erabiltzeagatik hobariak ematea. Nola doa?

Lurzoru falta duten herrietan lur azpiko aparkalekuak egin izan dira eta hori oso garestia da. Gaiari buelta pila bat eman eta informazio asko batu eta gero, jakin dugu azken boladan eginiko aparkaleku publiko asko, batez ere herrietakoak, defizitarioak direla; garaje erosketak krisia dela-eta asko jaitsi direlako. Bestalde, begi bistakoa da eguraldi txarra egiten duenean aparkaleku huts asko egoten dela jendeak garajeak erabiltzen dituelako. Hori ikusita, herritarrak autoak garajean sartzera animatzeko kanpaina jarri dugu martxan. Autoa garajean sartzen duen herritarrari garajearen OHZn (ondasun higiezinen gaineko zerga) hobari bat emango zaio. Ekimena berria den arren, oso harrera ona izaten ari da, eta herritar ugari hurbildu da udaletxera programan parte hartzera. Aste honetako datuak falta diren arren, guztira 416 herritarrek bat egin dute gure planarekin. Dena den, erdigunetik gertu beste aparkaleku batzuk sortzeko plana

"Sistema mistoa izaten ari den emaitzekin oso pozik gaude"

"Autoa garajera sartzeko ekimena oso erantzun ona izaten ari da"

"Administrazio digitala abiarazteko lanketa sakona egiten ari gara"

garatzen gabiltza.

Etxebizitzen arazoari irtenbidea emateko asmoz, alokairu soziala bultzatzeko partida garrantzitsua sartu duzue aurrekontuetan.

Bergaran arazo bat daukagu; alde batetik, alokairuan etxeak hartzeko eskaera dago, eta bestetik, etxebizitza huts ugari dauzkagu. 2013an inor erroldatu gabeko 800 etxe geneuzkan; horrek ez du esan nahi guztiak hutsik daudenik, baina oraindik ere etxebizitza asko dira hutsik daudenak. Etxebizitza izatea oinarrizko eskubide bat da, eta guk eskubide hori bermatu nahi diegu herritarrei. Kontziente gara etxe-jabeek erreparoak dituztela euren etxeak alokairuan emateko eta kasu batzuetan nahiago dutela etxea hutsik mantendu norbaiti laga baino. Guk prozesu hori guztia erraztuko duen alokairu soziala sustatzeko plana sortu dugu. Gainera, joan den urtean OHZren (IBI) errekarguarekin batutako dirua plan horretan inbertitzeko asmoa daukagu. Jaurlaritzarekin hitzarmen bat ere lantzen gabiltza eta laster publiko egingo dugu programa.

Udalaren antolaketan ere aldaketa handiak bultzatzen ari zarete.

Udalean sartu ginenean konturatu ginen antolaketa mailan bazegoela zer hobetu; horregatik, Eudelen laguntzarekin, teknikariekin parte hartze prozesu bat bultzatu genuen. Hausnarketa horren ondorioz antolaketan hainbat aldaketa proposatu ziren: antolaketa arduradun bat izendatzea, enpresa pribatuan gerentearen antzeko funtzioak dituena; eta aholkulari talde bat, interes orokorreko gaiak jorratu eta horren inguruan gobernu taldeari aholkuak ematen dizkiona. Bestalde, administrazio digitala martxan jartzeko beharra dela-eta Udalean izaten diren prozesuak ere definitzen gabiltza. Honek hausnarketa sakon batera eroan gaitu; gauzak nola egiten diren pentsatzeaz gain, gauzak nola hobetu birpentsatzen ere bagabiltza. Hausnarketa honek beronek BAZ bat jartzeko ere balioko digu. Langileak proiektuan guztiz inplikatu dira eta ahalegin handia egiten dabiltza lehen fase hau ahalik eta osoena izan dadin. Administrazio digitala oso arlo garrantzitsua da, eta Bergaran tramiteak egiteko aukera ematea baino gehiago, Udala bera gerturatu nahi dugu *www.bergara.net* webgunearen bidez.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Agorrosingo gimnasioa txiki geratu da; handitzeko asmorik?

"Kontziente gara Agorrosingo gimnasioan espazio arazoak daudela; dena den, hori bizkor konpontzea espero dugu. Gaur egun Agorrosinen dagoen ludoteka Oxirondo azokan egingo dugun aisialdi-gunera aldatzen dugunean, eraikinean espazio handi bat libratuko da. Eraikinean sortuko den espazio berri hori kirol jardueretara bideratzeko asmoa dugu".

Mugertzako inguruak hobetzeko planik?

"Mugertzako gainean ordenantzatik kanpo zegoen eraikin bat bota genuen eta beste bat ere egoera berean dago, baina eraikineko jabeekin egin beharreko tramiteak luzeak eta nekezak izan ohi dira. Hortik Ibaiondo aldera doan zaldain bat egiteko lanketa ere abiarazi dugu, baina UR agentziak oso araudi zorrotza dauka, eta gai horrek ere luze joko du".

Konpontzeke dauden bidegorri tarteak noiz egokituko dira?

"Elorregi eta Bergara bitarteko zatia Aldundiaren ardura da, eta datorren astean ibilbidearen inguruan hitz egiteko teknikari bat etorriko da Donostiatik. Dikar inguruan, aldiz, auzia konplexuagoa da, ondoko enpresako kamioiak ibiltzen baitira bertan. Hala ere, aurten helduko diogu gai horri. Agian ez dugu plana bere osotasunean garatuko, baina bultzada bat eman nahi diogu".

Bergarako ekipamendu kulturalak hobetzeko asmorik?

"Bergararren kezka handienetako bat da hori. Udaletik sustatutako ideia lehiaketan ere jaso genuen erabilera askotariko kultura espazio bat sortzeko proposamena. Oraingoz, baina, kirol erabilera emateko eraiki zen frontoia erabiltzen dugu. Hango akustika hobetzeko, gainera, kaxa beltz bat alokatzen dugu, eta, horrela, hobeto entzuten dira musika emanaldiak".

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Erakusketan ikusi ahal izango den Bergarako familia bat. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA. TORIBIO JARUREGI FONDOA. EGILEA: TORIBIO JAUREGI

Herriko emakumeak gerra garaian, argazkitan

Aroztegin erakusketa eta beste zenbait ekintza Martxoaren 8a aldarrikatzeko

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar da Emakumearen Nazioarteko Eguna eta bereziki berdintasuna aldarrikatzeko, zenbait ekintza egongo dira gurean. Alde batetik, *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta Frankismoan* delako erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin eta martxoaren 23ra arte egongo da ikusgai. Udal Artxiboak antolatutako erakusketa hori Udalaren Berdintasun Planean txertatzen da eta helburua da emakumearen bizimodua, eginkizunak eta eguneroko bizitza erakustea, argazki eta objektuen bidez. Zehazki erakusketa osatzen dute Arrasateko Ekin Emakume Elkarteak egindako zazpi argazki -panelek –Debagoieneko argazkiak dira–. Bestetik, Bergarako Udal Artxiboak Bergarako argazkiak eta zenbait objektu gehitu ditu; eta azkenik, Badihardugu elkarteak emakumearen inguruan egindako bideo didaktikoa jarriko da.

Udal Artxiboak egindako ekarpenari dagokionez, emakumearen presentzia eta lana bistaratu nahi izan dute, gerra zibilaren eta Frankismoaren garaian emakumea nola bizi zen azaltzeko eta orduko gizartea nolakoa zen ezagutzeko. Kontuan izan behar da, bestalde, Bergarako berezitasunetako bat herrian izan den industria-mota dela, ehungintza. Bertan emakume askok lan egiten zuen, beste lantegietan ez bezala.

Tea hartzeko deia

Auzoko egitasmoaren baitako Emakumeon Lagun Taldeak tea hartzeko deialdi irekia egin du bigarrenez Martxoaren 8aren bueltan. Iaz egin zuten lehenengoz eta aurten errepikatu egingo dute. Interesa duten emakume guztiek har dezakete parte, jatorri guztietakoek, integraziorako bidean halako uneak partekatzea garrantzitsua da-eta. Hilaren 11n, batuko dira, kultura etxeko ganbaran.

Gaztetxean ekintza ugari

Gaztetxean ere zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, Debagoieneko bertsolari gazteen saioa egongo da 22:00etan, dohain –ikus 33 orria.

Bihar, zapatua, autoestimua lantzeko tailerra egongo da, 17:00etan; poteo feminista, 19:00etan; eta kantu-afaria, 21:30ean.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Komando Piperrak - Red Piranhas	9-3
Red Piranhas - Birgerias	Bertan behera
T.C.C. - Minimou Taldie	6-3
Birgerias - Irama Elgeta	4-7
Diego Valor - Beti Jai	3-0
Diego Valor - Poteo Izarrak	4-4

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Poteo Izarrak	41	16
2	Minimou Taldie	39	16
3	Diego Valor	38	15
4	T.C.C.	24	16
5	Red Piranhas	18	14
6	Komando Piperrak	18	16
7	Brunet	17	15
8	Irama Elgeta	17	16
9	Beti Jai	12	15
10	Birgerias	3	15

PARTIDUAK

MARTXOAK 9, DOMEKA

16:00 Diego Valor - Brunet / **Beti Jai**

17:00 Brunet - Beti Jai / **Diego Valor**

18:00 Beti Jai - Birgerias / **Brunet**

19:00 Komando Piperrak - Irama Elgeta / **Beti jai**

20:00 Minimou Taldie - Poteo Izarrak / **Komando Piperrak**

Bikote-krisiaren aurrean umeei nola berba egin azalduko dute

M.B. | BERGARA

Bikotean krisia: zer eta nola hitz egin seme-alabei delako berbaldia izango da martxoaren 11n, 18:00etan, Irizar jauregian. Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak antolatu du eta Etxadiko adituek, hau da, Orientazio Psikologikorako Zerbitzua eskaintzen duten adituek emango dituzte azalpenak.

Berbaldia euskaraz izango da, eta, Prebentziorako Zerbitzutik aurreratu dutenez, interesatuek izena ematea eskertuko dute, gela egokia aukeratzeko. Horretarako, 943 77 91 26 telefono zenbakira dei egin daiteke. Ikasturtean barrena halako hitzaldi gehiago ere antolatuko dituztela aurreratu dute zerbitzu beretik.

Era berean, eta modu laburrean, Udaleko Prebentzio Zerbitzuak duela sei urte martxan jarritako Familiendako Orientazio Psikologikorako Zerbitzuaren inguruko informazioa ere emango dute batzarrean.

Umeen aisialdia hizpide

Hilaren 15ean, bestalde, Azoka Bergaratzen ekimenaren baitan, gurasoei zuzendutako *Haurren aisialdia ezagutu, hausnartu eta parte hartu* delako berbaldia egongo da Zabalotegin, 10:00etan. Zaintza zerbitzua egongo da.

TXOMIN MADINA

Fiare banka etikoko bazkide

Fiare banka etikoko bazkide egin da Udala. Eguaztenean sinatu zuten hitzarmena eta bazkide egiteko 1.800 euroko ekarpena egin du Udalak. Bazkide eginda Fiareri banka etikoko proiektu kooperatiboa garatzen lagundu nahi diote; asmoa da, gainera, etorkizunean Fiareren bezero ere izatea. Baita boluntario taldea sortzea ere.

OHARRAK

SAN JOXEPEK URTEKO BATZARRA DEITU DU

Erretiratuen elkarteak hilaren 27an egingo du bazkideen urteko batzarra. Bertan, Zuzendaritzako hiru kide berri izendatuko dituzte, eta, horretarako, hautagaitzak aurkezteko epea gaurtik hilaren 17ra egongo da zabalik.

IBILGAILUEN ZERGA ORDAINTZEKO EPEA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren 2014. urteko errolda onartu du Udalak. Ordaintzeko borondatezko epea ireki dute eta maiatzaren 17an bukatuko da. Helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 17an kargatuko dira.

Udalak ez dihardu telefono bidezko inkestarik egiten herritarren artean

Telefono bidezko galdeketa egiteko deia jaso dute azken egunetan zenbait herritarrek, euren joera politiko eta pertsonalei buruz. Galdeketa horien atzean Udala ote dagoen galdetuta hainbat herritar hurbildu da Udalera, eta, hori dela eta, Udalak adierazi nahi izan du ezetz, ez dela ari herritarren artean inolako galdeketa telefonikorik egiten.

Gaur bukatuko da konpostatzeagatik hobaria eskatzeko epea

Udaletik aditzera eman dutenez, gaur, martxoak 7, amaituko da konposta egiteagatik bonifikazioa eskatzeko epea. Bonifikazioa %25ekoa izango da zaborraren tasan. Bada, edozein zalantza izanez gero, 943 77 91 72 edo 943 77 91 50 zenbakira deitu edo *konpostajea@bergara.net* helbidera idatz daiteke.

Jardunek antolatutako bertso afaria Artatse elkartean hilaren 28an

Jardunek bertso afaria antolatu du martxoaren 10erako Jokin Labaien eta Ane Zuazubizkar bertsolariekin. Afaria 21:30ean izango da eta aurretik, 20:00etan, bertso-poteoa egongo da. Txartelak astelehenetik aurrera eros daitezke 12 eurotan –10, ikasle eta langabeek– Arranon, Pol-Polen eta Jardunen.

'Kafe-konpon': beste saio bat eguaztenean, San Joxepen

Etxeko tresnaren bat matxuratuta izan eta konpondu nahi duenak horretarako aukera izango du hilaren 12an San Joxeperen egoitzan egingo den *Kafe-konpon* saioan. Kafea hartu bitartean, hondatuta dituzten irrati, erloju zein bestelako tresnak konpontzeko aukera izango dute parte -hartzaileek, 16:00etan.

Jardun elkarteak urteko batzarra deitu du hilaren 14rako

Jardun Euskara Elkarteak bazkideen urteko batzarra egingo du datorren egubakoitzean, hilaren 14an, kultura etxean. 18:30erako da lehen deialdia eta 19:00etarako bigarrena. Zuzendaritza taldeko kide batek aldaketa onartzeaz gain, 2013ko egitasmo eta kontuen berri emango dute eta, baita 2014koena ere.

Martxoaren 8a, aldarrikapena eta ospakizuna

Atzoko zineklubeko filmarekin hasita, askotariko ekintzak egingo dira datozen egunetan herrian

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aldarrikapena eta ospakizuna elkarrekin ikusi eta adieraziko dira Martxoaren 8ari begira antolatu diren ekitaldietan. Izan ere, hitzordu asko antolatu dituzte herriko hainbat eragileren eskutik eta jorratuko diren gaiak ere denetarikoak izango dira.

Bazkaria eta bakarrizketa

Bihar eguerdian, esaterako, elkarretaratzea egingo dute plazan *Emakumeon borroka eta elkartasun eguna* lelopean. Ondoren, kalejira izango da eta horren ostean, Txantxiku Emakumeon bazkaria egingo dute Antixena gaztetxean.

Iluntzean, berriz, *Emakumeak protagonista* izeneko bakarrizketa egingo du Ixabel Agirresarobek. "Idatzita dauden istorioak kontatuko ditut. Horietako bi, esaterako, Toti Martinez de Lezeak idatzitakoak dira. Baina badira Azkuerenak eta Errose Bustintzarenak ere. Emakumeak dira ipuin horien protagonistak, eurek egindako gauzengatik aurrera egin dutenak. Hau da, egoera jakin batzuetan erabaki dutenak edo egin dutenak du garrantzia, erabaki hori eurek hartu dutelako, eurak izan zirelako euren buruaren jabe", dio Ixabel Agirresarobek.

Bakarrizketa soila ere ez dela izango aurreratu du Agirresarobek: "Teknikari baten laguntza ere izango dut eta efektu batzuk sartuko ditu. Antzerki ukitua izango du ikuskizunak".

Gaztelekuan izango da, 19:00etan, eta gaztetxoenetatik hasi eta helduenganaino zuzenduta egongo da. "Denak daude gonbidatuta", dio.

Ixabel Agirresarobe aktorea antzezten. | GAZTELEKUA

Zortzintxiketan

Bestalde, gaur, egubakoitza, egingo da Martxoaren 8aren bueltan Abixaran taldeak antolatutako II. herri antxintxikaldia. 18:00etan izango da Foruen plazan eta 2,5 kilometroko ibilaldia prestatu dute korrikalariendako. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Abortua eta minbizia

Abixaran taldearekin batera, Udala, Andraitz, Oñatiko Emakume Asanblada eta Elkarhezitzen ere batu dira biharko egunaren bueltako ekintzen antolatzaileen zerrendara.

Honela, asteburu honetako ekintzez gain, datozen egunetan egingo diren hitzaldi, ikastaro eta tertuliak ere antolatu dituzte, besteak beste.

Hitzaldiei dagokienez, astelehenean, abortuaren lege berriari buruz mintzatuko da Begoña Zabala abokatu feminista nafarra. Hilaren 18an, berriz, bularreko minbiziari buruzko hitzaldia egingo dute Katxalin elkarteko kideek. *Abortuartea* erakusketa ere egingo dute eta udal langileek *Hizkuntza eta irudi ez sexistaren erabilpena* izeneko ikastaroa egingo dute.

Arrikrutzeko kobak asteburu honetan zabalduko dituzte berriz

O.E. | OÑATI

Arrikrutzeko kobak zabalik egongo dira berriz asteburu honetatik aurrera. Koben Eguna ospatuko da, gainera, eta ospakizun horrekin batera ekingo diote urte berriari Arrikrutzeko kobek.

Lehengoak

Otsailean itxita egon dira kobak eta bihar, zapatua, zabalduko dituzte. Zerbitzua, gainera, orain arte eskaini dutenek emango dute gero ere.

Udalaren asmoa zen Arrikrutzeko eta Turismo Bulegoko zerbitzua bateratu eta biak enpresa berak eskaintzera. Horretarako, deialdi publikoa egin zuen. Bi enpresa aurkeztu ziren, baina batek ere ez du lortu esleipena. Horrenbestez, luzatu egin zaie lan kontratua orain arteko langileei. Deialdi berria egin arte, Arrikrutzeko eta Turismo Bulegoko zerbitzuak enpresa ezberdinek kudeatuko dituzte, orain arte bezala.

Arrikrutz kobak, barrutik. | GOIENA

Erreserbak

Kobak bihar zabaldu arren, gaurtik aurrera egin ahal izango dira erreserbak (egubakoitza). Horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 08 20 00. Haitzuloko bisitaldiak ordubete irauten du eta euskaraz eta gazteleraz eskaintzen dituzte.

Mikel Biain alkatea Goiena telebistan datorren martitzenean

O.E. | OÑATI

Oñatiko alkatea Goiena telebistan izango da datorren martitzenean, hilak 11, 22:00etan. *Harira* saioa hasi da berriro, eta, bailarako alkateen errondan, Oñatikoaren txanda izango da. Mugikortasun foroa, atez atekoa, aurrekontuak, aurten egingo dituzten inbertsio nagusiak eta beste hainbat gairen inguruan jardungo du.

Alkateaz gain, baina, oposizioan dagoen alderdiak ere, EAJk, ahotsa izango du saioan, eta, horrela, Lourdes Idoiagak –alderdi jeltzalearen bozeramailea– gobernu jardueraren balorazioa eta galderak egin ahal izango dizkio alkateari.

Mikel Biain, alkatea. | GOIENA

Galderak egiteko

Herritarren galderak ere erantzungo ditu Mikel Biainek eta horiek egiteko bide hauek erabili behar dira: *harira@goiena.com*, *#harira* eta 688 69 00 17 telefono zenbakia.

Ludoteka ibiltaria hasiko da bihar, auzorik auzo

O.E. | OÑATI

Ludoteka ibiltaria jarriko du martxan Txaloka ludotekak asteburu honetan. Hain zuzen ere, helburua da ludotekarik ez dagoen auzoetara hurbildu eta hango umeei zerbitzu hori eskaintzea urteko asteburu batzuetan, behintzat.

Bada, Olakua auzoan hasiko dute proiektu hori. Auzo horretako dorre aurreko kirol kantxan egingo dute datozen lau zapatuetan, 11:30etik 13:30era. Eguraldi txarra eginez gero, dorre barruan antolatuko dute ludoteka ibiltaria.

Zapatu bakoitzean askotariko jolas eta eskulanak egingo dituzte eta 3 eta 10 urte arteko umeendako izango dira. Ekitaldi irekia izango da; hau da, ez da derrigorrezkoa izango Txalokaren erabiltzaile izatea.

Proiektu horrekin, Txaloka ezagutarazi eta auzoak biziberritu gura dituzte Txatxilipurdiko lagunek. Olakua auzoan ekingo dio aurtengo ibilbideari ludoteka ibiltariak, eta, esperientziaren balorazioa ona izanez gero, beste auzo batzuetara ere zabalduko dute; Zubillagara edo Errekaldera, kasu.

Giza katerako metroak saltzen

O.E. | OÑATI

Oñatiko Gure Esku Dago taldeko kideak ekainaren 8an egingo den giza katearen aldeko metroak saltzen egongo dira aste honetan Santa Anan. Eguenean goizetik eta gainerako egun guztietan arratsaldez egongo dira, bi orduz.

Horrekin batera, Erabakitteko Eskubidiaren Aldeko Oñatiko adierazpenaren berri ere emango dute datorren astelehenetik egubakoitzera bitartean Santa Ana aretoko kristaldegian.

Errosaixo Bixamonera arte, agur mozorroei

TXOMIN MADINA | OÑATI

Esan ohi da oñatiarrek Errosaixo Bixamona izaten dutela mozorrotzeko eguna, baina Aratusteei ere ez diete muzinik egiten. Argi geratu da hori egunotan, eguraldia, lagun partez, etsai izan arren

Egubakoitzean hasita

Txantxiku Ikastolako eta Urgain Herri Eskolako umeak joan den egubakoitzean mozorrotu ziren. Txantxiku Ikastolako txikitxoenak barraskilo, erle, matxingorringo, kilker eta tximeleta jantzi ziren; Lehen Hezkuntzakoak, aldiz, cowboy. Urgaingoak, bestalde, galdaragile jantzi ziren, Hungariako pertzegileen etorrera antzeztu zuten-eta. Eguraldiagatik, bi ikastetxeetakoek kiroldegian egin behar izan zuten jaia.

Zapatuan 200 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte Oñatiko Inauteriak taldeak bigarrenez antolatutako ekintzetan. Hainbat berrikuntza izan dituzte aurten; tartean, pertsonaia berriak: pregoilaria eta borreroak.

Martitzenean, ekitaldi ugari

Aratuste-martitzenean herensugez bete zen Elkar Hezi ikastetxea, Euskal Herriko mitologiako pertsonaia hori aukeratu zuten-eta goizean morrotzeko.

Arratsaldean, Kuko, Truku eta Bolenwaider pailazoek goraino bete zuten Gaztelekua *Xelebrekeriak* izeneko ikuskizunarekin. Hasierako plana aldatu behar izan zutenak Elizbarrutiko Misio Taldekoak izan ziren, plazan beharrean kontzejupean banatu zuten -eta txokolate solidarioa. Gustura zeuden izandako erantzunarekin: 300 baso-txokolate inguru banatu zituzten. Bertatik ateratako dirua Haitin duten proiektu berri baterako izango da.

Iluntze partean, Joselu anaiek alaitu zuten euren musikarekin eguraldiak goibeldutako eguna.

Herensugearekin batera ibili ziren Elkar Heziko ikasleak. | ELKAR HEZI

Pailazoak gaztelekuan. | IÑIGO BIAIN

Txantxiku ikastolako gaztetxoak, cowboy jantzita. | TXANTXIKU IKASTOLA

Kontzejupean banatu zuten txokolate solidarioa. | AMAIA UGARTE

Urgaingo ikasleak galdaragilez mozorrotuta . | URGAIN

Juan Karlos Igartuaren omenezko lizarra Aloñan

50 lizar landatu zituzten joan den domekan Aloñan, Aloinako Lagunak taldeak urtero egin ohi duen zuhaitz landaketan. 30 lagun inguru joan ziren irteera horretara. Bada, lizarretako bat taldeko adiskide zen Juan Karlos Igartuaren omenez landatu zuten, bere lagun eta senide batzuk ere ondoan zituztela.

ALOINAKO LAGUNAK

Txandako dendariek kanpora aterako dituzte produktuak

Txanda elkarteak antolatuta, *outlet*-a egingo dute gaur eta bihar elkarteko kide diren 30 komertzio inguruk. Gaur, egubakoitza, goiz eta arratsalde, eta bihar goizean, denda kanpora aterako dituzte euren produktuak eta salneurri berezian salduko dituzte, beherapen handiekin horietako asko. Denden ohiko ordutegian egingo dute *outlet*-a.

Aurtengo *outlet*-arekin batera, gainera, txu-txu trena jarriko du Txandak, bezeroak herrian egongo diren gune guztietara joan ahal izateko. Bost geltoki izango ditu.

Sexologiaz aholkatuko dute gaztelekuan, gaurtik aurrera

Sexologia aholkularitza zerbitzua egongo da gaurtik aurrera gaztelekuan. Desirak enpresak emango du eta 12 urtetik gorakoendako izango da, baita guraso eta irakasleendako ere.

Egubakoitzetan egongo da zerbitzu hori, 17:30etik 19:30era, eta doakoa izango da. Lagun taldeka ere egin ahal izango dira kontsultak eta aholkularia ere aukeratu ahalko da, gizonezkoa edo emakumezkoa. Telefonoz, e-postaz (*txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com*), Facebookez eta Twitterrez ere galdetu ahalko da.

Josten ikasteko ikastaroa antolatu du Udalak

Oinarrizko joskintza ikastaroa antolatu du Udalak. Erakutsiko dute, besteak beste: josteko makina nola erabili, botoiak nola josi, praka-barrenak nola hartu eta telazko nezeser bat nola egin. Dorleta Fernandez izango da irakaslea eta martxoaren 14tik apirilaren 11ra izango da, egubakoitzetan, 19:00etatik 21:00etara. Izena kultura etxean eman behar da martxoaren 12a aurretik. Matrikula 25 euro da, langileendako; besteek, doan.

'Oñati 3zirik' diskoa aurkeztuko dute 15ean Antixena gaztetxean

Oñati 3zirik diskoa ekoiztu du gaztetxeak eta datorren zapatuan, hilak 15, aurkeztuko dute Antixenan. Diskoan parte hartu duten bederatzi taldeek joko dute ekitaldi horretan. 21erako, berriz, bertso hardcore afaria antolatu dute. Antixena gaztetxean martxorako antolatu dituzten ekintzetako bi dira horiek. Gaur, bestalde, Mario Zubiagak hitzaldia egingo du, 19:00etan, eta domekan asteroko bideo emanaldia egongo da.

Egonkortuz eta indarra hartuz doa Oñatiko kenpo taldea

Duela bi urte sortu zuten taldea eta astean birritan elkartzen dira institutuan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Astean birritan elkartzen dira kenpo arte martzialeko borroka gustuko duten kirolari oñatiarrak, Zuazola Institutuko beheko gimnasioan. "Orain dela bi urte inguru hasi ginen, eta denok harrapatu gaitu, oso gustura etortzen gara", dio Miguel Anjel Palacin *Pala*-k.

Defentsa pertsonala

Oñatin taldetxoa osatu arte Eskoriatzara joaten ziren hainbat oñatiar kenpoa praktikatzera. Eta egun Oñatira datozen irakasleak handik datoz. *"Full denfense* izeneko diziplina lantzen dugu eta adin guztietakoak etortzen dira. Izan ditugu 5 urtekoak ere, esaterako", dio Iñaki Zubillaga irakasleak. "Burua erabiliz egiten dugu borroka, biolentziarik gabe. Oso kirol osatua da kenpoa, kontzentrazioa eskatzen duena eta ondoko lagunak errespetatzen jakin behar duena", gaineratu du Zubillagak.

Zubillagarekin batera Rafa Carriet da Oñatira etortzen den beste irakasle bat. "Kirol aldea duen arte martzala da kenpoa. Baina ez du abilidade fisiko konkreturik eskatzen. Gorputza lantzen eta prestatzen du lesiorik, zauririk, ez izateko. Gainera, arazoak nola saihestu ere erakusten du. Erreflexuak, estrategia eta antzerako arloak jorratzen ditu. Defentsa pertsonala lantzeko egokia da oso, eta aproposa da, esaterako, emakumeendako", dio Carrietek.

Kirola

Aldi berean, arte martzialek sortzen duten errezeloak uxatu gura ditu *Pala*-k: "Kenpoa ere kirola da, baina maila baxukoa dela uste dute askok eta ez diote duen garrantzia eman gura. Alternatiboa den zerbait balitz bezala ikusten dute, baina ez da hala".

Kenpoko taldekide batzuk Zuazola institutuko gimnasioan. | RAFA CARRIET

MIGEL ANJEL PALACIN 'PALA' | BORROKALARIA

"Kirolzalea den edonorendako da aproposa kenpoa egitea"

OIHANA ELORTZA.

Lagun baten bitartez hasi zen *Pala* kenpoa egiten, eta ez zaio damutu. Joan den urtean, gainera, bi domina ekarri zituen Espainiako txapelketatik, urrezkoa bata eta brontzezkoa bestea.

Gomendio ona egin zizun lagunak orduan?

Bai, bai. Boxeoan eta gimnasioan ibili izan naiz ni beti, eta orain baita kenpoa egiten ere. Asko gustatu zait, pozik egiten dut.

Ze osagarri ditu?

Oso kirol osatua da kenpoa. Diziplinatua. Arlo fisikoa ez ezik, bestelakoak ere lantzen ditu: mentala, besteekiko errespetua, lagunen arteko balioak...

Zer behar da kenpoa egiteko?

Ezer berezirik ez. Esan gura dut ez duzula oso ona izan behar korrika egiten edo saltoak egiten, adibidez. Denfentsa pertsonal integrala, osoa, lantzen du kenpoak, horrek dakarren guztiarekin. Hau da, teknika behar da, azkartasuna, indarra, burua erabiltzen jakitea... Horiek guztiak, baina batera.

Kenpoa praktikatzen lantzen da kenpoa, beraz?

Bai. Astean birritan elkartzen gara gu eta hainbat proba lantzen ditugu: eskuak lantzekoak, hankak lantzekoak, teknikak, era askotako kata ikastaroak...

Norendako da aproposa kirol hau?

Kirolzalea den edozeinendako. Oso osatua da, dena lantzen du. Bestalde, defentsa pertsonala lantzen duen aldetik ere, emakumeendako oso gomendagarria da. Eskoriatzan, esaterako, emakumeek bakarrik osatzen duten taldea elkartzen da eguazten guztietan.

Iazko esperientzia ikusita, aurten ere joango zara Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetara?

Hori da asmoa, bai. Euskal Herrikoa martxoaren bukaeran izango da, Debagoienean, eta Espainiakoa, berriz, apirilean, Linaresen.

Nor gonbidatu gura duzu kenpoa probatzera?

Astelehenetan eta eguaztenetan elkartzen gara, 18:30etik 19:30era, eta herritar guztiei esan gura diet etortzeko eta probatzeko.

ARATZ LOSADA

Ezkondu eta Tenerifera bidaia

Etxe Aundi jatetxeak Tenerifera bidaia bat zozkatu du joan den urtean eztei-bazkaria jatetxe horretan egin zuten bikoteen artean. Nerea Mendiolak eta Gorka Otxotorenak osatzen dutena izan zen bikote saritua. Argazkian ageri dira biak, Etxe Aundiko ugazabaren eta bidaia agentziako ordezkariaren ondoan. Joan den egubakoitzean jatetxean egindako ardo dastatzean egin zuten zozketa. Zorionak!

75 kirolari baino gehiago egongo dira Oñatin, euskal zirkuituko probarik zaharrenetakoan

Datorren zapatuan, martxoak 15, egingo dute Oñatin duatloia. 23. aldia izango da. Oñatiko duatloia euskal zirkuituko probarik zaharrenetakoa da eta ospe handia du kirolarien artean. 75 lagun baino gehiago izango dira lehian. Laguntzeko, bidali mezua hona: *oinatikoduatloia2014@gmail.com*.

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka

Martxoak 26 eta 27an;
Kulturaten, Arrasaten.

NiNeu / YoMism@ BideoCV lehiaketa antolatu dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:
www.debagoiena.net

www.facebook.com/goiazdebagoiena

www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Bertikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua

Gipuzkoa ekintzailea

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Makina erabiltzen eta muntatzen, biak ikasi ditugu guk"

Imanol Gonzalez eibartarrak Ingeniaritza Mekanikoa ikasten dihardu Mondragon Unibertsitatean. Aurretik, baina, Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi maila ikasi zuen. Robotika lehiaketa bateko partaide ere izan zen Lanbide Heziketa ikasten zuen bitartean.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa eta zer irakatsi dizu?

Makinen artean ikastea eta esperientzia hartzea izan zen onuragarriena, egiten ikastea. Selektibitatea egin nuen, baina nota ez zen behar bezain ona unibertsitatera saltoa emateko; beraz, Lanbide Heziketara jo nuen.

Bidea luzeagoa izan da, baina nire helburua gradu mailako ikasketetara heltzea zen.

Robotek proiektuko partaide ere izan zinen. Zer-nolako esperientzia izan zen hura?

Aberasgarria. Denbora luzea pasatu genuen guztiok batera eta horrek asko batu gintuen. Ikasi ere asko ikasi genuen; izan ere, ikasle eta irakaslez zegoen osatuta taldea eta AEBetara ere joan ginen proiektua aurkeztera.

Aurten beste talde bat ere badabil nik egin nuen proiektu berean lanean.

Zeintzuk dira, zure ustez, unibertsitate eta Lanbide Heziketa ikasketen arteko ezberdintasunak?

Ikerketa aldetik, unibertsitatean gehiago sakontzen da, baina praktikak falta dira. Lanbide Heziketaren ondoren badakizu makina erabiltzen, baina ez

makina muntatzen, esate baterako, eta hori da graduan ikasten duguna. Gainera, orain, eguneroko lana egin behar dut haria ez galtzeko.

Lanbide Heziketaren eta enpresen arteko harremana estua da. Nolatan erabaki zenuen ikasten jarraitzea?

Bizi dugun krisi egoerak eraman nau ikasten jarraitzera. Banuen lana enpresa batean, baina nire prestakuntzan jarraitzea erabaki nuen, etorkizunari begira. Iruditzen zitzaidan ez zela nahikoa goi heziketa tituluarekin. Beharbada, orain lanean egongo nintzateke, baina nork daki lau urte barru non nagoen.

Badaezpada ikasten jarraituko dut, lan merkatuan aukera zabalagoa izate aldera.

Ana Bolinaga alkatea, Maider Aizkorbe –Berdintasun zinegotzia– eta Idoia Elexpuru –Aretxarteko presidentea–. | M.A.

Emakumeen borroka aldarrikatzeko ekitaldiak

- Euskal Herri feminista eraikitzeko konpromisoa hartu du udalbatzak
- Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekintzak aurkeztu dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatu eta egun horren bueltako ekintzak aurkeztu dituzte asteon Ana Bolinaga alkateak eta Berdintasun zinegotzi Maider Aizkorbek. Udalbatzak, gainera, Euskal Herri feminista eraikitzeko konpromisoa hartu zuen astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran, EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartuta.

Emakume eta gizon askeak

Alkateak aipatu du urteetako borrokak gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen duela Martxoaren 8ak, baita emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ere: "Lan merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokian Espainiako bandera ezarrita eta gorputza indarkeria sexistak moretuta".

Hala, feministek urteotan aldarrikatutako eta borrokatutako helmuga gero eta urrunago dagoela jakinarazi du. Egoeraren irakurketa gordinak, baina, etsipenera eraman beharrean, egoeraz jabetu eta erantzuna piztera bultzatu behar gaituela gaineratu du: "Gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi". Eta lanean jarraitzeko dei egin: "Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu, bide horretan lan egingo dugu erakunde publikoetan, elkarteetan, komunikabideetan eta kalean".

Martxoaren 8ko ekitaldiak

Astean hasi dituzte Emakumeen Egunaren bueltako ekitaldiak, tartean zinekluba. Gaur emakumeen boulder topaketa egingo dute Ibarra kiroldegian; baina egun handia bihar da. Aretxarte merkatarien elkarteak antolatu du *Urrats bat aurrera emanez* ekimena; hala, merkatariek euren produktuak saltoki aurrera aterako dituzte eta kaleak koloreekin eta musikarekin girotu. Goiz partean, emakumeen frontenis txapelketari bukaera eman eta sariak ere banatuko dituzte Iturrigorri pilotalekuan. Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko agerraldia izango da ondoren (13:00) Herriko Plazan, eta bukatutakoan mokadutxoa eskainiko dute Gazte Ekimeneko kideek Pagaldaixenean.

Arratsaldea Fun Dantz! jaialdiak girotuko du: 16:30ean, hip-hop ikastaroa; 17:30ean, break dance txapelketaren finalaurrekoak hainbat DJk girotuta; eta 19:00etan, jaialdi nagusia: break dance txapelketaren finalak eta taldekako kale dantzen txapelketa. Jaialdi bukaeran Aretxarteko kideek 20 euroko txartelak zozketatuko dituzte herriko hainbat tabernatan erabiltzeko.

Eta gau partea girotzeko, Esther Uria aktoreak bakarrizketa eskainiko du Pagaldaixenean. Antzerkian, zineman eta telebistan ezagun egin den aktoreak *Urak dakarrena… glu-glu, glu-glu* lana eskainiko du; bizitzaren gorabehera hunkigarriak, atseginak eta deserosoak izango ditu hausnarketa gai beti emakumearen ikuspuntutik eta umorea lagun.

Antzerkia eta ipuin kontaketa

Martitzenean jarraituko dute ekitaldiek, eta Bilboko Luna Llena antzerki taldeak *A trompicones* antzezlana eskainiko du, Arkupen –sarrera, 4 euro–. Kepa Gallego aktoreak zuzenduta, zazpi emakumeren bizitzako pasarte gazi-gozoak taularatuko dituzte, umoreak eta ironiak bat eginik. Emakumeei gertatutako gorabeherekin barre egingo dute ikusleek. "Emakumeekin batera barre egin, eta ez horien lepotik", jakinarazi dute taldekideek. Eta hurrengo zapatuan, hilak 15, Maider Galarraga ipuin kontalariak *Printzesak kontu kontari* saioa eskainiko die neska-mutikoei, Udal liburutegian.

Martxoaren 24an, ostera, Brasilgo emakume nekazarien egoera eta erronkak izango dituzte berbeta gai Arkupen. Hiruatx eta Elkarhezitzen taldeek antolatuta, Debora Nunes izango da hizlaria. Brasilgo MST (lurrik gabeko landa langileen mugimendua) elkarteko kidea da, eta emakumeen eta gazteen prestakuntza eta antolaketa prozesuetan jardun izan du lanean. Hain zuzen Brasilgo emakume nekazari horien bizimoduaren berri ematera etorriko da gurera.

Eskerrak elkarte eta eragileei

Udal ordezkariek, bere aldetik, Kultura, Berdintasun eta Gazteria sailei ekitaldiok antolatzen lagundu dieten taldeei eta eragileei eskerrak eman gura izan dizkiote: Aretxarte merkatarien elkartea; Aretxabaleta kirol elkartea; Gazte Ekimena; Loramendi; Hiruatx; eta Elkarhezitzen.

Frontenis txapelketaren finala

Aretxabaleta kirol elkarteak eta Loramendik, Udalaren laguntzarekin, otsail inguruan abian jarritako Emakumeen frontenis txapelketaren finala ere bihar jokatuko dute. 16 bikotek eman zuen izena, tartean Elgetatik, Gatzagatik eta Bergaratik etorritako jokalariak, eta norgehiagoka biziak izan dira Iturrigorri pilotalekuan zapatu goizetan. Hala, finala ere ikustekoa izango da; Maite Frailek eta Maite Otxoak, Lur Delgadoren eta Lierni Zangituren aurka jokatuko dute, 11:15ean. Aurretik, 10:30ean, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida izango da: Rosa Ojuel eta Lore Martinez, Dorleta Elkorobarrutia eta Ainhoa Gallastegiren aurka. Sari banaketa ekitaldia 12:00etan da.

EGITARAUA

MARTXOAK 7, EGUBAKOITZA

17:00 Txapa tailerra; gaztelekuan.

MARTXOAK 8, ZAPATUA

09:30-13:30 Merkatariek produktuak aterako dituzte saltokien aurrera.

12:00 Emakumeen frontenis txapelketako sari banaketa ekitaldia; Iturrigorri pilotalekuan.

13:00 Agerraldia, Herriko Plazan. Ondoren, mokadutxoa, Pagaldaixenean.

19:00 Fun Dantz! ikuskizuna; kiroldegian.

22:30 Bakarrizketa Esther Uriarekin; Pagaldaixenean.

MARTXOAK 11, MARTITZENA

19:00 *A Trompicones* antzezlana Luna Llena taldearen eskutik; Arkupen.

MARTXOAK 13, EGUENA

19:30 Zinekluba: *81 amama* filma, Arkupen.

MARTXOAK 15, ZAPATUA

11:30 Maider Galarraga ipuin kontalaria: *Printzesak kontu kontari;* liburutegian.

MARTXOAK 20, EGUENA

19:30 Zinekluba: *Todas las mujeres* filma; Arkupen.

MARTXOAK 24, ASTELEHENA

19:00 Hitzaldia: *Brasilgo emakume nekazarien egoera eta erronkak;* Arkupen.

Batzar orokorra dute gaur Basotxoko erretiratuek

M.A. | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du gaur, hilak 7; lehen deialdia 16:30ean da eta bigarrena, 17:00etan.

Iazko batzar orokorreko akta irakurrita eta onartuta hasiko dute oraingoa. Ondoren, 2013ko memoria irakurri eta onartuko dute; baita 2013ko balantzea eta kontuak ere.

Behin horiek eginda 2014ko gestio plana aurkeztuko diete zuzendaritza batzordeko kideek bazkideei, eta orain arte hartutako hainbat erabaki berretsiko dituzte gero. Bukatzeko zuzendaritza batzorde berria osatzeko kideak aukeratuko dituzte. Galderak eta eskaerak egiteko tartea ere egongo da batzar bukaeran, bazkideek zalantzaren bat izanez gero argitzeko.

Extremadurara bidaia

Bestalde, Basotxoko kideak Extremadurara joatekoak dira apirilaren 21etik 27ra. Oraindik leku batzuk libre daude eta izena emateko epea eguenean, hilak 13, bukatuko da. Hauek ikusiko dituzte: Caceres, Plasencia, Guadalupe, Trujillo, Olivenza, Almendralejo, Merida… Prezioa da 400 euro bazkideendako eta 415 euro bazkide ez direnendako.

Alderdi Sozialistako Ainhoa Sagarribaik utzi egin du zinegotzi kargua

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran udal idazkariak iragarri zuen Alderdi Sozialistako Ainhoa Sagarribaik utzi egin duela zinegotzi kargua. Oraingoz, baina, ez dute ordezkoaren izenik eman; PSE-EEko kideak jarriko dira orain harremanetan Udalarekin hori jakinarazteko.

Ainhoa Sagarribairen bigarren agintaldia da, eta Alderdi Sozialistak duen zinegotzi bakarra. Aretxabaletarra da, baina Gasteizen bizi da azken urteotan, eta zinegotzi kargua hartu zuenetik, ekainean beteko dira hiru urte, apenas agertu da udaletxean. Bada, kargua zergatik utzi duen ez du adierazi Sagarribaik.

Domekan 500 neska-mutiko hartzeko gertu daude Zaraiakoak

Mendi ibilaldi neurtua egingo dute Debagoieneko eta Debabarreneko umeek

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gipuzkoako eskolarteko jokoak antolatuta 27. mendi ibilaldi neurtua egingo dute domekan, gurean, Zaraia Mendizale Taldearen arduarapean. Debagoieneko eta Debabarreneko 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei egin diete dei.

Zirkulazioaren ardura izango duen taldea Martin Garai presidentearekin. | M.A.

Lau talde lanean

"Astean gabiltza jasotzen izen -emate orriak, eta badakigu Bergaratik eta Debatik etorriko direla. Azken egunetan jasoko ditugu gehienak eta egunean bertan ere eman ahal izango dute izena", jakinarazi du Zaraiako presidente Martin Garaik. Badaki, gainera, eguraldiak zeresan handia izango duela.

Zaraiako kideek, hain zuzen, buru-belarri jardun dute lanean azken asteotan, eta dagoeneko gertu daukate guztia domekarako. 40 lagunek jardungo dute lanean lau taldetan banatuta: zirkulazio kontuetarako bat, ibilbiderako beste bat, kontrol guneetarako hirugarrena eta koordinazio lanetan ibiliko da laugarrena.

Ibilbide samurrak

Mendizaletasuna bultzatzea eta ondo pasatzea beste helbururik ez du ibilaldi neurtuak. "Kontrol guneak egongo dira baina bertatik pasatu direla ziurtatzeko bakarrik, ez denborak neurtzeko", dio. Hala, neska-mutikoek ez dute "lasterketarik" egin beharrik izango bukatzeko.

Iralabarri plazan elkartuko dira guztiak, eta 09:00etan irten. Bi ibilbide izango dituzte aukeran, bata motza, 11 kilometrokoa, eta bestea luzea, 13 kilometrokoa, "baina oso samur egitekoak biak". Iralabarri plazatik Apotzaga auzora (Eskoriatza) joango dira, eta Latagainetik bueltan Untzillara (Aramaio); bertan egingo dute hamaiketakoa (norberak eroan behar du). Han banatuko dira bi ibilbideak, eta berriz Izurietan elkartu; handik herrira jaitsi eta Iralabarri plazan bukatzeko.

ESANAK

"Kontrol guneetan ez da denborarik neurtuko"

MARTIN GARAI | ZARAIA

Hirugarren aldia

Zaraiak antolatzen duen hirugarren ibilaldi neurtua da, azkena orain dela 10 urte. Garaik ondo gogoan du lehenengoa, ia 1.500 neska-mutiko etorri zirelako, eta horiekin batera begirale mordoa. Azken urteotan behera egin du kopuru horrek, eta aurten 500 bat espero dituzte: "Datozenak datozela gure paraje dotoreak ezagutzera, eta ondo pasa dezatela", dio Garaik.

Pilotalekua kolorez jantzi zuten martitzenean

Iturrigorrin elkartu ziren 2 eta 12 urte arteko 500 bat ume, eta txarangarekin dantzan jardun

M.A. | ARETXABALETA

Bolantak, iratxoak, sorginak, Santa Ageda neska-mutilak, kaldereroak... horiek eta gehiago, 500 neska-mutiko inguru, elkartu ziren Iturrigorri pilotalekuan, Aratuste-martitzenean. Herriko Plazan elkartzerik ez zuten izan euria zela-eta, baina, txaranga doinuak lagun, umore ona izan zen nagusi umeen eta horiek ikustera hurreratutako gurasoen artean.

Arratsaldea, ostera, Eibarko Ustekabe txarangak girotu zuen, eta Txinen hiletarekin agurtu zituzten herritarrek aurtengo Aratusteak.

Txino-dantza egiten 5 urteko neska-mutikoak. | MIREN ARREGI

Santa Ageda neska-mutilak Txinen zerraldoarekin. | MIRARI ALTUBE

Atez atekoaren gainean argibideak emateko beste lau batzar daude

M.A. | ARETXABALETA

Atez atekoaren gaineko argibideak emateko batzarrak egiten dabiltza egunotan herritarrekin. Eta datorren astean beste lau izango dira. Batetik, argibide orokorrak ematen dabiltza: atez atekoaren funtzionamendua, otarre kopurua... Eta bestetik, atarte bakoitzeko zintzilikarioak non kokatuko dituzten proposamenak egiten. Ondoren, 15 bat egun izango dituzte bizilagunek hori eztabaidatzeko eta, hala iritziz gero, beste proposamenen bat egiteko.

Arkupeko erakusketa aretoan ere herrian jarriko diren zintzilikario guztien gaineko proposamenak jarri dituzte ikusteko; planoak eta kokaguneen argazkiak daude.

INFORMAZIO BATZARREN GAINEKOAK

4. BATZARRA

Eguna: martxoak 10, astelehena.

Ordua: 10:00etan, gazteleraz; 18:30ean, euskaraz.

Kaleak: Belorrieta auzoa, Mitarte kalea, Andramari auzoa, Errekabarren kalea, Ilargi plaza eta Iralabarri plaza.

5. BATZARRA

Eguna: martxoak 11, martitzena.

Ordua: 10:00etan, euskaraz; 18:30ean, gazteleraz.

Kaleak: Araba ibilbidea, Loramendi kalea eta Solohandi kalea.

6. BATZARRA

Eguna: martxoak 12, eguaztena.

Ordua: 10:00etan, gazteleraz; 18:30ean, euskaraz.

Kaleak: Bizkaia kalea, Gipuzkoa plaza, Nafarroa kalea, Zaraia kalea, Gorbeia kalea, Aralar kalea, Bainuetxe kalea eta Markole auzoa.

7. BATZARRA

Eguna: martxoak 13, eguena.

Ordua: 10:00etan, gazteleraz; 18:30ean, euskaraz.

Kaleak: Txarapea ibilbidea.

8. BATZARRA

Eguna: martxoak 19, eguaztena.

Ordua: 11:00etan; 15:00etan.

Deituak: Industria jardunak, merkatariak, ikastetxeak, elkarte gastronomikoak eta mojak.

Zazpi karateka Eibarko txapelketan

Eskola arteko karate txapelketa jokatu dute Eibarren UDAko zazpi gaztetxok, bikain jardun ere. Odilo Vazquez entrenatzaileak guztiak zoriondu ditu, eta lanean jarrai dezaten animatu, martxoaren 23an Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute-eta Azkoitian.

ODILO VAZQUEZ

Gorputz perkusio saio bi antolatu ditu Jaiki elkarteak eta izen-ematea zabalik dago

Body percussion edo gorputz perkusio ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak martxoko bi zapatutan egiteko (17:00-20:00), kuartel zaharrean: 15ean eta 29an. Helduendako dira saioak, 16 urtetik gorakoendako, eta gehienez 12 lagun onartuko dituzte. Izen -emate epea zabalik daukate oraindik; azken eguna martxoaren 12a da. Hona hemen izena emateko bideak: idatziz, *jaikielkartea@yahoo.es;* edo deituta, 943 53 43 96. Prezioa, 20 euro; langabeek eta ikasleek, 15 euro.

Sergio Lopez de Landatxe

Gasteizko Turukutupa musika eta antzerki taldeko Sergio Lopez de Landatxe (Gasteiz, 1979) izango dute irakasle bi saio horietan. Perkusio etnikoan, gorputz perkusioan eta perkusio didaktikoan prestakuntza jasotakoa da Madrilen, Kuban eta Gasteizen, eta hainbat proiektutan jardun izan du perkusio-jole; besteak beste, Rezikletas, Gasteiz Big Band eta Ortophonk proiektuetan.

Oraingoan, perkusio doinuak eta dantzak uztartuko ditu Jaikiko kideekin, eta munduko hainbat erritmorekin gorputz mugimenduak landu.

Hilaren 11n jakinaraziko dituzte bilketa puntuak

Erakusketa zabalduko dute Ibarraundin behin betiko bilketa guneekin

M.B. | ESKORIATZA

Aurrera doaz atez atekoa herri osoan jartzeko pausoak. Otsailaren 27ra arte bilketa puntuen gaineko alegazioak eta proposamen berriak egiteko aukera izan zuten eskoriatzarrek, eta, jasotako eskaerak aztertu ostean, Udalak gaur arte jarri du erantzuteko epea (egubakoitza). Denera, 40 alegazio aurkeztu dira; 28 osorik edo partzialki onartu dituzte.

Dagokienei jakinarazi eta martitzenean, hilak 11, erakusketa zabalduko dute Ibarraundin, hondakinen bilketa puntuen behin betiko kokapenarekin. Hilaren 13ra bitartean egongo da horren gaineko informazioa ikusgai, museoan bertan dagoen informazio bulegoaren ordutegian: goizez, 10:00etatik 14:00etara; eta arratsaldez, 15:00etatik 19:00etara.

Ontziak, hilaren 19tik aurrera

Jarraian, sistema erabiltzen hasteko beharrezkoak diren edukiontziak eta gidak banatuko dituzte: martxoaren 19tik 26ra herriguneko etxebizitzetan, modu antolatuan; eta egun horretatik apirilaren 2ra, komertzio, industria eta landaguneetan. Bestalde, Intxaurtxuetan, San Pedron eta Gaztañadui kaleko 27 eta 29. atarietan egindako proba pilotuan parte hartu dutenek edukiontzi marroiaren giltza itzuli beharko dute apirilaren 1ean, 2an edo 3an; eta hondakin organikoarendako bigarren ontzia jaso. Zintzilikarioak, ostera, astelehenean, hilak 10, bertan jartzen hasiko dira udal brigadako langileak. Edukiontzi batzuk tokiz aldatu beharko dira, eta, beraz, pazientzia eskatu du Udalak.

PSE: "Erabakia errespetatu"

Bestalde, Udal Gobernuak sistema berria jartzeko lanean diharduen bitartean, PSE-EEko udal taldeak "atez atekoaren kontrako jarrera errespetatzeko" exijitu dio prentsa ohar baten bidez. Otsailaren 23ko "adibide demokratiko eta irmoarengatik" zorionak eman ditu, "modu zabal eta baketsuan" atez ateko sistema baztertu izanagatik. Eta, esan bezala, exijituko du "Udaletik hasita, erakundeek erabakia errespeta eta gauza" dezatela.

Jose Luis Cantero zinegotzi sozialistak berretsi egin du bere alderdiak sistema horrekiko duen kontrakotasuna, "Udalari hainbat mozio bitartez helarazitakoa"; eta gogora ekarri du Eskoriatza Garbiaren ekintzak babestu egin dituztela, eta, besteak beste, horren ondorioz utzi zutela Hondakinen Mahaia, "proba pilotuarekin ikusi den moduan erabateko porrota izan den eta herriarendako guztiz negatiboa den sistema bat sozializatzeko *paripea* besterik izan ez zena". Canterok nabarmendu du sozialistak birziklapenaren eta bosgarren edukiontziaren alde azaldu direla beti.

Haren esanetan, atez atekoa "oso garestia" da, eta hari aitortutako "ingurumenarekiko onurak" ez daude "frogatuta" eta "udal kutxak hustu" egingo ditu. "Ez dugun dirua xahutuko duela salatzen dugu", azaldu du zinegotziak. Sistema berriaren kontra lan egiten segituko dutela esan du, "orain arte moduan", baina orain Eskoriatzak bide hori "erabat babesten" duela "egiaztatuta".

Datorren astean, 50 euroren truke 55 axtroki erosi ahal izango dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Axtrokiak eskoriatzar guztiei zabaltze aldera, eskaintza berezia egingo dute datorren astean Axtroki merkatari elkarteko kideek. Hain justu ere, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 50 euroren truke 55 axtroki itzuliko dizkiete bezeroei; promozio horrekin, bost euro oparituko dizkiete eskoriatzarrei.

Merkatarien elkarteko kide Eider Kortazarrek azaldu digu asmoa dela moneta lokala herritar guztiei eskaini ahal izatea, eta ez bakarrik tokiko garapena sustatzeko Udalak emango dituen diru laguntzen bidez jasoko dutenei. Horrekin batera, jakinarazi du eskaintza mugatua dela, eta, hortaz, trukea ahalik eta azkarren egitea gomendatu du; gainera, esan bezala, bost egun baino ez du iraungo kanpainak. Bada, elkartea osatzen duten herriko 24 komertzioetan egin ahal izango da trukea.

Axtrokiak. | TXOMIN MADINA

Elkartearen eguna

Datorren asteko eskaintzaz gain, baina, bestelako ekintzak ere antolatzen dihardu Axtrokik; tartean, martxoaren 15ean, zapatua, egingo duten Axtroki merkatari elkartearen eguna. Askotariko ekintzak antolatu dituzte egun osorako, hala nola azoka, umeendako jolasak eta zozketa. Egunari azken ukituak emateko batzarra egingo du elkarteak astelehenean Ibarraundin.

Aldaype elkarteko zuzendaritza berritzekotan dabiltza

Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak egindako azken batzar orokorrean adostu zuen moduan, zabalik dago zuzendaritza berria osatzeko izen-ematea. Hautagaiek hilaren 14ra arte eman dezakete izena, astelehene, eguazten eta egubakoitzean, 17:00etatik 19:00etara, lokalean. Presidenterako hautagaiaren eta beste sei lagunen izenak aurkeztuko dira.

OHARRAK

GAZTELEKUA

Gaztelekuan fimo tailerra egingo dute gaur, 18:00etan. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, bihar, berriz, film laburrak ikusiko dituzte gazteek; eta etzi, domeka, Gitar Hero izeneko ekintza izango dute.

ESKORIATZA HERRIA BEKA

Eskoriatzako Herria III. ikerketa beka deitu du Udalak. Astelehenean, hilak 10, amaitzen da izen-ematea. Eskabideak udaletxeko harreran aurkeztu behar dira, 09:00etatik 14:30era.

MIKEL GONZALEZ GUREAN

Leintz Eskola Kirolak antolatuta, Mikel Gonzalez arrasatearrak *Erreala, formazioaren baloreak* izeneko berbaldia eskainiko du martitzenean, 18:30ean, Huhezin. Andoni Iraola ere izango da, Erreala Fundazioaren zuzendaria.

Ederto egin zuten dantza Almeneko dantzariek. | MIRIAN BITERI

Luis Ezeizako sagutxoak emanalditxoa eskaintzen. | M.B.

Ikastetxeetako umetxoek pilotalekua koloreztatu zuten martitzenean

M.B. | ESKORIATZA

Pasatu dira aurtengo Aratusteak. Eguraldiak askorik lagundu ez badu ere, hori ez da nahikoa izan giroa zapuzteko, eta eskoriatzarrak mozorrotuta irten dira egunotan kalera. Urtero moduan, Aratuste-martitzenean umeak izan ziren protagonistak. Goizean goizetik zeruari begira egon ziren herriko ikastetxeetako irakasleak, jaialdia plazan egin edo ez aztertzen. Azken orduan erabaki zuten Arizmendiko Almen gunekoek herrira jaistea, baina, plazara joan beharrean, pilotalekura joan ziren zuzenean. Zain zituzten han Luis Ezeizako neska-mutikoak. Jose Arana guneko txikitxoak, berriz, ez ziren irten eta eraikinean egin zuten jaialditxoa.

Mila koloretako mozorroak elkartu ziren pilotalekuan. Azken urteotako ohiturarekin jarraituz, Arizmendikoek euskal Aratusteek izan zituzten oinarri, eta, besteak beste, txatxoak eta bolantak ikusi genituen. Luis Ezeizakoek, bestalde, filmak aukeratu zituzten, eta emanaldiak film ezagunei lotutakoak izan ziren. Arratsaldean pilotalekua girotu zuen Jon Urbieta disko-jartzaileak, kukumarruekin batera.

Toki batean edo bestean, ezin hobeto ibili ziren mutiko horiek. | M.B.

Mexikarrek Jose Arana bisitatu zuten. | LIERNI ALTUNA

Aldarrikapenez betetako eguna izango da biharkoa

A.E | ANTZUOLA

Bihar Martxoaren 8a da, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta hura ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte herrian. Alde batetik, Udalak elkarretaratzea deitu du 19:00etarako, herriko plazan. Ondoren, triki-poteoa egingo da, eta astean zehar salgai izan diren afarirako txartelak erosi dituzten guztiek jaki goxoekin disfrutatzeko aukera izango dute Olalde elkartean.

Gaztetxeko kideek ere antolatu dituzte ekintzak egun berezi hori ospatzeko. Harremonak ekimenaren barruan, hau da, gazteen artean jarrera matxistarik ez izateko hainbat tailer dinamikoren baitan, azken saioa egingo dute zapatuan. Kale ekintza egingo dute Garaion sorginguneko kideen laguntzarekin. Natura elementuak erabiliz artelana egingo dute, "herriko emakumeek herriaren alde egiten duten lana eskertzeko". Zapatuan izango da hori, 16:00etan, Zurrategin. Ondoren, luntxa egingo dute. Herritar guztiei irekitako ekintza parte-hartzailea izango da.

Iñaki Iartzak bere kargua utzi du. | GOIENA

Auritz Guridik hartuko du Iñaki Iartzaren lekua

Udalak eskerrik beroenak eman nahi izan dizkio Iartzari hiru urte hauetan egindako lanagatik

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Iñaki Iartza zinegotziak ofizialki bere karguari uko egin zion martitzenean egindako udalbatzarrean. Arrazoi pertsonalak direla-eta, alkateorde eta Hirigintza zinegotzi karguak utzi zituen. Haren lekua Auritz Guridik hartuko du, Maria Jesus Zubimendik eta Isidro Zabaletak, zerrendan hurrengoak zirenek, uko egin ondoren. Beraz, hurrengo hauteskundeetara arte Auritz Guridi izango da zinegotzi lanetan. Udalbatzarrean, eskerrak eman nahi izan dizkiote bere taldekideek, egindako lanagatik. Oposizioko kideek ere, egindako lana aitortu eta "bizitzan zorte ona" izan dezala opa zioten.

Bileran aztertutakoak

Udalbatzarrean beste gai batzuk ere aztertu zituzten; besteak beste, Torresoroako harmailen inguruan hitz egin zen. Hala, ikuskizunetarako harmailak jartzeko kontratuaren behin-behineko esleipen proposamena onartu zen. Horretaz gain, Torresoroako auditoriumaren erabilera arautzen duen ordenantza eta Olaran etxearen erabilera arautzen duena aldatzeko proposamenak hurrengo osoko bilkurarako utzi zituzten, idatzian hainbat moldaketa egin behar direla argudiatuta. Bestalde, Udalaren eta Olalde Euskal Kirolak Elkartearen arteko lankidetza hitzarmena amaitutzat jo zuten aho batez.

Mozioei eta adierazpen institucionalei dagokienez, *Emakumeen autonomiaren eta erabakitzeko eskubidearen defentsan* mozioa aurkeztu zen, baina EAJko zinegotzi Maria Eugenia Agirrezabalak Legebiltzarrean alderdi sozialistak, EAJk eta EH Bilduk adostutako dokumentua onartu zuten azkenean. Horretaz gain, zapatuan izango den Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, adierazpen instituzionala onartu zuten aho batez. Joan den urtarrilaren 7ko atxiloketen gaineko adierazpena ere aurrera atera zen, baita arrazakeriaren aurkako urgentziazko mozioa. Azkenik, Mankomunitatean kirol batzorde bat sortu eta bertan Aritz Saidi zinegotziak parte hartuko duela jakinarazi eta onartu zuten.

Torturaren aurkako astea, eguenetik aurrera

A.E | ANTZUOLA

Euskal Memoria Fundazioaren eskutik, torturaren aurkako astea egingo da herrian. Datorren eguenean hasita, hau da, hilaren 13tik aurrera, hainbat ekintza izango dira gai horrekin lotuta.

Hala, asteari hasiera emateko *Barruko arrastuak* dokumentalaren emanaldia izango da, 18:30ean hasita, Olaran etxean. Dokumentalaren ondoren, torturaren gaineko erakusketa egongo da ikusgai. Eta martxoaren 15-16ko eta 22-23ko asteburuetan ere izango da ikusgai. Torturaren gaineko erakusketa gogorra da, eta, horren ondorioz, 18 urtetik gorakoendako soilik dago gomendatua. Bertan, Oñatiko Euskal Memoria Taldeak azken urteetan torturaren inguruan jasotako datu eta argazkiak izango dira ikusgai. Martxoaren 19an, eguaztenean, hitzaldia izango da Olaranen. 18:30ean hasita, *Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian* liburuaren egile Julen Arzuaga abokatu eta eusko legebiltzarkidea izango da hizlari lanetan.

NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI

Adin txikikoen ustez

Haurrekin komentatzen jardun dot zela Martxoaren 8ko "Emakume Langileon Eguna" gerturatzen dagon, eta euren erantzuna oso zentzuduna izan da: "Gu be neskak eta langiliak gara, gure eguna be bada". Arrazoi guztia! Askotan "oso ume" bezela tratatzen dittugu, merezi dabenian eta merezi ez dabenian be. Bale, adina adina da, baina eta behinguagaittik euren tokixan jarri eta gauzak beste modu batera ikusten saiatzen bagara? Honegaittik, erak dana benetan merezi dabelako, gaurko artikulua euren hitz eta komentarixoz beteta jungo da, eta beraien iritzixa danon aurrian aurkezteko aprobetxauko dot artikulu hau. Egin jeten galderia ondorengua izan da: "Ze daukuzue esateko?" (guraso, eskola, gizarte...). Erantzuna ondorengua: "Beti guri errespetua eskatzen jaku bai helduen aurrian eta bai txikixauen aurrian. Guk be gure errespetua merezi dugu danon aldetik! Eta askotan ez da gure iritzixa kontutan hartzen erdi bide baten garelako!". "Sarri gurasuekin denbora gehixau egotia nahi dugu, interes eta atenziño gehixau euren aldetik". "Asko exigitzen jaku: eskolia, deberiak, notak eta beste hainbat kontu, danak ondo egitten saiatzen gara, eta, hala eta be, askotan hori balorau biharrian zigorrak eta exigentziak jasotzen dittugu, ez da justua". Dana dala, eskerrak emuten jeu gu mundura ekartzearren eta ahal dozuen hobetuen egitten saiatzearren".

Bihar, 10:00etan hasita, herri batzarra izango da Olaran etxean, Sortuk deituta

Ezker abertzale osoak (Ernai, LAB eta Sortu) bere estrategia egoera berrira egokitzeko eta hura garatzeko erabakia hartu du, eta, horretarako, hainbat herritan herri batzarrak egingo dituzte estrategia berri horren oinarriak finkatzeko. Antzuolan bihar izango da, 10:00etan hasita, Olaran etxean.

Herriko txikienak ere mozorrotuta

Herriko txikitxoenak primeran ibili ziren martitzen arratsaldean eurentzako prestatutako jaialdian. Izan ere, Kikirixo txiki-txoko aisialdi taldekoek mozorro jaialdia egin zuten eta bertaratutakoak plastikozko poltsekin eginiko mozorroak jantzi, aurpegia margotu eta jolasean ibili ziren, poz-pozik, pare bat orduan.

A.E

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Martxoaren 8a dela-eta, askotariko ekintzak

Itur–Zuri elkartearen Emakume Astearen barruan, bingo afaria egingo dute gaur eskolan (19:30)

J.B. | ARAMAIO

Bihar izango da Emakumeen Nazioarteko Eguna. Aramaion ere, urtero moduan, hainbat ekintza antolatu dituzte. Itur-Zuri elkartekoen Emakume Astea gaur hasiko da, bingo afariarekin. 19:30ean hasiko da bingoa eta 21:00etan, berriz, afaria. Bihar *La máquina del dueño* antzezlana ikusteko aukera egongo da kultura etxean (19:30) eta hilaren 9an, Donostiako Lilatoia lasterketan parte hartuko dute. Hilaren 11n bideo-kafe saioa egingo dute kultura etxean (19:00), *Criadas y señoras* pelikularekin. Emakume Astearekin amaitzeko, martxoaren 12an, herriko Sustrai taldeak kontzertua eskainiko du Sastiñan (19:00). Ondoren luncha egongo da.

Bestalde, hilaren 11n Udalak deitutako kartel lehiaketako irabazleen berri emateko ekitaldia egingo dute kultura etxean (18:00). Horrekin batera, herriko lehen Berdintasun Plana aurkeztuko dute.

Inausketa ikastaroa egingo dute bihar Azkoagako elizaren atarian, Xabi Akizu adituaren eskutik

Udalak eta Aramaioko Sagarzaleen Elkarteak elkarlanean antolatuta, tailer interesgarria egingo dute bihar Azkoaga auzoko sagasti baten. Inausketa ikastaroa da, eta, beraz, sagarrarekin lan egiten duen edonori dago zuzenduta. 09:00etan elkartuko dira, eta, saio teorikoa egin ostean, sagasti batera joango dira ikasitakoa praktikara eramateko. Ezkio-Itsason bizi den Xabi Akizu arrasatearrak gidatuko du saioa; eguerdirako amaitzea espero dute.

Mendi martxa eta sagardotegian bazkaria antolatu ditu Orixol mendizale elkarteak hilaren 15erako

Mendira eta sagardotegira joateko aukera egongo da aurten ere Orixol elkarteari esker. Aurten, martxoaren 15ean joango dira Oiartzun aldean dagoen Urdaburu mendira. Izena emateko azken eguna etzi izango da, hilak 9. Izena emateko 3035 0161 28 1611005178 kontu korronte zenbakian egin beharko da ordainketa, izen-abizenak kontzeptu moduan jarrita. Orixoleko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, berriz, 40 euro.

Udalak ia bi milioi euro ditu Aramaio kudeatzeko

Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu da aurrekontua

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Eguazteneko ezohiko osoko bilkuran onartu zen 2014ko udal aurrekontua. Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin egin zuen aurrera proposamenak; Aramaioko Alkartasuna ez zen bilkuran egon.

Eguaztenean ofizialki onartu zen udal aurrekontua 1.941.146 eurokoa da, baina Ramon Ajuria alkateak bilkuran bertan aipatu zuen aldaketak izango direla. Izan ere, eguaztenean bertan Jaurlaritzako diru laguntza baten berri jaso zuten, esaterako.

Eguazteneko osoko bilkurako une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

Zerbitzuak hobetzeko lanean

Udal Gobernuaren lehentasunak izango dira orain arte ondo funtzionatu duten ekimenak mantendu eta zerbitzuak hobetzen saiatzea. Proiektuei dagokienez, Muruko saneamendurako eta zorua aldatzeko lanak dira lehentasuna: "Ea, behingoz, lanok egiten ditugun, Udala 12 urtez ari da-eta bueltaka proiektu horrekin", adierazi zuen Lierni Altuna bozeramaileak. Horrez gain, Ibarrako argiteria publikoaren bigarren fasea, Murugaingo indusketak, Udal Artxiboa digitalizatzea, Bidez Bide proiektua –Aramaioko bide zaharrak berreskuratu, konpondu edota seinaleztatzeko ekimena da– eta auzolanekin jarraitzea izango dira aurten abiatu beharreko proiektu aipagarrienak.

Bestalde, Altunak balorazio positiboa egin zuen aurrekontuak azaldu eta onartzeko prozesuarekin: "Lehen aldia izan da Ibarratik irten eta auzo gehienetara joan garela aurrekontua azaltzera. Auzoetan bereziki jende asko agertu da eta azalpenak jasotzeaz aparte, zentzuzko ekarpenak egin dituzte. Esperientzia positiboa izan da".

EAJ: "Ez da behar duguna"

Bestalde, EAJko Iñaki Nafarrate abstenitu egin zen; aurrekontuak aramaioarren beharrak asetzen ez dituela uste du: "Ohiko gastua udalerriak duen ahalmena baino handiagoa da eta horrek Udalak herriari eskaini beharreko hainbat Udal zerbitzu ez eskaintzea dakar". Aparteko bi diru-sarrera nabarmendu zituen Nafarratek: batetik, Izpiztiko pinudia botatzetik 120.000 euro jasoko dira eta, bestetik, argindar banatzailearen partetik 90.000 euro jasoko ditu Udalak, zinegotzi jeltzalearen arabera: "210.000 euro horiekin ohiko gastuari egin behar zaio aurre eta hori ez da normala gure ustez. Ezohiko diru sarrerekin azpiegituraren bat edo zerbait berezia egin beharko litzateke".

Era berean, Udalaren zorra ere aipatu zuen Nafarratek: "Urtero 108.000 euro ordaintzen dira zorretan, 9.000 euro hilero. Gure ustez, diru kopuru hori gehiegizkoa da aramaioarrondako". EAJrendako behar nagusiak dira aparkalekuak Ibarran, putzu septikoa berritzea eta adinekoendako egoitza bat.

Aratuste 'beldurgarriez' gozatu zuten eskolakoek

J.B. | ARAMAIO

San Martin eskolan martitzenean ospatu zituzten Aratusteak. Aurten *beldurra* izan da aukeratutako gaia, eta, euriaren ondorioz festa kiroldegian egin bazuten ere, giro ederrean joan zen arratsaldea. Sorginak, banpiroak, gizotsoak, zonbiak, deabruak... askotariko pertsonaia beldurgarriek hartu zuten eskola eta pilotalekua; Aratuste *beldurgarriak* izan dira aurtengoak. Ikasle, irakasle zein senitartekoek asko gozatu zuten izua zabaltzen.

Aurten ere eguraldiaren ondorioz kalejirarik ez da egin, eta, beraz, ez zen ikuskizunik izan Bizente Goikoetxea plazan. Hala ere, horrek ez zuen festa giroa zapuztu. Festa bukatzeko, txokolate beroa izan zen denondako, eta, horrela, datorren urtera arte agurtu zituzten Aratusteak.

Ikasle, irakasle eta senitartekoek harmailetatik ikusi zituzten ikuskizunak. | A. A.

Banpiroen taldeak saio *beldurgarria* eskaini zuen. | AIZPEA AJURIAGERRA

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO

Emakumea askeago, hobe bai?

Egoera zuzendu beharra zegoen. Jasangaitza zen familiaren sostengu ekonomikoaren genero banaketa. Banaketa ekonomiko honek emakumeen askatasuna erabat mugatzen zuen, gizonaren menpekotasun ekonomikoak erabat baldintzatzen zuelako emakumeen biziraupena. Egunero ikusten dugu berrietan gobernuek ere ezin dutela erabaki nahi dutena, dirua daukanak agintzen duelako.

Emakumea lan munduan murgiltzeak gaitasun ekonomikoa eman dio eta bikotearekiko zituen kate ekonomikoak arindu dira, baina zoritxarrez ez da hau izan duen ondorio bakarra. Edonork pentsa zezakeen familiako sarrerak bikoiztuz familiengan ondorioak are hobeak izan beharko liratekeela. Baina horrela izan da? Aspalditik ezaguna da ekonomian, diruak bikoizteak, inflazioa dakarrela eta ez nahitaez baldintzak hobetzea. Lehen soldata bakarrak familiako behar guztiak asetzen zituen: etxea, ibilgailua, ikasketak eta hileroko sostengua. Gaur egun familia bat soldata bakarraz ezin. Kide bakarreko familiak ere gaizki.

Bikotea lanean egoteak askatasun ikuspegitik kaltetu berriak sortu ditu, gurasoak lanean daudela iloben zaintzara dauden aitona-amonena. Askatasuna ekarri dio emakumeari, baina ez dakit zoriontasuna eta bizi kalitatea ekarri dion. Eta lana bikoiztu beharrean banatu izan bagenu?

"Eta lana bikoiztu beharrean banatu izan bagenu?"

ELGETA

Hilaren 16an, domeka, Ibiltarien Jaia Elgetan

Mendizale Federazioak antolatuta mendi irteera, diploma banaketa eta bazkaria egingo dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Euskal Mendizale Federazioak Elgetan egingo du, aurten ere, Ibiltarien Jaia. Hala, beste behin, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako mendizaleak elkartuko dira gurean. Festa giroan emango diote amaiera Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien XII. zirkuituari, eta diploma banaketa eta bazkaria ere egingo dituzte.

Aurretik mendi irteera ere antolatu dute, eta azpimarratu dute ekintza irekia dela; interesa duten guztiek har dezakete parte mendi irteera horretan.

25 kilometroko irteera

Mendizaleek 08:00etarako egin dute hitzordua Elgetako kiroldegian, eta 25 kilometroko ibilbidea proposatu dute. Intxorta, Erdella, Egoarbitza eta Azkonabitza igoko dituzte, hurrenez hurren. Parte hartzea doakoa da, baina izena eman behar da *www.zirkuitua.com* helbide elektronikoan —martxoaren 14ra arte— edo egunean bertan kiroldegian. Elgetako Kantsatzeke mendi taldeko kideek markatuko dute ibilbidea aurreko egunetan, eta amaieran parte-hartzaileen artean salda banatzeko ardura hartu dute.

Mendizaleek Bolatokian egingo dute, aurten, bazkaria. Prezioa 25 euro da, eta udaletxean eman behar da izena martxoaren 14a baino lehen. Udalak mendi tresnak banatuko ditu bazkaltzera gelditzen direnen artean.

Elgetako gimnasioan orain hiru urte egindako bazkaria. | J.A.

Martxoaren 8a aldarrikatzeko elkarretaratzea gaur

Egunero da martxoaren 8a lelopean elkarretaratzea deitu dute Elgetako Udalak, gaztetxeak eta erretiratuen elkarteak gaurko, martxoak 7, herriko plazan. Deitzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera. Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta aurten herrian egingo den ekintza bakarra da.

OHARRAK

IPUIN KONTALARIA
Ipuin kontaketa saioa gaur, barikua, 17:20ean. Udal Liburutegian egingo dute 3-8 urteko umeendako.

ERRETIRATUEN BATZARRA
Xalbadorpe erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du gaur, barikua, 18:00etan, Ozkarbi elkartean. Balantze ekonomikoa, urteko ekintzak, eta abar izango dituzte mahai gainean.

MAKILLAJE TAILERRAK
Azaleko zainketen gaineko tailerrak egingo dituzte martxoaren 11n eta 12an, arratsaldeko zortzietan, kultura etxean. Sarrera doan da.

Emakumezkoen finala etzi

Domekan jokatuko dute finala areto futboleko txapelketako emakumezkoek. Etxaon eta Bandoleira izango dira aurrez aurre, 11:30ean. Gizonezkoen finala atzeratu egin dute; Astuan Villak eta Jaitxok jokatuko dute. Irudiotan, Astuan Villa eta Etxaon, ligaxkako talde indartsuenak.

L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Sistema berezia erabiltzen dihardute araztegia eraikitzeko

Bizilagun kopurua bikoiztuz gero, denen urak garbitzeko gaitasuna izango luke

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Espero dugu maiatzaren amaiera edo ekainaren hasiera aldera bukatzea. Gero, hilabete inguruko probaldia izango da, baina uztail aurretik martxan egotea espero dugu". Horixe adierazi dute udalerrian eraikitzen diharduten araztegiaz Felix Asensiok eta Dario San Emeteriok, obraren ardura duten Diputazioko Ingurumen eta Obra Hidrauliko Saileko teknikariek.

"Udalak 2005ean eta 2007an oso ondo landu zuen ur-zikinen eta euri uren arteko bereizketa. Baina puntu batetik aurrera ur guztiak batera joaten ziren. Egin duguna da puntu horretan ur zikinak hartu eta 300 milimetroko diametrodun kolektore baten bitartez araztegira bideratu", azaldu du San Emeteriok.

Gatzagako araztegiak egunean 40 metro kubiko ur hartzeko gaitasuna izango du: "Etorkizunerako prest dago. Herria bikoiztuko balitz, ur horiek guztiak hartzeko besteko gaitasuna izango luke. Edo Gatzagan dauden baserrien urak udalerriko kanalizaziora bideratuko balira, horiek garbitzeko gaitasuna izango luke",

Diputazioko teknikariak obra ikuskatzen. | UBANE MADERA

gehitu dute. "Eta gainera, hori egingo du modu naturalean, produktu kimikorik erabili gabe".

Ia-ia ez da ikusiko

Baina azpiegituraren ezaugarri nagusia da ia ez dela antzeman ere egingo: "Kontu berezia izan da ingurua ez apurtzeko. Behin bukatuta, urtebetera-edo ia-ia ez da igarriko hemen obra egin denik", dio Asensiok.

Hori egin ahal izan dute eraikitzeko sistema eta materiala asko zainduta: "Erdi-airean doan instalazioa da. Hari eusteko erabili ditugunak dira profil metaliko batzuk eta inguruko garbiketatik ateratako zuhaitzetako adarrak, gero biziberritu egingo direnak. Horrek, azpiegitura tapatzeaz gain, lurrari eusten lagunduko du. Ahalegindu gara ahalik eta modu naturalenean eraikitzen, hemendik hodia doala ez igartzeko moduan. Kutxatilaren tapa izan ezik, ez da beste ezer ikusiko", dio San Emeteriok.

LEINTZ GATZAGA | MIREN ARREGI

Hamelingo txirularia eta lagunak

Martitzenean plazan ibili zen Hamelingo txirulari eta sagutxo talde berezia Aratuste-martitzena ospatzen. *Sagu txikiak* eta *Ganbarako sagutxoak* dantzatu eta eskolan egindako mozorroa atera zuten Luis Ezeiza eskolako 3 eta 5 urte arteko neska-mutiko gatzagarrek. Eskoriatzara jaitsi beharrean, beraz, herrian ospatu zuten eguna.

LEINTZ GATZAGA

Bazkaria, dantza-saiotxoa eta ipuin kontaketa izango dituzte bihar Gatzagako 'sorginek'

30-32 emakume inguruk eman dute izena biharko, Martxoaren 8aren bueltan, Sorginak Emakumeak Elkarteak antolatu duen bazkarirako. Herrian elkartu ostean Soran etxera joko dute, eta han, hasierakoak, frijituak eta legatza edo okela aukeran dituen menua izango dute zain. Bazkalosterako Vanesa Gonzalez ipuin kontalaria gonbidatu dute. Eta eguna ondo amaitzeko, dantza saiotxoa izango dute. Izenik ez eman arren norbaitek joan nahiko balu, bihar bertan Soran etxean agertu besterik ez du.

FUTBOLA

Mikel Gonzalez Eskoriatzan izango da martitzenean

Realeko jokalari Mikel Gonzalez arrasatearra Eskoriatzan izango da datorren astean, Leintz Eskola Kirolak antolatutako berbaldian parte-hartzen. *Erreala, formazioaren baloreak* gaia hartuko dute abiapuntu modura, eta Realeko jokalariarekin batera Andoni Iraola ere izango da saioan; Erreala Fundazioaren egungo zuzendaria da Iraola. Berbaldia Huheziko fakultateko kaperan egingo dute, martitzenean –martxoak 11– 18:30ean hasita.

ZIKLISMOA

Lokatza taldearen aurkezpena 'Goiena' paperean astelehenean

Lokatza Ziklismo Eskolak atzo, eguena, ilunkeran aurkeztu zuen Iralabarrin aurten izango dituen taldeak, eta aurkezpen horren berri asteleheneko *Goiena* paperean izango duzue –baita sarean ere–. Horrekin batera, martxoaren 24tik apirilaren 13ra bitartean Lokatzak II. Bizikleta Jardunaldiak antolatuko ditu, eta aurtengo edizioan ere berbaldiak, ikus-entzutekoak, *Harmailatik* saio berezia eta hainbat bizikleta txango egingo dituzte.

Eneko Ioldi, horrenbesteko mina egiten duen sakea egiteko gertu. | JAGOBA DOMINGO

PILOTA

Espero baino gehiago sufritu zuen arren, finalean da Ioldi

Martitzenean jokatuko dute Soraluce lau t'erdiko bigarren finalerdia

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Azken urteotan Soraluce lau t'erdiko txapelketak izan duen protagonista nagusietako bat, baita 2014an ere, hortxe-hortxe ibiliko da, Ioldi dagoeneko finalean da-eta. 2012ko txapeldun nafarra indartsu agertu da aurtengo torneoan, eta finalerdian ere halaxe jardun zuen, serio. Edozelan ere, Alvarado ez zen arratsalde-pasa joan Bergarara; lehenengo hiru tantoak iritsi berriarenak izan ziren –errebotez heldu da torneora– eta ikusle bat baino gehiago harrituta utzi zuen erakutsitako jokoarekin.

Bi pilotarientzako boladak izan zituen arratsaldeak; Ioldik normalean aurre hartzen zuen; Alvaradok, baina, estutuz markagailuan gertu jarraitzea lortzen zuen. Jokoz, akaso, gehiago izan zen Alvarado. Ioldik, baina, izugarrizko sakea dauka, eta Bergarako pilotalekuari aspaldi hartu dio neurria ondo. Halaxe egin zituen tanto asko, sakez (zazpi guztira), eta halako kanporaketa batean abantaila handia da hori.

Indarrak parean iritsi ziren 13-14kora, eta handik aurrera Ioldik aurrerapausoa egin, eta finalerako txartela lortu zuen (22-15). Hala, finalerako txarteletako batek badu jabea, eta bestea datorren martitzenean egongo da jokoan, 19:30ean hasita, Artolaren eta Altunaren artean.

Iribarriak sorpresa eman zuen

Promes mailan, ostera, Iribarriak sorpresa eman zuen Errandonea mendean hartuta (22-13). Kanporaketa gainditzeko azken hori zen apustuetan faborito eta partidua gogor hasi zuen, lehenengo tantoak erraz eginda. Irribarria, ordea, esnatu egin zen eta sakeak ondo aprobetxatuz markagailuan aurretik jartzea lortu zuen. Maila ona erakutsi zuten biek ala biek; hala ere, azken txanpan, Irribarria aramarrak Errandonea partidutik ateratzea lortu zuen. Azken horrek huts dezente egin zituen; partiduan zehar zazpi pilota galdu zituen, eta bere buruarekin haserre amaitu zuen norgehiagoka.

Datorren martitzeneko finalerdian, berriz, Erasun-Arteaga pilotariek jokatuko dute.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Iazko derbian Olalde baloia buruz urruntzen, Agorrosinen. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Bergarak distantziak txikitu nahi ditu bihar, Aloñaren kontrako derbian

X.U. | ARRASATE

Bergarak (29 puntu) Aretxabaletaren (39) kontrako derbia galdu zuenetik ez du gauza onik izan, eta beste derbi bat erabili nahi dute, bihar Aloñaren (37) kontra dutena, joera aldatzeko. Touringen zelaian hiru gol jasotzetik datoz Arrateren mutilak, eta Hondarribiari urteko errepasoa eman dion Aloña Mendi hartuko dute Agorrosinen (zapatua, 16:30).

Baina kategoria hau apur bat ezagutzen duenak badaki hemen inor ez dela bizi atzo egindakotik; Aloñarendako ezer gutxirako balio du Azkoagaingo garaipenak, erreferentzia moduan ez, behintzat, lehia erabat ezberdina izango dute-eta aurrean. Bergarak ez ditu Hondarribiak emandako erraztasunak emango, lehia fisikoagoaren aldeko apustua egingo dute, besteak beste, zelaiak ere horretara gonbidatzen duelako. Bada, astelehenean, *Harmailatik* saioak eskainiko du derbiak emandako guztia.

Beti Gazteren bisita Estalan

Antzuolak ere etxean jokatuko du, atzerago dagoen Beti Gazteren kontra (15:45). Eta Lagun Onaken zelaira joango da Aretxabaleta domekan (17:00). Erregional preferente mailan, azkenik, Elgoibarren jokatuko du Mondrak etzi (16:30).

ESKUBALOIA

Zaragozako Casablancaren kontra Iturripen

X.U. | ARRASATE

Aratusteetan ondo merezitako atsedenaldia hartu ostean, Ford Mugarri Arrasate kantxara itzuliko da asteburuan. Eta ez nolanahiko kontrario baten kontra, Pablo Gartziaren mutilek hirugarren postuan dagoen Stadium Casablanca taldea izango dute-eta aurrean (zapatua, 18:00).

Zaragozakoek etxekoek baino hiru puntu gehiago bakarrik dituzte, eta, Algortakoekin batera, hiru talde horiek dira ligan hirugarren postuagatik borrokan dabiltzanak, Eibarrek eta Dominicosek dagoeneko abantaila hartu dute-eta.

Nestor, atera jaurtitzen. | GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKU. BIGARREN MAILA
Pauldarrak-Mondra
Domeka. 12:00. Barakaldo.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Eibar-Aretxabaleta
Domeka. 17:30. Unbe.

OHOREZKO ERREGIONALA
Antzuola-Beti Gazte
Zapatua. 15:45. Estala.
Lagun Onak-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Garmendipe.
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Elgoibar-Mondra
Domeka. 16:30. Mintxeta.

LEHEN ERREG. IGOERA
Zestoa-Aretxabaleta UDA B
Zapatua. 16:00. Iraeta.

LEHEN ERREG. KOPA
Arizmendi-Alle Punta
Zapatua. 15:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK
Mondra-Zarautz
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Aita Mari.
Kostkas-Bergara
Domeka. 17:15. Matigoxotegi.

GAZTEAK, IGOERA
Bergara-Santo Tomas
Zapatua. 17:15. Ipintza.

EMAKUMEZKOAK, KOPA
Aloña Mendi-Allerru
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Intxaurdi-Bergara
Zapatua. 17:30. Oiartzun.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Atxurre
Zapatua. 19:00. Manuel Muñoz.

LEHENENGO MAILA
Aretxabaleta-Oiartzun
Gaur. 20:15. Almen

HIRUGARREN MAILA
Legorreta-Mondrate
Gaur. 20:30. Legorreta.

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONALA
Ford Mugarri-Stadium Casab.
Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKO SENIORRA
Soraluce BKE-Txiki Polit
Zapatua. 17:30. Labegaraieta.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Izarraitz Aloña-Donibane
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

SENIORRAK, FEDERAZIO T.
Bergara-Corazonistas
Zapatua. 19:00. Labegaraieta.
Arrasate-Talleres Ondo
Domeka. 11:00. Iturripe.

GAZTEAK, FEDERAZIO T.
Aloña Mendi-Corazonistas
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Bergara-Ormaiztegi
Zapatua. 15:45. Labegaraieta.
La Salle-Arrasate
Domeka. 12:00. Donostia.

SASKIBAOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU (Atsedena).

MAILA AUTONOMIKOA
Getxo-Natra Oñati
Zapatua. 18:00. Getxo.

SENIOR BIGARREN MAILA
Aloña Mendi-Cafes Aitona
Zapatua. 16:00. Zubikoa
Autobuses Alus.-MU A
Zapatua. 16:00. Orio
Oiartzungo Sas.-Soraluce BKE
Zapatua. 16:30. Oiartzun.

JUNIORRAK, ERRENDIMEN.
MU A-Take
Zapatua. 12:30. Iturripe.

PILOTA

OÑATI
Gaur, 20:00etan hasita:
Oñati-Soraluze

ARRASATE
Gaur, 20:30ean hasita:
Arrasate-LAPKE
Arrasate-Intxurre

ERRUGBIA

SENIORRAK
La Rioja-Kanpanzar Arrasate
Zapatua. 16:00. Errioxa.

KADETE FEDERATUA
Aiete-ORE ART
Zapatua. 16:00. Aiete.

KADETE ESKOLARRA
HCRE/ART-Gaztedi
Zapatua. 12:00. Mojategi.

INFANTIL ESKOLARRA
Hernani-Kanpanzar Arrasate
Zapatua. 10:30. Mojategi..

FRONTENISA

EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA, FINALAK
Zapatuan, Aretxabaletan:
10:30 Hirugarren eta laugarren p.
11:15 Finala
12:00 Sari banaketa

ESKALADA

NESKEN ESKALADA TOPAKETA
Egubakoitza. 17:30. Ibarra.

goienagida"
2014
DEBAGOIENEKO MERKATARITZA GIDA

ARRASATE ARETXABALETA
ESKORIATZA LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO OÑATI BERGARA
ANTZUOLA ELGETA

OSATUAGOA, BERRITUA, HOBEA

WWW.GOIENA.NET/GIDA

Sarean, mugikorretan, tabletetan eta paperean

Tertulia

Gaurkotasuneko eztabaidak

Larraitz Zeberiok aurkeztuta

- Egubakoitza, 19:00, 22:00 eta 00:20

Harira

Herri ordezkariekin elkarrizketak

Eneko Azkaratek aurkeztuta

- Martitzena, 22:00 eta 00:20.
- Parte hartzeko:
  - Posta elektronikoz: harira@goiena.com
  - Twitter: #harira
  - Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
  - Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
  - Erantzungailu automatikoa: 688 69 00 17

Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara

Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

- Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50

Amaia DJ

Gazteendako bideoklipak

Amaia Txintxurretak aurkeztua

- Eguena, 19:30,22:00 eta 00:20

Bertakoa eta sasoikoa

Telebistako programazio berria

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

KULTURA

Gazte indarrez, etorkizuna

- Oztopoak oztopo, autogestioaren bidean tinko jarraitzen du Arrasateko gaztetxeak
- Egoera ekonomiko zailari ekimen berriak eginda erantzun nahi izan dio AGAKOk

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Azkenaldian garai zailak bizi dituen arren, bere eguneroko lanean aurrera segitzen du Arrasateko gaztetxeak. Bere filosofiari zintzotasunez eutsiz, autogestioan oinarrituz, aspaldiko helburuegandik borrokan jarraitzen dute. Hauek, baina, ez dira sasoi errazak gazteentzat. "Udatik hona gorabehera asko izan ditugu", diote Asanbladako kideek azken asteotan aditzera eman diren arazo ekonomikoen inguruan. "Duela urtebete oso ondo geunden, jende ugari hurbiltzen zen gaztetxean egiten ziren ekitaldietara, eta diru aldetik arazo gutxi genituen", diote. Horren ostean, baina, beheraldia etorri zen, eta momentuotan "zulo ekonomiko potente baten" sartuta daudela aitortzen dute.

Arazo ekonomiko hauen iturria eraikinean dagoela uste dute Asanbladako lagunek."Oso gaztetxe handia da gurea, eta horrek eraikinaren tamainako gastuak ekartzen dizkigu", dio haietako batek. Elektrizitate eta mantentze gastuak oso handiak dira, baina gazteek haiei lotuta daudela uste dute. Horren adibide elektrizitatearen faktura jartzen dute. "Elektrizitate potentzia handia daukagu kontratatuta, baina kontzertuak egiten jarraitu ahal izateko argindar hori erabiltzen jarraitu behar dugu, ez dugu beste irtenbiderik", gogorarazten dute.

Egoera zail horri ganorazko erantzuna ematen saiatu dira gaztetxeko kideak azkenaldian. "Udatik hona, dirua ateratzeko ekimen pila egin ditugu: kontzertuak, jaiak...". Gabonetan, esaterako, kamisetak egin zituzten gaztetxe goialdean dagoen serigrafia tailerrean. Jantziak kalean jarritako postuetan saldu zituzten gero, gaztetxearen mantenurako hain beharrezko duten dirua lortzeko helburuarekin.

Ekimen horiek gaztetxearen izaeran eragina izan dutela aitortzen dute, hala ere. "Dirua ateratzea ez da gure filosofiaren parte, baina beharrak bultzatuta gure ekimenak helburu horretara bideratu ditugu azkenaldian", aitortzen dute. Ildo horretatik, jende ugari biltzea lortu duten zenbait ekitaldi antolatu ditu AGAKOk otsailean zehar: Governors eta Never Surrender eta The Potes taldeen kontzertuak; eta Aratusteetako herri bazkari jendetsua, martxoan. Gazteek diotenez, guztietan jendearen erantzuna "ederra" izan da, eta dirua ateratzeaz gain giro ederra sortzea lortu dute.

AGAKOko kideak Arrasateko gaztetxeko barraren atzean. | JAGOBA DOMINGO

DATUA

23

URTE

Datorren apirilean 23 urte beteko ditu gaztetxeak. 1991tik hona, ospitale zaharrean eta Uarkapeko eraikinean izan da.

Never Surrender, joan den otsaileko kontzertuan. | IMANOL SORIANO

ESANAK

"Udatik hona dirua ateratzeko ekimen ugari egin ditugu"

AGAKO

"Udalaren ikuspegia gaztetxearekiko positiboa dela esango nuke"

KEPA URTEAGA | ZINEGOTZIA

Autogestioari eutsiz

Ekitaldi "masibo" horien antolaketak, baina, ez ditu zalantzan jartzen AGAKOk betidanik izan dituen oinarriak. Gazte Asanbladak gaztetxearen eztabaida eta erabakitze-gune izaten jarraitzen du. Ostiral arratsaldeetan biltzen da, 18:30ean, eta azkenaldian 15 bat gazteren parte hartzea dauka. Hiru lantalde nagusitan banatzen dira gazteak; barraren kudeaketarako, kontzertuetan teknikari gisa jarduteko eta serigrafia tailerrerako, hain zuzen ere.

Eraikinak Arrasateko Udalarena izaten jarraitzen du, baina Asanbladaren eta agintarien arteko harremanak onak dira, hala ere. Kepa Urteagak, Gazteria zinegotziak, dioenez, "azken urteetan egon den komunikazioak asko erraztu du bi aldeen arteko harremana". Hark dioenez, gaztetxean egiten diren "gauza guztiekin ados ez egon arren", Udalaren ikuspegia gaztetxearekiko "positiboa dela" uste du.

Apirilean urteurrena

Testuinguru horretan, 23 urte beteko ditu Arrasateko gaztetxeak aurten, apirilean. 1991n ekin zion bere ibilbideari AGAKOk frantziskotarren ospitale zaharrean. Hamaika urte egin zituen bertan, eta, urtebeteko etenaren ostean, 2003ko ekainean ireki zuten gaur egun Asanbladak bere egoitza moduan duen Uarkapeko gaztetxea.

Urteurren hori ospatu eta ohiturari jarraipena emateko, urteko hilabete indartsuena antolatuko dute gaztetxeko lagunek apirilerako. "Urtero bezala, ekintza mordo bat egingo ditugu datorren hilean, nahiz eta aurten Aste Santuko oporrek egitaraua laburrago egitera behartu gaituzten", diote gazteek. Laster aurkeztuko dute aurtengo egitaraua.

Hori etorri arte, baina, lanean jarraituko dute AGAKOko lagunek; ganoraz eta ilusioz, aurrean dauzkaten eta etorkizunean etorriko diren erronkei aurre egiteko asmo argiarekin.

Auzolana, arazoei erantzuteko tresna

Ikasturte hasieran segurtasun neurriak hobetzeko agindua jaso zuen Arrasateko gaztetxeak Udalarengandik. Eusko Jaurlaritzako teknikariek segurtasun akats nabarmenak igarri zituzten eraikinean, eta arazo horiek konpondu ezean eraikina ixteko agindua emango zutela adierazi zuten. Itxiera mehatxuaren aurrean, gazteek auzolana antolatu zuten, eta enpresa baten begiradapean elektrizitate sarea eta eraikineko ateetako sarrailak aldatzen hasi ziren. Hilabeteko lanen ostean, arazoak konpondu eta Eusko Jaurlaritzako teknikarien bigarren inspekzioa gainditu zuten.

Udalak begi onez ikusi zuen gazteen ekimen hori. Kepa Urteaga zinegotziak dioenez, "ezinbestez bete behar diren legaltasun batzuk daude, baina horiek gainditu eta gero, dena errezago joan da". Gazteek ere modu positiboan ikusi zuten Udalak auzolana egiteko eman zien babesa. Asanbladako kideek hauxe diote: "Udalak guk hartutako erabakia babestu eta ulertu egin zuen". Auzolanak egin behar ziren konponketen gastua jaitsi egin zuen, eta gazteek argi daukate: "Lanak guztion artean egin ez bagenitu, beharbada ezin izango genuke orain gaztetxea zabalik izan".

Bikotea, kale-dantza txapelketa jokatzen, jendea begira dutela. | VDRG DANSSCHOOL

FUN DANTZ! EGITARAUA

16:30 Hip-hop dantza ikastaro irekia kiroldegiko aerobik aretoan.

17:30 Breakdance lehiaketa: nesken arteko kale-dantza txapelketaren (bikoteka) eta buruz buruko breakdance txapelketaren finalerdiak.

19:00 Ikuskizuna: Banboo, K-conexion, Fusion Noise, Double X Ladys, Alehop, Black Diamond Crew, Rest-style crew, Urban Dölls, Golden Funk, cLäSS Dance Crew, ED Steps, Circle of Trust, Neugma, Vento.

Aretxabaleta, kaleko kultura mugimenduaren erakusleiho bihar

Break on Stage jaialdiko finalerako txartela lortzeko Fun Dantz! jaialdia egingo dute bihar Ibarran

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Ibarra kiroldegian Fun Dantz! jaialdia egingo dute bihar, 16:30ean hasita. Martxoaren 29an Bilbon egingo den Break on Stage jaialdirako txartela eskuratzeko lehia bizi izango dute bertan protagonista izango direnek.

Maila altua

"Ikuskizun dinamikoa izango da, ez da aspertzeko denborarik egongo. Oso azkarrak dira talde aldaketak, hiruzpalau minutuko saioak egingo dituzte. 16 ikuskizun eta 80 artista, guztira: dantzatik BMX bizikleta-akrobaziara igarotzen da, rap abeslariak ere egongo dira, baita DJak ere...". Hala eman du aditzera Ander Garaizabalek, Break on Stage jaialdiko antolatzaileak.

Maila handiko emanaldia izango dela gaineratu du: "Gaur egun kaleko kultura adierazpen mailan Euskal Herriko eta estatuko dantzaririk onenek hartuko dute parte".

ESANAK

"Euskal Herriko dantzaririk onenek hartuko dute parte bihar"
ANDER GARAIZABAL
BREAK ON STAGE

"Kaleko kultura mugimenduan emakumea presente dago"
MAIDER AIZKORBE
BERDINTASUN ZINEGOTZIA

Emakumeen presentzia

Aretxabaletako Udalak Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauaren baitan kokatu du Fun Dantz! Berdintasun zinegotzi Maider Aizkorbek azken urteetan egunaren harira hainbat arlo landu izan dituztela ekarri du gogora, dela indarkeria, dela kirola jorratuta: "Oraingoan, ostera, kultura mugimendu horretan emakumea presente dagoela erakutsiko dugu; modu naturalean izaten da parte hartzea, gainera".

Sarrerak ondo saldu dira, eta pozik daude antolatzaileak; guztira, 600 atera dituzte eta bihar bertan 100 erosi ahalko dira leihatilan, bakoitza 3 eurotan.

Patxi Luquek emanaldia egingo du bihar Arrasaten

Iaz Pua de Oro lehiaketan bigarren postua eskuratutako musikariak Ederran joko du

Z.V.D.M. | ARRASATE

Patxi Luque musikari eta konpositoreak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Arrasateko Ederra tabernan, 23:00etan hasita. Antzuolan bizi da Luque eta, hain zuzen, gitarrarekin daukan abilezia ezagutzeko aukera izango dute kontzertura bertaratzen direnek.

Patxi Luque. | GOIENA

Zilarrezko zia

Hain zuzen ere, 2013an Donostiako Intxaurrondo auzoan jokatu zen V. Pua de Oro gitarra lehiaketan hartu zuen parte Antzuolan bizi den musikariak; bigarren postua eskuratu zuen, zilarrezko postua, alegia.

Bihar eskainiko duen emanaldiari dagokionez, hauxe eman du aditzera Luquek: "Rock-and-rolla, heavya eta beste gustuko badituzu, kontzertuarekin gozatuko duzu". Hori horrela, 23:00etan hasiko duen emanaldia gustu guztientzako saioa izatea gura du.

Ruper Ordorika Aretxabaletan, iazko maiatzean. | GOIENA

Bakarka arituko da etzi Ruper Ordorika Zabalotegin

Oñatiarrak modu akustikoan joko du Bergarako aretoan eta kontzertua 19:00etan hasiko da

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Zabalotegi aretoan joko du Ruper Ordorika musikari oñatiarrak domeka honetan, 19:00etatik aurrera. Joan gura dutenek 8 euro ordaindu beharko dute sarrera.

Gertutasun bila

Ruper Ordorika bakarrik igoko da etzi Zabalotegiko oholtzara. Hala, bere jarraitzaileen aurrean lagunarteko emanaldia egingo du, eta disko zaharretako eta berriagoetako kantuak interpretatuko ditu, gitarra eskuetan izanik eta agertokiaren soiltasuna lagun duela.

Rockari lotutako musikari beteranoak emanaldi akustikoa eskainiko du, beraz, Bergaran domeka arratsaldean. Eta publikoarekiko gertutasun eta konplizitate giroan ez da falta izango musikaltasunik, ezta doinu aniztasunik ere.

Bakarka, iaztik

Izan ere, taldearekin ez dabilenean *Bakarka* emanaldia egiten aritzen da Ordorika eta azkenaldian halaxe dabil Euskal Herrian barrena.

Iaz apirilaren 7an hasi zen bakarkako kontzertu sorta eskaintzen. Debagoienari dagokionez, Aretxabaletako Zaraia aretoan egin zuen gisa horretako emanaldi bat. Iaz maiatzean izan zen eta bertaratu zirenek gustura jarraitu zituzten oñatiarraren gitarretik eta ahotsetik sortutako doinuak. Abesti klasikoen eta berriagoen arteko nahasketa eginez, ordu eta erdiko saioa eman zuen orduan, eta domekan bide beretik arituko da euskal musikari handia.

Euskarazko Palindromo Lehiaketako sari nagusia Olatzagutiara joan da

AEDk antolatutako lehiaketan Miguel Angel Barrero izan da irabazlea

Iazko lehiaketaren sari banaketa. | GOIENA

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Nafarroara, Olatzagutiara, joan da AEDk antolatutako Euskarazko Palindromo Lehiaketaren sari nagusia; hain zuzen ere, Miguel Angel Barrerok aurkeztutako *Auzi aurrean, amaren zain, iaz neramana: errua, izua* da Euskal Herriko aurtengo palindromo onena, epaimahaiaren erabakiz. Arrasateko onena, ostera, Blanka Jauregi izan da, *Nazi alegre izan ala nazi ergela izan* palindromoari esker.

Parte-hartze ona

Arrasateko euskara elkarteak laugarrenez antolatu du Euskarazko Palindromo Lehiaketa, eta, beste behin ere, parte-hartzearekin pozik azaldu dira. Hala eman digu aditzera Maite Agirre dinamizatzaileak: "Guztira, 70 lan jaso ditugu eta 13 izan dira parte-hartzaileak. Euskal Herriko toki ugaritatik bidali dituzte lanak, eta aurten, Debagoieneko herrietako parte-hartzea nabarmenduko genuke".

DATUA

70

PALINDROMO

AEDk antolatutako lehiaketan aurten jaso duten lan kopurua.

BLANKA JAUREGI
ARRASATEKO IRABAZLEA

"Beti aritu izan naiz hitzekin-eta jolasean"


Z.V.D.M.

Blanka Jauregik Arrasateko palindromorik onenaren saria eskuratu berri du AEDren lehiaketan.

Lehiaketara aurkeztu zaren lehenengo aldia da?

Bai. Egia esan, beti aritu izan naiz hitzekin-eta jolasean. Ez da izan palindromoak egin ditudan lehenengo aldia, baina parte hartzeko ideiarik ez dut izan orain arte eta poztu egin nintzen albistea jakitean.

Erraza izan da esaldi bat osatzea?

Azken finean, esaldia aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin irakurtzeko modukoa izan dadin saiatu behar da; horrenbeste dira hitzak! Gero, esaldiak berak esanahi edo kritika apur bat izatea bigarren mailakoa izan da. Txikitan ere atzekoz aurrera berba egitera jolasten ginen, baina beti gaztelaniaz. Egia da euskaraz horrelakoak egin daitezkeela deskubritu dudala.

Hori horrela, ez du lan makala izan Markos Gimeno palindromogileak, Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasle taldeak eta Debagoieneko AEK euskaltegiko irakasle taldeak osatutako epaimahaiak. Azkenean, Nafarroa aldera joan da sari nagusia.

Letrekin jolasten duen kimikaria

"Kimikaria naiz, eta ez naiz inoiz palindromo lehiaketetara aurkeztu", aipatu du Miguel Angel Barrerok. Dena dela, beti gustatu izan zaizkio buru-hausgarriak, direla matematikoak, logikoak zein hitz jokoak. "Azken horiei dagokienez, pangramak eta palindromoak egin izan ditut, beti nire ama-hizkuntzan, gaztelaniaz. Zorionez, nire aitona-amonek Olatzagutian hitz egiten zuten euskara berreskuratu dut. Arratsalde bat hartu nuen beste hainbat alditan bezala palindromoak osatzeko, baina euskaraz. Hasieran sinpleak izan arren, laster aurkitu nuen hari on bat eta handik lortu nuen irabazlea izango zena sortzea".

Maider Arregi oñatiarra Bergaran arituko da gaur gauean. | GOIENA

Debagoieneko bertsolari gazteen topagunea izango da gaur Bergarako Gaztetxean

Z.V.D.M. | BERGARA

Gaur gauean, Bergarako Gaztetxean ibarreko hainbat bertsolarik emanaldia eskainiko dute, 22:00etan hasita.

Zazpi bertsolari gazte

Egubakoitz iluntzea inprobisazioz jantziko da kartzela zaharrean, Bergarako Ernaik antolatutako saioari esker. Bada, zazpi bertsolari gazte izango dira gaztetxean: Paula Amilburu, Maider Arregi, Xabi Igoa, Aitzol Iturbe, Garikoitz Lopez de Munain eta Ane Zuazubiskar. "Bertan landuko dituzten gaiak, besteak beste, euskara eta generoa izango dira, azken hori martxoaren 8aren harira", eman dute aditzera Ernaitik.

Esan bezala, ibarreko bertsolari gazteak dira guztiak eta euren saioa jarraitzeko 3 euro ordaindu beharko da sarrera.

Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

ZERB GARAGARDOA
Debagoienean egindako garagardo artisaua
32 €
LEHEN: 40 €
DESKONTUA: %20

NEREA.M DANCE&FITNESS
Modan dagoen Zumba dantza probatu gura duzu?
59€
LEHEN: 131€
DESKONTUA: %55

BIARK ARKITEKTOAK
Etxea edo lokalerako ziurtagiria energetikoa
120€
LEHEN: 185€
DESKONTUA: %36

Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05
goiena

Pablo Elkoroiribe, lur-globoan Saudi Arabia non dagoen erakusten. Argazki txikian, Saudi Arabian bere ikasle izandakoekin.

JON MOÑUX

Pablo Elkoroiribe | Ingeleseko irakaslea

"Saudi Arabiara itzuliko nintzateke, baina nire helburua ez da gazteei eta helduei irakastea, umeei baizik"

JON MOÑUX | BERGARA

Irakaskuntzan graduatu zen aurreko urtean, Atzerriko Hizkuntzan, eta eskolak ematen ibili da lau urtean Mondragon Lingua akademian, adibidez. Karrera amaitu eta Bergarako Mariaren Lagundian goi mailako ziklo bat egiten hasi zenean, Saudi Arabiara abiatu zen ingeleseko eskolak ematera. Bi hilabeterako joan zen lehenengoz azaroan eta beste hilabete baterako urte honen hasieran.

Mondragonek sortutako eskola batean egon zara Saudi Arabian.

Hala da. Mondragonek aurkeztutako proiektu bat onartu eta gero, Mondragon Muhayil Asir College of Excellence eskola sortu zuten Saudi Arabiako Muhayil herrian. Eskola horretan goi mailako zikloak egiten dira, eta ni ingeleseko eskolak ematen egon naiz bertan.

Nola iritsi zitzaizun eskaintza?

Ezusteko handia izan zen. Eskolan nengoela dei bat jaso nuen, MEItik (Mondragon Nazioarteko Hezkuntza) deitu zidaten. Galdetu zidaten ea prest egongo nintzatekeen Arabiara joateko lanera. Erabat harrituta gelditu nintzen, eta erantzun nion: "Arabara esan nahiko duzu?". Hasieran sinetsi ezinik egon arren, aukera onartu nuen azkenean.

Bakarrik joan zinen Muhayilera?

Ez. Hasiera batean, Mondragon Unibertsitateko hiru ikaslek joan behar genuen, baina, azkenean, irakasle lanetan esperientzia zeukaten Arrasateko bat eta Alegiako bat etorri ziren nirekin.

Aurretik atzerrira joana zara ikastera eta lanera.

Bai; adibidez, laugarren mailako praktikak Galesen egin nituen, Cardiffen. Bestalde, hiru bat uda Ingalaterran eman ditut ingelesa ikasten.

Nola moldatu zara Saudi Arabian izandako ikasleekin?

Oso ondo, egia esan. Gaztea izanik, irakasle izateaz gain, laguna ere banintzen haientzat. Hala ere, zailtasunak izan nituen ingelesa irakasteko, maila txikia baitzuten. Gainera, ikasle batzuk analfabetoak ziren arabiarrez ere.

Oso kultura desberdinak dira Saudi Arabiakoa eta Euskal Herrikoa. Zerk harritu zintuen gehien?

Harremanei dagokienez, emakumeen egoerak asko harritu ninduen. Baina esan beharra daukat ez dudala izan aukerarik emakumeen egoera zein den ondo ezagutzeko, birritan bakarrik hitz egin ahal izan dut emakumeren batekin eta ez dut aukera askorik izan gizonen eta emakumeen arteko harremana zuzenean ikusteko. Ohiturei dagokienez, berriz, gidatzeko modua ulertezina iruditu zitzaidan; kaos handia dago, baina kaos horren barruan ordenari eusten diote.

Erraz egokitu zinen hango bizimodura?

Baietz esan daiteke, hainbatetan egon bainaiz herrialde arabiarretan oporretan. Bestalde, zortea izan genuen, herrialdeko beste herri batzuekin alderatuz nire herria mentalki irekiagoa zelako. Hegoaldean geunden, Yemen ondoan, eta gurean ez zegoen hiriburuan egon zitekeen polizia moralik. Gogorrena hango bizitza soziala izan da. Bizitza sozial handia duten arren, ez daukate leku bat non herriko jende desberdina elkartu ahal den, Euskal Herrian tabernak ditugun moduan, esaterako. Alde horretatik, gogorragoa egin zait, hiru hilabeterako joan bainintzen, eta lanekoekin bakarrik egin nuen bertako egunerokoa.

Berriz itzuliko zinateke?

Orain aukera eman didate berriz bueltan joateko, eta ez dut baztertzen hara itzultzea etorkizun hurbilean. Asko ikasi dut han, bai pertsonalki, eta baita profesionalki ere.

Aurrera begira, zer daukazu pentsatua?

Orain, ingeleseko eskolak ematen nabil Mondragon Linguan, Aramaioko haurrei. Eta Saudi Arabiara itzuliko nintzatekeen arren, nire helburua ez da gazteei edo helduei irakastea, nik umeen hezkuntzan lan egin nahi dut. Beraz, esparru horretan sakondu nahiko nuke orain.

PERTSONALA

Zure herriko txokorik gustukoena: Artekale pizzeria.

Herrialde gomendagarri bat: Ingalaterra.

Ezagutzeko leku bat: Italia.

Zaletasun bat: Biniloen bilduma egitea.

Musika talde bat: Stray Cats.

Gustuko pelikula bat: *Bienvenido al norte* filma.

Bizi izateko leku bat: Getaria.

Esperientzia gogoangarri bat: Nire kontu egin ditudan bidaiak.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Garaje eta ganbararekin. 198.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. 638 21 63 39

Bergara. 40 m²ko apartamentua salgai Zubieta kalean. Eguzkitsua. 45.000 €. Errentan hartzeko aukera ere bai. Deitu 679 45 57 62 telefonora.

Bergara. Urgentea da. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. 110.000 €. Presazkoa da. 626 65 99 94

Donostia. Hiru logela eta bi komuneko etxebizitza salgai. 8. solairua, dena kanpokaldera begira eta eguzkitsua. 300.000 euro. Garajea aukeran. 630 08 24 17

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Kurtzebide 1ean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi bainugela. 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Antzuolako bikote bat gara, eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez etxea hartuko genuke errentan Antzuolan bertan. Etxe huts bat duen oro animatzen dut programa ezagutu eta bertan izena eman dezan. 676 61 15 47

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. 620 23 58 15

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. 691 16 96 43

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa, gutxienez. Partikular artekoa. 603 21 91 32

Bergara. Bergara erdialdean etxebizitza hartuko genuke errentan. Bikotea gara. 550 euro ordain dezakegu gehienez ere. Garajea baldin badu, 600 euro baino gutxiagotan ere hartzeko prest gaude. 675 70 06 96

Bergara. Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 € ordainduko nituzke. 606 83 82 15

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 654 24 13 27

Bergara. Emakume bat eta bi alaba txiki gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean. Urgentea da. Ana. 673 70 79 15

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Arrasate erdialdean, logela bat alokatzen da. Deitu 693 80 64 18 telefonora

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 629 80 77 73 telefonora.

Arrasate. Pisukide bat behar dugu Arrasaten etxea osatzeko. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsua da. Berokuntza eta leiho bikoitzak. 230 euro hilean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera!. 665 71 69 10 edo 608 57 97 70

Arrasaten logela ematen da errentan. 200 euroren truke logela ematen da errentan Arrasaten. 632 29 77 31

Oñati. Logela ematen da errentan duplex berri bat osatzeko. Erdigunetik oso gertu. Sukaldea eta egongela erabilgarri. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Zurradero Kalea. Garajea eta trastelekua saltzen dira, Zurradero kalean 8an. 6x1,80=10,80 m² eta 6x2,30=13,80 m² dituzte. Elkarren ondoan daude eta biak batera saltzen dira. Prezioa: 17.000 €. 687 71 42 62

202. EROSI

Autokarabana gordetzeko tokia erosiedo alokatu egingo nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. 636 64 90 94

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea ematen da errentan Txaeta kalean, ospital inguruan. 679 68 75 22

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibargarain, autobus geltoki parean. Apalategiak dauzka. 688 69 76 11

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Emakumezko arduratsua gertu haurrrak edo nagusiak zaintzeko, orduka, edo baita etxean bertan bizi izateko ere. Aukeran, Arrasaten nahiago. 943 04 45 38 edo 652 58 41 99

Arrasate. Esperientziadun neska orduka edo egunez lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbitasunean. Dendari ere aritutakoa naiz. 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

Arrasate. Neska euskalduna bulegoak, elkarteak, tabernak eta abar garbitzeko gertu. 686 27 45 81

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. 49 urteko emakume arduratsua edozein laneratako prest. 606 24 79 09

Bergara. Bergarako emakumea garbitasun lanetarako gertu. Esperientzia eta informeak dauzkat. 696 27 25 34

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

Bergara. Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Amaia. 639 04 65 11

Bergara. Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Loli. 676 67 19 07

Bergara. Haur hezkuntza eta psikopedagogia ikasketak dituen neska esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Goiz eta eguerdian edo orduka. Deitu 669 64 64 27 telefonora

Debagoiena eta Debabarrena. Emakumea gertu arratsaldetan nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 943 75 20 98 edo 620 77 30 09

Debagoiena. Bergarako neska lanerako gertu, orduka zein etxean bertan bizi izaten. 658 31 06 20

Debagoiena. Neska arduratsua arratsaldetan lan egiteko gertu. 610 84 94 85

Debagoiena. Bertako neska nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauetan ere. 632 18 79 50

Debagoiena. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin, nagusien zaintza eta abarretan jarduateko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu 633 29 29 12 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 639 02 00 81

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 672 98 20 91

Debagoiena. Mutil arduratsua lan bila dabil. Sukaldeko eta geriatriako ikasketak ditut. Sukaldari lanetan, garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu 633 28 81 24 telefonora.l

Debagoiena. Emakumea gertu orduka edo etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 606 64 16 09

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Martzial Agirre 96 m², 3 logela. Igogailua. Garajea. Trastelekua etxebizitzarekin komunikatua.
- Bidekurutzeta 58 m², 2 logela. 35.000 €.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 210.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000€. PREZIO JAITSIERA,
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €,
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

OSINTXU:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 80 m². 3 logela. Balkoia. Oso ondo. 160.000 €.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasunak egiten eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Ordutegi malgua dut. 602 69 31 56

Debagoiena. Emakumea nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan aritzeko gertu. Orduka, egun erdiz edo egun osoz, baina etxean bizi izaten ez. 943 10 96 89 edo 671 18 50 83

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

Debagoiena. Emakumea nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita garbitasun lanetan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 14 urteko eskarmentua daukat. 634 11 31 09

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu, 14:00etatik aurrera eta baita gauetan ere. 637 18 07 23

Debagoiena. Erizain laguntzailea nagusiak, laguntza behar duten pertsonak edota gaixoak zaintzeko gertu. 602 51 67 28

Debagoiena. Gertu nago nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 632 98 17 79

Debagoiena. Gizonezkoa gertu gauetan gaixoak ospitalean zaintzeko. 664 02 92 98

Debagoiena. Lan bila nabil, pintorea naiz. Margoketa laneta, garbiketa eta peoi lanetarako norbait behar baduzu deitu telefono honetara. Hurmi. 609 32 31 83

Debagoiena. Mutila pertsonak zaintzen edo sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 632 26 01 84

Debagoiena. Lan bila nabil. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izanda. Garbitasun lanetarako ere gertu nago. Deitu 636 41 98 14 edo 631 28 22 03 telefonora.

Debagoiena. Mutil arduratsu eta langilea nagusiak zaintzeko gertu. Sukalde laguntzaile eta baso, baserri eta abarrekin lotutako lanak ere egingo nituzke. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

Debagoiena. Mutila gertu orduka edo etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta taberna eta abarretan garbitasun lanak egiteko. 606 64 16 09

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Esperientzia daukat logistika arloan, banaketan eta igeltsaritzan. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Erabateko prestutasuna egutegi zein ordutegi aldetik. 697 84 88 79 edo 632 70 69 95

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, garbiketan, zerbitzari, banatzaile eta abarrean. 691 16 96 43

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Pertsonen zaintzan, garbiketan, tabernak, gidari, mekanikari eta abar. 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila lorazain jarduteko gertu. Esperientzia daukat bai makinekin, mantenuan eta orokorrean, lorazaintza lanetan. 654 12 06 19

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 603 14 59 17

Debagoiena. Lan bila nabil. Prest nago garbiketak egiteko , tabernetan jarduteko eta abar. Tel.: 630 99 11 85

Debagoiena. Nagusi zein umeak zaintzen edo garbitasunean lan egingo nuke. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Nagusiak zaintzen etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Erreferentzia onak ditut eta dokumentazioa egunean. 619 18 81 86

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Astelehenetik ostiralera. Deitu telefono 682 31 97 37 edo 603 22 53 66 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

Debagoiena. Espainiar nazionalitatea duen emakuea, arduratsa eta langilea, lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo orduka. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile ere aritu naiteke. Ez dut familia ardurarik. Autoa daukat. Berehala hasiko nintzateke. 943 04 45 38 edo 652 58 41 99

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. 633 84 65 30

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Esperientzia daukat logistika arloan, garbitasunak egiten, sukalde laguntzaile zein nagusiak zaintzen. Erabateko prestutasuna egutegi zein ordutegi aldetik. 632 70 72 89 edo 697 84 88 79

Debagoiena. Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, zaintzan eta garbitasunean. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. 636 11 23 40

Debagoiena. Neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. 603 21 91 32

Debagoiena. Pertsonak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 602 64 68 17

Debagoiena. Zortzi urteko esperientzia duen neska gertu nagusiak zaintzeko, garbitasunean jarduteko edo sukalde laguntzaile aritzeko. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 634 84 41 94

Emakumea lan bila. Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena dauzkat. Euskal Herri guztian lan egiteko gertu. 696 32 13 69

Garbitasuna. Atari, elkarte, taberna eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Lege paperak eguneratuta dauzkat. Miguel. 722 45 33 59

Gasteiz. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Erreferentzia onak dauzkat. 649 63 23 24 edo 633 52 95 02

Nekazaritza arloan lan egingo nuke. Ganaduak zaindu, ortuko lanak egin, baserria txukundueta abar. Edozein lan egingo nuke. 632 17 45 11

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, orduka edota egun osoz. 632 17 45 11

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako prest. 632 17 45 11

Zaintza lanak. Geriatria ikasketak eta eskarmentua duen emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Mari Carmen. Deitu 697 41 13 86 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergaran. Bigarren batxilergoko kimika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 695 99 15 67

Matematika. Batxilergoko bigarren mailako ikasleak matematika eskolak hartuko lituzke aste bukaeretan Bergaran. 679 74 00 61

Programazioa. MUko lehen mailako ikaslea naiz eta programazioan C++ lengoaian eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 606 89 32 80 edo 610 33 67 04

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzak eta akerra. Bi ahuntz eta aker bat salgai. 679 34 00 45

Txakurkumeak. Artzai txakurkumeak salgai. Aita eta ama ardiekin lanean. 606 24 76 33

8. DENETARIK

802. EROSI

Lotarako zakua. Negurako bigarren eskuko lotarako zakua erosiko nuke. 628 51 22 78

Lursaila Oñatin. Hektarea inguruko lursaila erosiko nuke Oñatin, ortua, fruta-arbolak eta animaliak jartzeko. Animalientzako borda baldin badauka, ezin hobe. Eskerrik asko. 661 77 01 79

806. GALDU

Audifonoa Bergaran. Asteazken arratsaldean, otsailaren 5ean, diru-zorroa galdu nuen Bergarako San Martin Agirre eskola aurrean. Bi txartel eta audifonoa zeuden barruan. Topatuz gero deitu zenbaki honetara, mesedez: 605 72 50 85

Patinetea Bergaran. Torpedo markako patinetea desagertu da. Horia eta gurpil urdinekin. 665 70 64 46

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Sagardotegira. Martxoaren 8an, sagardotegira joateko asmoz, autobus bat betetzeko Arrasate edo inguruko beste talde batzuen bila gabiltza. Gu 8 bat pertsona gara. Deitu 943 77 04 86 telefonora.

GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)

- **Aireztatuak** eta **4 metro baino gehiagoko** altuera.
- **Camper** estiloko **furgonetentzat** edota **kirol materiala** gordetzeko egokia.
- Garajeen sarrera-atearen altuera 2,7 m.

INFORMA ZAITEZ!
943 31 68 68

ASTEA GOIENAN

GOIENA

Y belaunaldia eta kulturgintza berbagai

Gaur, egubakoitza, *Tertulia* saioan hizpide izango dugu Y belaunaldia eta kulturgintza. Ondoren, *Erretenak* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dizuegu Goiena telebistan. Bertan zazpi gazte azaltzen dira kulturgintzari buruzko galderak erantzuten.

'Tertulia'
Egubakoitza, 19:00

AITOR AGIRIANO

Aratuste jaien saio berezia ikusgai

Bailarako herrietan aurtengo Aratuste jaiek eman dutena jasotzen ibili ostean, Aratusteen gaineko saio berezia eskainiko dizuegu asteburuan. Zapatuan 12:55ean, 17:00etan eta 21:15ean eta domekan 11:05ean, 16:00etan eta 22:·0ean.

'Jaiak: Aratusteak 2014'
Zapatua, 12:55

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 7

12:00 Jaiak: Aratusteak 2014
12:30 Atik Zra
13:25 Zorion agurrak
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Jaiak: Aratusteak 2014
15:30 Tripa-zorri
15:55 Zorion agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:30 Klaketa
18:15 Ikusmira: Dock 39
18:30 Berriak
19:00 Tertulia
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Tertulia
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Tertulia

ZAPATUA, 8

10:00 Kantari
11:00 Debagoiena zuzenean
12:00 Ur eta lur
12:30 Onein
12:55 Jaiak: Aratusteak 2014
13:45 Tertulia
14:45 Zorion agurrak
14:55 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Onein
16:30 Pedalka
17:00 Jaiak: Aratusteak 2014
17:45 Ikusmira: Bermeoko Kurtzia baseliza
18:00 Kantari
19:00 Debagoiena zuzenean
15:55 Berriak
20:00 Tertulia
21:00 Ikusmira: Aratuste aurrekoa
21:15 Jaiak: Aratusteak 2014
22:00 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:05 Tertulia
00:05 Pedalka
00:30 Debagoiena Zuzenean

DOMEKA, 9

10:00 Kantari
11:00 Zorion agurrak
11:05 Jaiak: Aratusteak 2014
11:50 Pedalka
12:20 Onein
12:45 Zorion agurrak
12:55 Berriak
13:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Zorion agurrak
14:05 Tertulia
15:05 Kantari
16:00 Jaiak: Aratusteak 2014
16:45 Ikusmira: Aratuste aurrekoa
17:00 Debagoiena zuzenean
18:00 Berriak
18:05 Pedalka
18:35 Ikusi irratia: Makulu Ken
19:10 Klaketa
20:00 Sagarrondotik: Astigarraga
20:50 Zorion agurrak
20:55 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Pedalka
22:30 Tertulia
23:30 Jaiak: Aratusteak 2014
00:15 Debagoiena zuzenean

ASTELEHENA, 10

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Ikusmira: Bermeoko Kurtzia baseliza
13:20 Zorion agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Tertulia
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Jaiak: Aratusteak 2014
18:15 Ikusmira: Aratuste aurrekoa
18:30 Berriak
19:00 Ur eta lur
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 11

12:00 Ikusi irratia: Makulu Ken
12:50 Tripa-zorri
13:20 Sagarrondotik: Astigarraga
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Atik Zra: Ukrainia
18:10 Erreportajea
18:30 Berriak
19:00 Pedalka
19:30 Kantari
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Harira

EGUAZTENA, 12

12:00 Tripa-zorri
12:30 Klaketa
13:15 Ikusmira: Aratuste aurrekoa
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harira
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Klaketa
18:15 Ikusmira: Aratuste aurrekoa
18:30 Berriak
19:00 Harira
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Pedalka

EGUENA, 13

12:00 Sagarrondotik: Astigarraga
12:50 Atik Zra: Ukrainia
13:55 Zorion agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Pedalka
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ur eta lur
17:30 Tertulia
18:30 Berriak
19:00 Pedalka
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

'Kamaleoia' dantza ikuskizunerako sarrerak zozketan

Hilaren 15ean, zapatua, *Kamaleoia* dantza ikuskizuna eskainiko da Amaia antzokian 19:30ean. Bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu irratian egubakoitzean. Beraz, zozketan parte hartu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Besteak beste, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Emakume Txokoko Maite Barreñari egindako elkarrizketa eskainiko dizuegu asteburuan Arrasate Irratian. Saioa Bikandi ipuin kontalariak esandakoak ere jasoko ditugu zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 7	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Zapatua, 8	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Domeka, 9	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Astelehena, 10	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Martitzena, 11	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Eguaztena, 12	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 13	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
BERGARA			
Egubakoitza, 7	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Zapatua, 8	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 9	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 10	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 11	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 12	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguena, 13	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
OÑATI			
Egubakoitza, 7	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 8	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 9	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 10	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 11	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 12	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 13	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58

Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

ZAPATUA, 8
Max. 18º
Min. 5º

Zapatuan eguzkia izango dugu eta tenperatura igo egingo da. Giro atsegina izango da eta oskarbi egongo da orokorrean.

DOMEKA, 9
Max. 18º
Min. 5º

Goizean hotz egin arren, egunak aurrera egin ahala berotu egingo du eta eguzkia nagusituko da domekan ere.

EUSKAL HERRIA

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Hizkuntza egonaldiak. Estatuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Uztailean antolatzen dituzten ingeleseko udalekuetan parte hartzeko 2.200 laguntza. Baldintzak: ikasleak (L.H. 5, 6, DBH 1), batazbesteko nota oso ongi. Epea: martxoak 14.

LANA

Koordinatzailea. Azpeitiko Udala. *Etorkizun* egitasmoa aurrera eramateko koordinatzaile lanpostua osatzeko lan poltsa. Baldintzak: diplomatura, euskararen 4. HE. Epea: martxoak 14.

Suhitzaile espezialistarako 14 lanpostu Vitoria-Gasteizko Udalean. Vitoria-Gasteizko Udala. Baldintzak: 2. Hizkuntza Eskakizuna (3 lanpostu derrigortasun datarekin, 11 lanpostu derrigortasun datarik gabe). DBH, eskola-graduatua edo baliokidea, C gidabaimena. Edukia: Eskabideak: Internet bidez (*www.vitoria-gasteiz.org*).- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, 010 telefonoa. Epea: Martxoak 12.

Suhiltzaile ofizial 1 Vitoria-Gasteizko Udalean. Vitoria-Gasteizko Udala. Baldintzak: 3 Hizkuntza Eskakizuna (derrigortasun datarik gabe), Goi mailako unibertsitate titulua, Egiaztatu beharreko IT Txartelak: Windows XP, Internet (oinarrizkoa), Word XP (oinarrizkoa), Excel XP (oinarrizkoa) eta Power Point XP edo geroztikoak (05IT). Edukia: Eskabideak: Internet bidez (*www.vitoria-gasteiz.org*), Herritarrei laguntzeko bulegoetan, 010 telefonoa. Azken eguna izango da: Martxoak 12.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

URTEURRENA

Jesus Olalde Lizarralde

Oñatin hil zen 2013ko otsailaren 4an, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
martxoaren 8an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2014ko martxoaren 7an.

URTEURRENA

Felisa Laspiur Arriolabengoa

2013ko otsailaren 28an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 9an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2014ko martxoaren 7an.

URTEURRENA

Jose Luis Elkoro Pagaldai

2013ko martxoaren 3an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 9an, 11:30ean,
Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2014ko martxoaren 7an.

OROIGARRIA

Mauricia Zamalloa Alzola

Goienako langile Oihane Isasiren amama.

Zornotzan hil zen 2014ko martxoaren 4an

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Debagoienean, 2014ko martxoaren 7an.

OROIGARRIA

Rosario Kortabarria Urrutia

Zezilio Beitiaren alarguna

Oñatin hil zen 2014ko martxoaren 3an, 105 urte zituela.

Joan zaizu bizitza luzea
beti alai eta pozik
Uribarriko zelaietan egina
lana gogoz besteengatik.
Mila kantu eta kontu
ikasiak gara zuregandik.
Haitzpeetik joan zara hegaz ta
Sutondoa geratu da hutsik.
Eskerrik asko Amama
Izan zarena izateagatik

Zure familia.
Oñatin, 2014ko martxoaren 7an.

OROIGARRIA

Andoni Lopez de Lacalle Mitxelena

Kalezaharra elkarteko bazkidea

Zure oroimena
beti izango da gure bihotzetan.

Kalezaharra elkartea

Kalezaharra elkartea.
Oñatin, 2014ko martxoaren 7an.

OROIGARRIA

Jose Iria Orue

Arrasaten hil zen 2014ko otsailaren 27an.

Zure jakinmina
Zure elkarrizketak
Zure umorea
Zure leialtasuna
Eskerrik asko zurekin ikasitakoagatik

Ugarte familikoak.
Arrasaten (Garagartza), 2014ko martxoaren 7an.

ESKER ONA

Jose Iria Orue

Arrasaten hil zen, 2014ko otsailaren 27an.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

Etxosteko egonaldiak
betirako gogoan
zugandik jaso eta ikasitakoa

gure oroitzapenetan
eta zure irrifar goxoa
bihotzaren barren-barrenean

Etxekoak.
Arrasaten (Garagartza), 2014ko martxoaren 7an.

ESKER ONA

Ramona Abarrategui Abarrategui

Felipe Gardokiren alarguna

Arrasaten hil zen 2014ko martxoaren 5ean, 94 urte zituela.

Seme-alabak: Jose Antonio (†), Miguel Angel eta Begoña Suberbiola; biloba: Larraitz; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideek

eskerrak eman nahi dizkizuete hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi.

Arrasaten, 2014ko martxoaren 7an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

HILDAKOAK

Felisa Dorronsoro Etxebarria. Oñatin, otsailaren 20an, 88 urte.
Alberto Etxebarria Izurrategi. Arrasaten, otsailaren 27an. 61 urte.
Jose Iria Orue. Arrasaten, otsailaren 27an.
Teodora Ortuzar Bilbao. Bergaran, otsailaren 27an. 103 urte.
Pilar Zangitu Eguren. Bergaran, otsailaren 28an. 89 urte.
Ricardo Estrella Portalo. Arrasaten, otsailaren 28an. 74 urte.
Agustin Elortza Beitia. Arrasaten, otsailaren 28an. 72 urte.
Migel Urtzelai Madinabeitia. Aretxabaletan, otsailaren 28an. 72 urte.
M. Itziar Maiztegi Arregi. Arrasaten, otsailaren 28an. 81 urte.
Andoni Lopez de Lacalle Mitxelena. Oñatin, martxoaren 3an, 62 urte.
M. Rosario Kortabarria Urrutia. Oñatin, martxoaren 3an, 105 urte.
Jose M. Iñarra Lizarralde. Bergaran, martxoaren 3an. 94 urte.
Nieves Garcia Rey. Oñatin, martxoaren 4an, 95 urte.
Ramona Abarrategi Abarrategi. Arrasaten, martxoaren 5ean. 94 urte.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

BERGARA Ruper Ordorika, bakarka
Oñatiko musikariak bakarkako kontzertua egingo du Bergaran, Zabalotegin. Gitarraren laguntzarekin igoko da taula gainera, bere kantu esanguratsuenak jotzeko. Kontzerturako sarrerak salgai egongo dira leihatilan emanaldia hasi arte, zortzi euroren truke.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan.

WWW.RUPERODORIKA.COM

GOIENA

BERGARA 'Emakumeak gerra zibilean eta frankismoa'
Ekin Emakumeak Elkarteak egindako erakusketa ikusgai ipiniko dute Bergaran. 1936ko gerran eta osteko diktadura frankistaren garaian emakumeek bizi izan zuten errealitatea ezagutzera eman nahi du erakusketak argazkien bidez.
Martxoaren 23ra arte, Aroztegin, 18:00etan.

NON-ZER

MARTXOA 7
MARTXOA 13

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

BERGARA Tutan Come On taldea
Conde eta Salterain dira taldeko kideak. Bikote formatuan stoner-rock musikaz beteko dute Lainoko oholtza gasteiztarrek. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, Laino Skate gunean, 22:30ean.

ARRASATE Patxi Luqueren emanaldia
Zilarrezko zia (pua) irabazi zuen gitarra-jotzaileak zuzenekoa egingo du Ederra tabernan. Askotariko estiloak jotzen ditu, eta baita berak sortutako abestiak ere.
Bihar, zapatua, Ederra tabernan, 23:00etan.

ARRASATE Penadas por la Ley, Dead Squad eta Las Tuerkas
Hiru taldeek punk kontzertua egingo dute. Las Tuerkas taldeak *Rompiendo cadenas* diskoa aurkeztuko du. Martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldia.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean.

ARRASATE Aratusteetako kontzertua
Arrasate Musikaleko banda nagusiak Aratusteetako kontzertua egingo du. Mikel Markiegik zuzenduko duen emanaldian pelikuletako eta marrazki bizidunetako soinu bandak joko dituzte. Umeendako kontzertu "aproposa" dela diote antolatzaileek.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 12:30ean.

ANTZERKIA

ARRASATE 'Macho-Maris' antzezlana
Maskulinitateari buruzko antzezlana egingo dute Markus eta Juan Manolo aktoreek. Martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldia. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE 'Arrasate emakumeak, atzo eta gaur' kale antzerkia
Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta, eta Gipuzkoako Aldundiaren eta Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzaz, *Arrasateko emakumeak, atzo eta gaur* kale antzerkia egingo du Arizan antzerki taldeak, SeberAltuben hasita.
Bihar, zapatua, Seberon, 18:00etan.

OÑATI 'Emakume protagonistak' bakarrizketa
Toti Martinez de Lezearen *Urak dakarrena*-rekin, Errose Bustintzaren *Mañariko*-rekin, Ramon Maria Azkueren kontakizunekin eta beste herri ipuin batzuekin osatutako saio gazi-gozoa eskainiko du Ixabel Agirresarobe aktoreak. Martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldia da.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 19:00etan.

ARETXABALETA Esther Uriaren bakarrizketa
Antzerkian, zineman eta telebistan eskarmentua duen aktoreak egingo du bakarrizketa. *Como agua para chocolate* antzezlanean ikusi genuen. Gainera, *Hospital Central*, *Cuéntame* eta *Euskolegas* telesailetan parte hartu izan du Esther Uriak.
Bihar, zapatua, Pagaldaixenan, 22:30ean.

ARETXABALETA 'A trompicones' antzezlana
Zera diote Luna Llena taldekoek: "Zein emakumek ez du inoiz sentitu bere bizitza, eguneroko jarduna, oztopo lasterketa bat denik? Lana, familia, bikotekidea, bikotekiderik eza, asperdura... Krisia guretzat ez da arazo berria...". Horri buruz egingo dute berba *A trompicones* antzezlanean.
Martxoaren 11n, Arkupen, 19:00etan.

BERTSOLARITZA

BERGARA Debagoieneko gazteen emanaldia
Saio horretako gai nagusiak generoa eta euskara izango dira. Parte-hartzaileak Debagoieneko bertsolari gazteak izango dira. Sarrera doan.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

HITZALDIAK

OÑATI Mario Zubiagaren berbaldia
Erabakitzeko eskubidearen gaineko hitzaldia egingo du EHUko irakasleak, Ernai taldeak antolatuta.
Gaur, egubakoitza, Antixenan, 19:00etan.

ARETXABALETA Atez atekoaren gaineko batzarrak
Atez ateko hondakin bilketa sistemaren gaineko informazioa emango diete astelehenean, martitzenean eta eguaztenean hainbat kaletako bizilagunei. Bi batzar egingo dituzte egunero: 10:00etan gazteleraz eta 18:30ean euskaraz.
Martxoaren 10ean, 11n eta 12an, Arkupen, 10:00etan eta 18:30ean.

BERGARA Gurasoentzako hitzaldia, bikote-arazoak seme-alabekin nola tratatu lantzeko
Bikotean krisia: zer eta nola hitz egin seme-alabei? izenburua duen hitzaldia egingo du Bergarako Udaleko Prebentzio Zerbitzuak, bikoteen harremanak seme-alaben aurrean tratatzen ikasteko. Hitzaldia Etxadi elkarteko kideek egingo dute. Era berean, Familientzako Orientazio Psikologikorako Zerbitzuaren gaineko informazioa emango zaie bertaratzen direnei.
Martxoaren 11n, Irizar jauregian, 18:00etan

UMEAK

ELGETA Ipuin kontaketa liburutegian
3-8 urte arteko umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du. Bost ipuin kontatuko ditu Larraitz Zeberiok. Ipuin kontalari boluntarioekin egindako hirugarren saioa izango da.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:20ean.

TOPAKETA

BERGARA Haurren eta gurasoen batzarra sortzeko lehen bilera
Hauxe dio Gaztetxeko batzarrak: "Asanblada honek hasiera izan gura du. Kartzela zaharrean emango diogu hasiera ekimenaren ikuspuntu eraldatzailea bermatzeko: herrira begira, haurren eta gurasoen beharretatik abiatuz beste gizarte eredu baten bila".
Etzi, domeka, gaztetxean, 17:30ean.

OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA Kafe-tertulia
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, *Adueñándome de mis palabras* izeneko kafe-tertulia egingo dute Ibarraundin.
Gaur, egubakoitza, Ibarraundin, 18:00etan.

ARAMAIO 1974an jaiotakoen ospakizuna
1974an jaiotako aramaioarrek afaria egingo dute bihar. 19:30ean elkartuko dira Bizente Goikoetxea plazan, Iturrietan afaltzeko.
Bihar, zapatua, Bizente Goikoetxea plazan, 19:30ean.

ANTZUOLA Emakumeen Nazioarteko Eguna
Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, elkarretaratzea, triki-poteoa eta afaria.
Bihar, zapatua, Antzuolan, 19:00etan.

BERGARA Kantu-afaria
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldia. Kantu afarirako txartelak Pol-Pol eta Arrano tabernetan egongo dira, martxoaren 7ra arte.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean.

ARRASATE Extremadurako ogi-mamiak dastatzeko aukera
Corazon de Encina elkarteak antolatuta, Extremadurako ogi-mamiak dastatzeko aukera izango dute herritarrek. Doan.
Etzi, domeka, Herriko plazan, goizean.

ARETXABALETA Fun Dantz! jaialdia
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hip-hoparen kulturak eta arte urbanoak hartuko dute Aretxabaletako Ibarra kiroldegia, Udalaren eta Break On Stage jaialdiaren arteko elkarlanari esker. Fun Dantz! jaialdian, erakustaldiak, lehiaketak eta musika tartekatuko dira.
Bihar, zapatua, Ibarran, 16:30ean.

WWW.DZANP.COM

README-READMEDIA.COM

ARRASATE 'Madame Butterfly' operaren aurkezpena

Arrasateko Ozenki Lirika Elkarteak martxoaren 10ean aurkeztuko du Pucciniren *Madame Butterfly* opera. Irungo Luis Mariano elkarteak taularatuko du Amaia antzokian, martxoaren 18an.

Martxoaren 10ean, Kulturaten, 19:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

BERGARA 'Aulki hutsa' dokumentala

Heriotzari buruzko dokumentala da. Heriotzaren aurrean sentitzen diren mina, haserrea, tristura, burumakurtasuna eta bakea islatzen ditu Iñaki Peñak zuzendutako lanak. Dolua bizi izan duten askotariko protagonistekin berba egin zuen. Sarrera, doan.

Martxoaren 11n, Zabalotegin, 19:00ean.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Txapa tailerra gaztelekuan

Txapa tailerra egingo dute gaztelekuan, Emakumeen Nazioarteko Eguna gai hartuta.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:00etan

ESKORIATZA Eskoriatza Herria III. ikerketa beka deitu dute

Eskoriatzako Udalak Eskoriatza Herria III. ikerketa beka deitu du. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa martxoaren 10era arte aurkeztu ahal izango dira udaletxeko harreran, 09:00etatik 14:30era.

Martxoaren 10era arte, udaletxeko harreran, 09:00etatik aurrera.

ARETXABALETA Basotxoren batzar orokorra

Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du; besteak beste, 2013ko balantze ekonomikoa aurkeztu eta onartu eta aurtengo egitasmoen berri emango dute.

Gaur, egubakoitza, Basotxon, 17:00etan.

IRTEERA

OÑATI Martxoko mendi irteera

Aloña Mendiko mendi sailak Urbasa mendikatera irteera egingo du martxoaren 16an: Zunbeltz-Dulantz-Krezmendi-Irantzu izango da ibilbidea. Urbasa mendikatearen hegoaldera. 20 kilometroko irteera da. Interesatuek martxoaren 13a baino lehen eman behar dute izena Aloña Mendi tabernan: bazkideek 10 euro, bazkide ez direnek 13 eta langabeek 5.

Martxoaren 16an, postetxetik, 07:00etan.

IKASTAROA

OÑATI Joskintza hastapen ikastaroa

Josteko makina erabiltzen ikasi, praka barrenak hartu, izenak nola bordatu... Horiek guztiak erakutsiko dituzte Udaleko Kultura Sailak antolatutako joskintza ikastaroan. Martxoaren 14tik apirilaren 11ra emango dituzte eskolak, egubakoitzetan, 19:00etatik 21:00etara arte. Izena emateko epea martxoaren 3an zabalduko zuten. Interesatuek kultura etxeko sarreran jaso dezakete informazioa, eta baita izena eman ere.

Martxoaren 14tik apirilaren 11ra.

BERGARA Hondatutako etxeko tresnak konpontzeko, 'Kafe-konpon'

Kafea hartzen duten bitartean, etxeko tresnak konpontzeko deialdia egin dute Kafe Konpon taldeko lagunek.

Martxoaren 12an, San Joxepen, 16:00etan

Araba Euskaraz 2014ri esker

Hamlet antzezlana ikusteko bina sarrera zozketatuko ditugu.

Aguraingo Harresi Aretoa
Martxoaren 30ean, 19:30ean.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Hamlet] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com **WhatsApp:** KLUBA [Hamlet] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

goienakluba

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La gran estafa americana
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

En busca del medallon perdido
Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Agosto
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Lego, la pelicula
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

12 años de esclavitud
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00

Doraemon eta Nobita Holmes
Zapatua eta domeka: 17:00

EIBAR

COLISEO

Pense que iba a haber fiesta
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

¿Que hacemos con Maisie?
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Monuments men
Zapatua: 19:45, 22.30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Un pez duera del mar
Domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

Las aventuras de Peabody y Sherman
Zapatua eta domeka: 16:30.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:30, 20:30.
Eguaztena: 17:30.

Her
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara: 21:45.
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:45.
Eguaztena: 21:45.

Las aventuras de Peabody y Sherman 3D
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30.
Eguaztena: 18:30, 20:30, 22:30.

El origen de un imperio
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:00, 19:30, 20:45.
Eguaztena: 18:00, 19:00, 20:30, 22.30.

El origen de un imperio 3D
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Zapatua eta domeka: 16:15.
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:45.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:30, 20:45.
Eguaztena: 18:30, 20:45.

Philomena
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:15, 22:45.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:45.
Eguaztena: 17:45, 19:45.

Monuments men
Egubakoitza: 17:45, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:45, 20:15.
Eguaztena: 19:00, 21:30.

Robocop
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:05.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:45.
Eguaztena: 17:45, 20:05.

Nebraska
Zapatua eta domeka: 15:30.

El lobo de Wall Street
Egubakoitza eta zapatua: 23:35.
Egubakoitzetik domekara: 20:10.
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:35.
Eguaztena: 20:10.

La gran estafa americana
Egubakoitzetik domekara: 19:40, 22:20.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:10.
Eguaztena: 20:30.

El poder del dinero
Egubakoitza: 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatuta eta domeka: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:20.
Eguaztena: 20:20, 22:30.

12 años de esclavitud
Egubakoitzetik domekara: 22:25.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:05.
Eguaztena: 22:25.

Lego, la pelicula
Zapatua eta domeka: 15:50.
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30.
Eguaztena: 18:00.

Frozen
Zapatua eta domeka: 15:30.

Gravity 3D
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara: 22:00.
Eguaztena: 22:00.

Vivir es facil con los ojos cerrados
Egubakoitzetik domekara: 17:35.
Eguaztena: 18:00.

Blue Jasmine
Egubakoitza: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:10.
Eguaztena: 18:10.

Lluvia de albondigas
Zapatua: 15:30.

Futbolin
Domeka: 15:30.

La ladrona de libros
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:10.

FLORIDA

Joven y bonita
Egubakoitza: 17:00, 18:45, 20:35, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:45, 20:30.
Astelehena eta eguena, jatorrizko bertsioan: 20:30.

Nebraska
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 22.30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

La gran belleza
Egubakoitzeik eguenera: 19:45.

Lego, la pelicula
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Monuments men
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00. 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Las aventuras de Peabody y Sherman
Egubakoitza: 17:00, 18:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 18:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Philomena
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El origen del imperio
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Emperador
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

Vivir es facil con los ojos cerrados
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

Her
Egubakoitzetik domekara: 19:50, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

Ernest & Celestine
Zapatua eta domeka: 12:00.

Futbolin
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

PHILOMENA ★★★☆☆

Zuzendaria: Stephen Frears.
Herrialdea: AEB.
Urtea: 2013.
Aktoreak: Judy Dench, Stece Coogan, Charly Murphy, Simone Lahbib.
Iraupena: 98 minutu.

Ama baten erraiak

Ama batentzat seme-alaba bat galtzea oso mingarria da. Galera sentimendu hori barnean geratzen zaio. Horixe da *Philomena*-ren abiapuntua. Nerabe dela haurdun geratu da. Eskola katolikoan dago eta han ez dute ama semearekin egoten uzten. Haurrak 3 urte betetzean, familia aberats bati emango diote. Amak ez du jakingo haurra nora joan den, eta mojek bide guztiak itxiko dizkiote semearen berririk izan ez dezan. 50 urte pasa ostean, amak barnean duen hutsunea bete guran, kazetari batekin elkartuko da hari-mutur guztiak lotzeko.

Stephen Frearsek elkar garatzen joango diren bi istorio ditu. Alde batetik, suspentsearekin zerikusia duen istorioa: ikuslea bi pertsonaiekin batera joango da haurrari gertatutakoa ezagutzen. Informazio hori modu neurtuan gertatuko da. Egiten duten bidean ezuste eta biraketa interesgarriak gertatuko dira. Beste alde batetik, oso desberdinak diren bi pertsonaien arteko harremanak ikusiko ditugu: *Philomena*, heziketa aberatsik ez duena, Jainkoarengan sinesten duena eta bizitzari buruzko ikuspegi errazagoa duena; eta kazetaria, eskarmentua duena, Jainkoarengan sinisten ez duena, eta bizitzari buruzko ikuspegi ironikoagoa eta zinikoagoa duena.

Stephen Frears ondo moldatzen da bi istorioak batzen eta film sendoa lortzen du. Eta hor, Judy Dench eta Steve Coogan aktoreak agertzen dira, sendotasun horri distira emateko. Denchek maisutasunez egin dezake James Boonden film bat, Britainia Handiko erreginaren papera edo emakume arrunt baten pertsonaia. Egiten duen interpretazioa neurtua eta indartsua da. Eta Cooganek, bere ahots eta berba egiteko moduarekin, dotorezia eta grazia handia ematen dio kazetariaren pertsonaiari. Aktoreen interpretazioak dastatzeko gomendagarria da jatorrizko bertsioa ikustea.

ANTONIO ZABALA

goiena

2014-03-07

BUKATZEKO

Ondorioak aterarazteko egindako lana

- 'Y' belaunaldia hartuta, transmisioa eta kulturgintza ditu ardatz 'Erretena' dokumentalak
- MUko bi ikaslek egin dute eta 1.800 bisita baino gehiago izan ditu dagoeneko sarean

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Y belaunaldiaz eta kulturgintzaz hitz egiten duen lana egin dute Ander Bolibar bergararrak eta Kepa Matxain añorgatarrak Mondragon Unibertsitateko Sorguneak ikertegirako. *Erretenak* du izena dokumentalak, eta 80ko hamarkadan jaiotako zazpi lagunen adierazpenak batzen ditu. Sarean zintzilik dago bideoa eta 1.800 bisita baino gehiago izan ditu dagoeneko.

Arzallus, Arrula, Lopez eta Benito, hurrenez hurren. | ERRETENAK

Erantzun bila

Transmisioa eta kulturgintza ditu ardatz dokumentalak, baina belaunaldiaren definizioak ere jakin-mina eta eztabaida piztu du: *Zer da Y belaunaldia? X-aren ondorengoa? Nortzuek osatzen dute? Prakak ipurdi erdiraino jaitsita dituzten gazteek?*

Dokumentalaren egileek, baina, lanaren ardatza hartu dute oinarri hausnarketa egiteko, *Y* belaunaldiaren definizioa zehaztu barik. Horrela, bestelako galdera hauen erantzunak bilatu gura izan dituzte: *Nolako kezkak dituzte? Sentitzen al dute euren burua belaunaldi bateko kide? Ze iritzi dute kulturgintzako problematika orokorrez? Nola bizi dute transmisioaren gaia, edo tradizioaren berrikuntza, edo lehendik datorren fluxuari segida ematea?* Ander Bolibarrek hauxe esan du: "Hainbat ideia plazaratu nahi izan ditugu, eta ikusleari esan: 'atera orain zure ondorioak".

Grabazioak 2013ko udaberrian egin zituzten Donostian, Gasteizen, Gernikan, Soraluzen, Tafallan eta Zarautzen. Zazpi lagun, "fluxu horretako zazpi erreten", elkarrizketatu dituzte, erantzun bila. Kazetaritza, bertsolaritza, literatura, soziologia eta musika alorretan dihardute, besteak beste. Amets Arzallus, Jon Benito, Garazi Arrula, Leire Lopez, Beñat Sarasola, Jokin Azpiazu eta Andoni Olariaga dira, hain zuzen, elkarrizketatuak.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Amama, eskerrik asko

Urtero izaten da aldarikapen eguna Martxoaren 8a. Udal eta erakunde guztietan emakumeak jasaten dituen kalamidade guztien salaketa eta emakumearen berdintasuna eta errespetuaren aldeko mozioak onartzen ditugu. Talde politiko guztiek elkarren artean adosten duten aldarrikapena izaten da eta hori poztekoa da. Nik beste zentzu bat eman nahi diot, ordea, aurten: hainbat eta hainbat emakume gure bailarako industria eta lantegietan aritu dira XIX . mendetik hona! Ez da oraingoa emakumeok lantegian eta etxean lan egin beharra. Gerra garaian eta gerra ondoren ere makina bat emakumeren lana etxeko ekonomiarako oinarrizkoa izan da. Bihoakie nire omenaldirik benetakoena. Garaiak aldatzen joan dira, batzuetan hobera eta bestetan okerrera, baina emakumearen egun berezi honetan...

Eskertza, letra larriz, gure amei, gure seme-alaben amamei eskaini nahi diet. Bizitza guztian lanean egon ondoren, bai etxean eta bai lantegietan, orain euren etxeko lanak egiten, senarra zaintzen, gure seme-alaben zaintzaile, gure sukaldari eta errekadista lanak egiten diharduten amamei. Musu handi bat eta eskerrik asko, amama.